HEGATS

Euskal Idazleen Elkartearen Literatur Aldizkaria

▪ 56 ▪

5€

GIDOILARIAK. ARTISTAK. ANTZEZLEAK. IPUIN-KONTALARIAK. IKERTZAILEAK. KAZETARIAK. IDAZLE.

ISSN: 1130244-5

HEGATS

Euskal Idazleen Elkartearen Literatur Aldizkaria

▪ 56 ▪

EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

HEGATS

Argitaratzailea: Euskal Idazleen Elkartea (idazleak.eus)
Zuzendaria eta koordinatzailea: Garazi Arrula Ruiz
Diseinua eta maketazioa: Sardina Grafica
Azala: Sardina Grafica
Argazkiak: Sara Berasaluce
Inprimategia: Antza
ISSN.: 1130244-5
L. G.: SS-359/90

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ORAIN GIPUZKOA

08. Kronograma

12. Maite Mutuberria
Mikel Santos "Belatz"

18. Haur literatura

22. Maider Oleaga
Ximun Fuchs

28. Joan Mari Torrealdai

34. 68ko Maiatza

38. Bakartxo Arrizabalaga

44. Isabel Etxeberria
Ana I. Morales

50. Ibon Egaña Etxeberria

54. 18, Adin Nagusitasuna

60. Amaia Hennebutte
Ane Gebara

66. Miel A. Elustondo

72. Miren Gaztañaga
Oier Guillan

78. Laura Ruiz Saenz
Nora Aurrekoetxea

86. Hitzen Uberan

A U R K I B I D E A

H E G A T S

Garbine Ubeda

Nor den idazle.

Hirurehundik gora lagun gara Euskal Idazleen Elkarteko kide, laurehundik gertu. Eta badira gehiago ere, idazleak alegia, elkartera lotu ez direnak baina idazten dutenak. Asko gara, beraz. Baina nekez entzuten den etiketa da, inoiz gutxitan baliatzen den aurkezpen txartela. Lehenago gara kazetari, irakasle, dibulgatzaile, gidoilari edo itzultzaile. Eta lehenago gara, jakina, Realekoak, edo Biarritz Olympiquekoak, edo dena delakoaren aldekoak eta batek daki nongoak.

Zer den idazle izatea. Nor den idazle. Edo nor den idazleago. Horra hor, geure buruan bederen, malgutasun handixeagoa beharko lukeen kontzeptua. Konplexutik heltzen zaiolako sarritan, edo konparazio itsusitik, edo prestigio elitistatik. Gutxitan, jardunetik edo ofiziotik.

Baina izan bagara. Eta arlo, esparru eta bazter askotara heltzen da gure ekarpena. Garazi Arrulak ondo dioen bezala, baita tabernetako komunetaraino ere. Balioestea falta.

Garazi Arrula Ruiz

Irakurleez edo, hobeki esanda, horien gabeziaz kezkaturik gauden honetan, sortzaileengan eta espresiobideetan jarri dugu guk arreta. Batetik, aurtengo aleak *hitz beste* den horri erreparatu dio, hitza dialogoan jartzen baita hamaika sorkuntza adierazpiderekin. Azalak aditzera ematen duenez, aurpegi askoko jarduna da idazketa. Elkar laguntzen eta elikatzen duten diziplina horietako argitalpenak eta protagonistak ekarri nahi izan ditugu; horiei eman diegu ahotsa, betiere 2018ko ekoizpena oinarri harturik. Laburbilduz, hitza hiru multzo handirekin harremanetan jarri dugu, aldez aurretik jakinik labur geratuko ginela: irudia, pentsamendua eta gorputza.

Bestetik, ertz askotarikoen ikuspegi horren bidez, idazlearen irudikapena zabaltzea ere izan dugu asmo. Literatura Terminoen Hiztegiaren arabera, hizkuntza helburu artistikoak lortzeko erabili ohi duena da idazlea, autorea edo egilea, hots, literatura sortzailea. Eta literatura aurkitzen ahal dugu abestien letretan, arkitekturan, tabernetako komunetan, irratian, karriketako pintadetan, oholtzan, harategiko arbelean. Guztiak hona ekarri ezin, eta ale honetan bildu ditugu beren ohiko jardunean hitza darabilten hainbat sortzaile: gidoilariak, ipuin-kontalariak, antzezleak, marrazkilariak eta artistak; hitzarekin duten harremanaz, hitzaren eta bestearen arteko harremanez solasean jarri ditugu.

Azkenik, *Hegats*en ohi denez, urteko ekoizpen, mugarri, urteurren eta gertakariei erreparatu diegu, erreportaje, solasaldi eta iruzkinen bidez.

Horra aurtengo proposamena. Edizio lanean lagun izan ditut Sara Berasaluce argazkilaria, Ion Sarasola diseinatzailea, EIEko langileak eta ale honetako kolaboratzaile eta elkarrizketatuak; haiei guztiei, nola ez, nire esker ona. Irakurleari dagokio orain hitz beste egitea.

KRONOGRAMA-2018

URTARRILA

Laugarren aldiz egin dute '(H)ilbeltza' nobela beltzaren astea Baztanen, eta liburu aurkezpenak, solasaldiak, film emanaldia eta ipuin antzeztuak izan dira, besteak beste. Udazkenean, Josu Barambonesi eman diote (H)ilbeltza itzulpen beka, Patricia Highsmithen *The Blunderer* eleberria euskaratzeko.

MARTXOA

Nafarroako liburu-dendek 2017an argitaraturiko hiru lan saritu dituzte, tartean, Silvia Federiciren *Caliban eta sorgina* saiakeraren euskarazko itzulpena.

APIRILA

Zurrunbilo Euskal Arte Eszenikoen Jaialdiaren III. edizioa egin dute Gasteizen. Besteak beste, Kukai, Atx Teatroa eta Huts Teatroa konpainien lanak ikusteko aukera izan dute.

Uxue Alberdiren *Jenisjoplin* eleberria saritu dute 111Akademiako irakurleek, eta Euskadiko Liburu Denden Elkarteak, berriz, Eider Rodriguezen *Bihotz handiegia*-ri eman dio Zilarrezko Euskadi saria.

Sarako Idazleen Biltzarrak 35. topaketa egin du, Bazko igande arratsaldez eta astelehenez. Inoizko jendetsuena izan da, eta 166 idazle eta 15 argitaletxe pasa dira handik.

Gutun Zuria antolatu dute beste urte batez Bilbon. Nazioarteko Jaialdiaren XI. edizioa izan da aurtengoa, eta "Naturara itzultzea. Utopia literarioa ote?" titulua jarri diote.

MAIATZA

Karl Marx sortu zela 200 urte bete dira hilaren 5ean; horren aitzakian, udazkenean jardunaldiak egin dituzte Katakraken, Marxen pentsamendua eta obra mintzagai.

Aldizkariaren 66. alea kaleratu dutela eta, *Maiatz* literatura solasaldiak egin dituzte Baionan eta Iruñean, hamaika parte-hartzailerekin.

"Poetak maiatzean" jaialdiaren VI. edizioa egin dute Gasteizen. Besteak beste, Miren Agur Meabek, Agurtzane Anduetzak, Gerardo Markuletak eta Anjel Lertxundik parte hartu dute.

Literaturiak "Aingura" izan du aurtengo gaia. Urtero bezala, hamaika emanaldi eta liburu aurkezpen egin dituzte lau egunetan, Zarautzen.

Sareinak taldeak 11 urte bete ditu. Urteurrena ospatzeko, irakurle talde feministen esperientziak izan dituzte mintzagai Oihaneder etxean, Gasteizen.

EKAINA

Eztena antzerki jaialdiaren 10. urteurrenean, gala berezia egin dute Errenteriako Niessen auditorioan; gainera, Joxe Mari Karreren *Zapatak*, Tripak kolektiboaren *Aitaren larrua* eta Jose Martin Urrutia Txotxeren *Ametsen faktoria* antzerki lanen liburuak aurkeztu dituzte.

Ekaitz Goienetxeak Zazpi kale saria jaso du Bilboko 48. Liburu Azokan, *Zaldi mamarroa* lanagatik.

UZTAILA

Eako poesia egunak egin dituzte, non musika, antzerkia eta literatura nahastu baitira beste behin; aurten, "Lurra sustraietatik orri" leloa jarri diote.

Euskara Batuak 50 eta Euskaltzaindiak 100 urte egin dituzte, eta udazkenean hamaika ekitaldi, artikulu eta nobedade aurkeztu dira horren harira; besteak beste, Euskara Batuaren Eskuliburua, idazten duen ororentzako lagungarri.

IRAILA

Poesia orduak izan dira Donostian, Itu Bandaren eta Antxine Mendizabalen errezital banarekin.

Paulo Iztueta eta Jokin Apalategiri omenaldia egin diete. Utriusque Vasconiae argitaletxea itxi dute, 19 urteren ostean; UPV/EHUri utzi diote fondo guztia.

KRONOGRAMA-2018

Beste Hitzak programaren baitan, Ainara Maia Urrozek Bitola hirian (Eslovenia) egin du egonaldia, mazedonierako hitzak abiapuntu harturik poesia bilduma bat lantzeko. Bestalde, idazle eta editore mazedoniar bat izan dugu gurean: Stefan Markovskik zenbait aste egin ditu Hugoenean.

AZAROA

Bere ibilbideko XVIII. kongresua egin eta gero (*Geroa Elkar-Ekin* lelopean, urrian), Eusko Ikaskuntzak mendeurrena ospatu du sorlekuan, Oñatin.

Donostia Hiriko Kutxa literatura sarietan, Oier Guillanek irabazi du antzerki alorrekoa, *Aire ikusezina* lanagatik, eta Alexander Martinezek, berriz, ipuin-liburu sariketa, *Iraumen* izenekoagatik.

Juan Kruz Igerabidek jaso du Espainiako Haur Literatura Saria, *Abezedario titirijario (letren txotxongiloa)* lanagatik.

Amaia Gabantxok irabazi du Etxepare Itzulpen Saria, Gabriel Arestiren *Harri eta Herri* eta *Maldan Behera* lanak ingelesera itzultzeagatik.

Literaktum jaialdia egin dute beste behin Donostian, bi astez. Solasaldi, antzerki eta erakusketez gainera, hainbat emanaldi antolatu dituzte haurrentzat.

Joseba Sarrionandiaren obran oinarriturik, *Gure oroitzapenak* film kolektiboa aurkeztu dute, lehenik Zinemaldian eta gero zinema aretoetan.

URRIA

Euskadi Sariak banatu dituzte: Eider Rodriguezek horietako bi jaso ditu *Bihotz handiegia* ipuin-liburuagatik eta *Santa familia* komikiagatik, Irene Aldasorok *Gailur Ekaiztsuak* itzulpenagatik, eta Kepa Altonagak *Patagoniara Hazparnen barrena* saiakeragatik.

Markina-Xemeinen "Bizenta Mogel ezagutzen" solasaldiak egin dituzte, Ondarearen Europako Jardunaldien harira. Egun osoko egitaraua atondu dute Mogelen figuraren inguruan.

"Mary Shelleyren *Frankenstein*, 200 urte zatiak josten" izeneko solasaldiak egin dituzte Hondarribiko Kultur Etxean. Urteurren beraren harira, Liburuaren Nazioarteko Egunean, apirilaren 23an, EIZIEk mahai-ingurua antolatu du Donostian.

Iñaki Martiarena *Mattin* hautatu dute Nekatoenean hilabeteko egonaldia egiteko. Emaitza ikusteko goiz bada ere, badakigu Kamishibai ipuin bat idatzi eta marrazteko egitasmoa aurkeztu zuela.

Bigarren aldiz antolatu dute Iruñean 948 Merkatua. Kultur produktuen salmentaz gainera, hitzaldiak, lantegiak, bilerak eta eztabaidak antolatu dituzte. Kulturaren eta artearen esparruko mila profesional inguruk parte hartu dute, merkatua bilgune izatea ere baita asmo.

ABENDUA

Abenduaren 1ean hamar urte egin du Mikel Laboa hil zela. Efemerideari helduz, omenaldiak egin dizkiote hainbat herritan; kasurako, duela hamar urte bezala, Ahotsenean presente egon da musikariaren figura eta emana.

“IDAZLE? ISTORIO KONTALARIAK BAI, BEHINTZAT”

Ezberdinak izanagatik, literaturak eta irudiak bat egiten duten eremu lauso eta zabal horretan elkartzen dira Maite Mutuberria eta Mikel Santos ‘Belatz’-en ibilbideak. Literatura amildegia bada, ertz-ertzetik oinez dabiltzanen gisara mintzo dira biak, eroriari tentatuz, baina gehiegi urrundu nahi gabe ere. Literaturatzat dute euren eremua, baina kosta egiten zaie beren burua idazle kategorian kokatzea. Adokinak zapaldu nahi gabe marren gainetik ibiltzen denaren antzera ibiltzen dira haiek ere diziplinen arteko muga zehaztugabeetan, ezinbestean eroriz alde batera edo bestera. Azkenean, izena eman diote inorena ez den euren lur horri: istorio kontalariak. Eta orduan sentitu dira eroso, elkartu dituen Café Iruñako ispiluak, azkenean, denboran bilatutako isla itzuli balie bezala.

Testua: Ander Perez Argote / Argazkiak: Sara Berasaluce

MIKEL SANTOS ‘BELATZ’

MAITE MUTUBERRIA

Zuen ibilbidean, zer harreman izan duzue literaturarekin?
Mutuberria: Nik ikus-entzunezko komunikazioa ikasi nuen, eta kazetaritzarekin zerikusia zuten lanetan hasi nintzen. Ondoren, ekoizpen etxeetan ere aritu nintzen, animazio munduan, Madrilen. Hor ikusi nuen sormen lana egin nahi nuela, eta ekoizle lana egiten nuela askotan. Orduan, dena utzi eta ilustrazioa ikasi nuen Madrilen; pixkanaka, publizitate lanak egiten hasi nintzen, eta liburuetara hurbiltzen. Ilustrazio lanak egitean, gainera, irakurle interesez ere hurbildu naiz liburuetara, agian aurretik ez nuena. Literatura geroz eta gehiago maite dut, eta uste dut horregatik nahastu ditudala biak, ilustrazioa eta literatura, liburu honetan [*Lohia*-n].

Ilustrazioak eraman zaitu literaturara?
Mutuberria: Bai, zintzoa izanda bai, orain inoiz baino gehiago irakurtzen dut.

Zure kasuan, Belatz?
Belatz: Ia kasualitatez hasi nintzen. Lagun bat ekonomia egunkari batean hasi zen lanean, eta umore tira egitera animatuko ote nintzatekeen galdetu zidan. Hala hasi nintzen, nire izenarekin sinatzen, Mikel Santos. Ondoren, TMEO aldizkarian kolaboratzen hasi nintzen, eta izengoiti bat behar nuen. Nafarroako historia asko gustatzen zait, eta ezagutzen nuen zaldun ospetsu bat, Jaime Belaz Medrano, Amaiur defendatu zuena. Beragatik hasi nintzen Belatz sinatzen. Bola handitzen joan zen, bezeroak ugaritzen hasi ziren, eta hasi nintzen komiki luzeagoetan, testu liburuetan, ipuinetan... Baina kasualitatez hasi nintzen. Ni, izatez, soroslea nintzen igerileku batean. Baina tira, betidanik gustatu zait marraztea, eta banuen trebetasuna.

Bazenuen harremanik literaturarekin?
Belatz: Tira, komikiekin. Literaturarekin irakurle gisara izan dut harremana, besterik ez. Baina uste dut komikiek literatura pila bat dutela. Azken finean, literatura eta pintura dira komikiak, bi arteak biltzen dira hor. Gainera, egin ditudan komiki eta tiratan, ni izan naiz gidoilaria, nik idatzi dut istorioa.
Mutuberria: Eta hitzik jarriko ez bazenu ere, marrazkitan bada narratiba bat. Nik uste dut literatura dela.

Biok egiten duzue lan irudiarekin, baina oso estilo eta formatu ezberdinetan. Halere, bada joera guztia, irudia duen oro, zaku berean sartzeko.
Belatz: Jendearen ezjakintasuna erakusten du horrek. Askotan esan didate: «Ah, margolaria zara».
Mutuberria: Eta zuk nola esaten diozu zure buruari?
Belatz: Irudigilea, ilustratzailea, komikilaria, segun eta. Egokitu izan zait hau egitea [*Gerezi garaia*], komiki edo eleberri grafiko bat, baina egokitu zait testuliburu bat ilustratzea ere. Esaten badidate bizikletan doan neska bat marraztu behar dudala, bada, tira, marrazkilaria naizela esango nuke kasu horretan.

Zu zer zara, Maite?
Mutuberria: Nik beti esaten dut ilustratzailea naizela, baina ilustrazioari kontatzeko ahalmen hori eman nahi diodalako. Ilustrazioan, marrazkiak egiteaz gain, edo apaindurak egiteaz gain, zerbait kontatzen da, zerbait komunikatu. Hori da niri gehien gustatzen zaidana, testua jaso, edo nire testua hartu, eta esatea: «Bale, dauzkadan erreminta guztiekin, nola kontatuko dut hau?».
Belatz: Jendeak dena sartzen du zaku berean, baina gauza desberdinak dira. Ilustratzaileak pentsatu behar du testua edo ipuina nola osatu. Baina lagun batek bere tabernarako marrazki bat eskatzen badit, demagun, tipo bat bandeja batean kafeak eramaten, marrazkilariaren lana da hori. Marrazki bat da, ez du ezer kontatzen, irudi bat da.
Mutuberria: Nik uste dut pentsamendua dagoela atzean. Ez dut esan nahi marrazkilariak ez duenik pentsatzen, baina niri, adibidez, testuliburuetan marrazten dudanean, zer marraztu eta non marraztu esaten didate. Ilustrazio lanetan, aldiz, pentsatu behar izaten dut pertsonaia non kokatu, zer konposizio eman, nola josi irudi bat hurrengoarekin, non kokatuko dudan testua. Irudiak bakarrik irakurri behar dira, eta emozioak iradoki behar dituzte.

Gutxietsi ohi da liburu ilustratuen mundua. Umeentzako edo irakurtzeko ohiturarik ez duenarentzako jo izan dira. Hala bizi duzue?
Belatz: Bai, horrela da. Askotan galdetu didate: «A...baina ordaintzen dizute?»
Mutuberria: Edo: «O, ze polita, umeentzako marrazkiak...».
Belatz: «Marrazten duzu, baina zein da zure benetako lanbidea?»
Mutuberria: Ni pixka bat kritikoa naiz kontu horrekin, haur eta gazte literaturan

Mikel Santos "Belatz"

«Baina uste dut komikiek literatura pila bat dutela. Azken finean, literatura eta pintura dira komikiak, bi arteak biltzen dira hor.»

—eta hau esanda lanik gabe geratuko naiz [barrez]— badirelako kalitaterik ez duten liburu pila bat. Marrazkia umeentzat dela ulertu izan da, eta orduan, marrazkiz josi dituzte umeentzako liburu guztiak. Askotan oso marrazki sinpleak dira, planoak, pentsamendurako lekurik uzten ez dutenak. Kalitaterik gabeko liburu asko dago, eta horrek ere izan du zerikusia.

Zer irabazten du irudiak, testua aldamenean duenean?
Belatz: Nik alderantziz esango nuke: zer irabazten du testuak gure marrazkiekin? [barrez]
Mutuberria: Bai, hori da! Ilustrazioak irakurketa askoz zabalagoa ematen dio testuari.
Belatz: Bai. Horregatik egiten dute, ez? Indar handiagoa har dezaten haien lanek.
Mutuberria: Bai, liburuek beste presentzia eta beste balio bat har dezaten, irakurlearentzat aberastu daitezen. Eta testuak irudiari... Tira, nik testurik gabe ez nuke ilustraziorik egingo askotan.

Eta irudiak galtzen al du zerbait?
Mutuberria: Uste dut testuaren araberakoa dela. Niri gustatzen zaizkit irudiari lekua uzten dioten testuak, irekiak direnak, eta izugarri gustatzen zait testuak irudiak sortzen dituenean, testu bat irakurri eta irudi bat ikusten dudanean. Baina testua oso deskriptiboa eta oso narratiboa bada, uste dut aukera kentzen diola irudiari, eta agian testu horrek ez du irudirik behar. Hor badago borroka bat irudia eta testuaren artean.
Belatz: Irudiarekin, gainera, zerbait gehitu dezakezu. Testuak esaten badu "egun eguzkitsua zen", bada ez duzu justu hori marrazten, zerbait gehiago eransten diozu.

Eta, testuaren ondoan, ilustratzaileak ez al du galtzen autonomiarik? Idazlea da protagonista, haren testua da oinarri, eta horri erantzun behar dio ilustratzaileak. Ez al da beti menpekoa?
Belatz: Bai, baina niri ez zait inporta. Idazle batek idazten badu ipuin bat, edo dena delakoa, bada tira, nire lana da horri zerbait eranstea, eta listo. Obra berea da, baina niri ez zait axola.
Mutuberria: Niri ere ez. Iristen zaidan testuak inspiratzen banau, primeran. Azkenaldian nirekin lan egin duten idazleek ongi ulertu dute zein den nire lana, elkar ulertu dugu, eta hori da gakoa, idazlea eta ilustratzailearen artean elkar ulertzea.

Baina —egin dezadan deabruaren abokatuarena— berdinetik berdinerako harremana al da? Ilustratzaileak beti pentsatu behar du bere lana idazleari gustatuko ote zaion, baina idazleak ez. Bere testua da erdigunean dagoena.

Maite Mutuberria

«Ilustrazioan, marrazkiak egiteaz gain, edo apaindurak egiteaz gain, zerbait kontatzen da, zerbait komunikatu.»

Mutuberria: Nik, hasi nintzenean, arazoak izan nituen idazle batzuekin, ez zutelako ulertzen nik ez nuela beraiek buruan zutena irudikatu behar, baizik eta beren testuek nire buruan sortzen zuten irudia. Baina azkeneko urteetan ez zait halakorik gertatu.
Belatz: Haiek ere, normalean, ezagutzen dute zein den norberaren lana eta estiloa. Niri ere gertatu izan zait ez zaiela gustatzen esatea, edo ez dela espero zutena, baina oso gutxitan, normalean ezagutzen dute nire lana.
Mutuberria: Bai. Hala ere, nik beti idazleari bidali behar izaten diot lana, eta berak onetsi arte ez naiz erabat lasai gelditzen. Hori ere egia da.

Beste baten ideia ilustratzea egokitzen zaizue. Ez da izaten zuen kezka bat, korapilo bat, gogoeta bat. Nola bizi da hori?
Mutuberria: Ni saiatzen naiz iristen zaizkidan istorioek niri zerbait esan diezadaten. Batzuetan enkarguak dira, eta besterik gabe egiten dituzu, baina gehienetan hori bilatzen dut, eta horrek, batzuetan, imajinatzen ez nuen zerbait ilustratzera eramaten nau. Kasu honetan [*Lohia*], barruan neukana irudikatu dut, eta beste zerbait da, barrutik mugituta sentitu naiz, eta hori ere oso ederra da. Baina tira, besteak, enkarguak, beste gauza batzuk ilustratzera eramaten zaitu.
Belatz: Bai, eta gainera, jan egin behar dugu. Nik egin izan ditut jostailuen kutxetarako marrazkiak, eta ez zait hainbeste gustatzen, baina tira. Gustatzen zait marraztea, baina gehien gustatzen zaidana da gauzak asmatzea, pentsatzea, paperera eramatea, hori da gehien betetzen nauena. Baina batzuetan beste gauza batzuk ere egin behar izaten dira. Jan beharra dago.
Mutuberria: Normalean, gehien gustatzen zaizkigun lanak okerren ordainduta daudenak dira.

Diozuenez, ezberdina da norbere testuekin aritzea, eta beste batenak ilustratzea. Zuk, Maite, lehen aldiz argitaratu duzu liburu bat zure testuekin, *Lohia*. Zuk, Belatz, askotan egin izan duzu, komikietan batik bat. Alde handia al dago?
Belatz: Bai, oso diferentea da. Testu bat pasatzen dizutenean ezin izaten duzu ukitu, horrelakoa da, eta listo. Askotan gertatu zait zerbait irakurri eta pentsatzea: «Tira, nik hau beste modu batean egingo nuke». Baina ezin zara idazlearen lanean sartu. Egin eta kitto. Oso ezberdina da guk geuk idazten dugunean.
Mutuberria: Bai, azken finean barruan daukazun interes bat da, eta horrek gehiago mugitzen zaitu. Gainera, nire kasuan behintzat, izugarri gustatu zait liburua bere osotasunean pentsatzea, nola antolatu, zer atal eman, gustatu zait nola hitz egiten dion testuak irudiari. Aberasgarria izan da prozesua, dibertigarria, testua ez baitago itxita, batak ematen dio forma besteari. Hori polita da.

Erraiak atera dituzu *Lohia*-n, Maite. Hori bai dela ilustrazioa espresiobide bilakatzea.
Mutuberria: Nire koadernotan sortu zen liburua, eta beraz, irudiek ez zuten inori ezer kontatzeko helbururik. Nik niretzat egindako marrazkiak ziren, nire buruarekin hitz egiteko gaitasuna zutenak. Espresatzeko modu bat izan zen niretzat, baina sortzeko unean ez zuten inolako komunikazio helbururik. Gero, liburua egiteko orduan, beste zerbait bilakatu ziren. Orduan ikusi nuen bazutela komunikatzeko ahalmena, beste norbaitengana iristeko ahalmena. Narratiba bat eman nien, bata bestearen atzean jarriz, ordena emanez, batak besteari hitz egin ziezaion. Lan honetan marraztearen bi zentzuak ikusi ditut, espresatzearena, niretzat, eta komunikatzearena, besteentzat.

Mikel Santos “Belatz”

«Gustatzen zait marraztea, baina gehien gustatzen zaidana da gauzak asmatzea, pentsatzea, paperera eramatea, hori da gehien betetzen nauena. Baina batzuetan beste gauza batzuk ere egin behar izaten dira. Jan beharra dago.»

Zuretzat, Belatz, orain arteko lanik kuttunena izan omen da *Gerezi garaia*. Lucio Urtubiari buruz egin dira beste lan batzuk, dokumental bat, eta hiru liburu. Zer eransten dio irudiak bere historiari?
Belatz: Asko. Liburu honek historia bat kontatzen du, eta oso garrantzitsuak dira irudiak. Agertzen dira inoiz ikusi gabeko irudiak, bere haurtzarokoak. Luciok irakurri izan ditu hari buruzko liburuak, baina bere burua iruditan ikusi zuenean, txikitan Cascanten, negarrez hasi zen.
Mutuberria: Azkenean, narratiba bat izanda, irakurlea ere sartzen da pertsonaian.
Belatz: Beste liburuetan ere agertzen diren gauza asko kontatzen dira hemen, baina irakurle batek hilabete —demagun— beharko du liburu horiek irakurtzeko. Kasu honetan, irakurlea *engantxatzea* da helburua. Pelikula bat nola ikusten dugu? Hasi eta buka. Hori da nire helburua ere. Ikuspegi zinematografiko hori gehitzen dio Lucioren historiari.

Testu asko du liburuak.
Belatz: Bai, eta ni ez naiz idazlea, baina tira, pasatzen diet argitaletxekoei eta zuzentzaileei. Hainbeste film ikusi eta komiki irakurri ostean, badut lengoaia buruan. Joaten naiz buruan dudana gidoi batean islatzen. Lana da, den-dena idatzi behar delako aurretik. Normalean, liburu bat irakurtzerakoan, irudiak eraikitzen ditugu buruan. Gauza bera da, baina kasu honetan, nik idatzitakoarekin. Konplexua da, baina polita, idazle ere bihurtzen zarelako, eta aldi berean, marraztu beharra duzulako.

Hor eman duzu gako bat: “Idazle bihurtzen zara”. Idazle zaretela esango zenukete?
Belatz: Nik ez nuke esango, joko nautelako. Esango didate oso ongi marrazten dudala, baina idatzi... [barrez]. Oso galdera zaila da. Zu bazara?
Mutuberria: Ez naiz idazlea, baina uste dut gurea ez dela bakarrik marrazten jakitea; liburuak hainbestetan ilustratu ostean badugu testuarekiko nolabaiteko gertutasun bat, eta aldiz, idazle bat marrazten hasten bada...
Belatz: Eta gainera, idazle izateko, zerbait ikasi behar al da? Hau da, nor da idazlea? Ez dakit zenbat liburu argitaratu dituena? Kazetaritza ikasi duena? Nire alabak izan daitezke idazle? Marrazkilariak berdin, e! Nik ez dut ezer ikasi, eta marrazkilari sentitzen naiz. Orduan, gure lanean idazle sentitzen garen? Ez dakit, baina bai behintzat istorio kontalari.
Mutuberria: Bai, hori da. Istorio kontalariak gara. Badaude ilustrazio lan oso onak, egile bakarrarenak, egile bakarrak idatzi eta ilustratzen dituena. Horiek dira borobilenak, batera pentsatuta baitaude. Uste dut, ilustratzaile izateko, beharrezkoa dela kontatze nahi hori izatea. Bestela, margolariak ginateke.

HEGATS

Bazen behin orrialde zuri bat

MIREN AMURIZA PLAZA

Istorioak kontatzeko moduak aldatzen-aldatzen joan dira kultura idatziaren hegemonia amaitu zenez geroztik eta gaur egun Haur eta Gazte Literatura izango da, hainbatean, delako eboluzioaren adibiderik esanguratsuenetakoa: narratiba jolasaren logika bereganatuz joan da eta horrek kontakizunaren eraikuntzan zuzenean esku hartzeko aukera zabaldu die irakurleei. Ume-umetatik denetariko aplikazio, bideo-joko eta animazioekin ohitu den hartzaileari, nekez emango diote atentzioa eskema klasikoen arabera idatzi eta ilustraturiko istorioek; kode horiek berrasmatzean datza, beraz, sortzaile zein bitartekarien egitekoa. Ustekabe politak aurki daitezke, aurkitu ere, liburutegietako apaletan; ikus-entzunezko entretenigarriek ez bezala, zer artifiziotsuetara baino, soiltasunera jotzen dutenak horietako asko: “Bazen behin orrialde zuri bat...”.

Horrelaxe, orri zuri birekin hasten da Marianna Copporen *Istorio bat* albuma (Fernando Reyk euskaratu eta Pamielak Kalandrakarekin argitaratua); sormenaren aldeko manifestu adierazgarria berori. Beren burua liburu-paisaia huts batean galduta topatuko dute zenbait pertsonaiak eta horietako batzuk (helduak) “istorioa noiz iritsiko” zain geratzen diren artean, beste batek (umeak) poltsatik margoak atera eta baztertxo batean zuhaitz bat pintatzeari ekingo dio.

Albumetan zein gaztetxoenentzako bestelako argitalpenetan ohikotzen ari den legez, Copporen lanean ere, ilustrazioek testuaz gaindiko informazio osagarria ematen diote hartzaileari eta istorioaren interpretazio posibleak biderkatzen dituzte. Ordea, irakurketa dinamikoago egitetik harago, liburuok eragin zuzena izan dezakete orri zuriaren gainean bere iruditegia ez eze, identitate propioa zirriborratzen hasi berri den irakurlearengan; horrexegatik da ezinbestekoa, testuek nola irudiek, askotariko sentierak, pentsaerak, jarrerak, gorpuzkerak... ikusaraztea. Esan bezala, narratibak jolasaren logika bereganatu baitu Haur eta Gazte Literaturan eta, era berean, horrexetan jolasten baikara, ezertan jolastekotan, lehen irakurketa-esperientzietan: nor bere burua narratzen.



Argibideen bila

ASUN AGIRIANO

Haurtzaroan irudiak objektu bihurtzen dira, irudimenak objektuekin jolas egin eta eraldatzen ditu, esanahi berriak aurkituz. Hitzek, berriz, kontzeptua adierazten dute. *Bidean* izeneko obra honetan hitzak eta marrazkiak lotzen dira, eta irakurleari bi hizkuntzen xehetasunei erreparatzeko gonbidapena egiten zaio.

Umeek eskolan ariketa bitxia egiteko mandatua jaso dute, *ikara*ren esanahia aurkitzea alegia. Irakurlea Iratirekin batera saiatuko da, orriz orri, hitzaren esanahia argitzeko helburua betetzen; bere galderak gureak ere badira: ikara, espantua; ikara, dardara; edo ikara, zirrara? Iratik entzungo dituen azalpenak ilunak egiten bazaizkio ere, aurrera segituko du erantzun gordearen bila.

Irakasleak ikara margotzeko eskatzen duenean, artearen botere hezitzailean sinesten du. Irati esanahi bakoitzean emantzipatu egiten da, barruko ahotsari kasu egin, eta ahaleginak egiten ditu hitzaren ertz guztiak aurkitu eta berak bakarrik erabakitzeko zer margolan aurkeztuko duen. Aukera anitzen bila dabil Irati, elementu berri bakoitzarekin sorkuntza prozesuan murgiltzen da, lagungarri gertatzen zaizkion baliabideekin egoera berriak birsortzen ditu; irudimenak ematen dion bizi-indarra erabiliz, beste espazio eta beste harreman batzuk sortzeko gai da. Iratik ez du, ezezaguna egiten zaionaren aurrean, amore ematen; *ikara* hitzaren tankerako zenbait adibide oroituz, dakizkienak gogoratuz, eta bilaketa guztietan beharrezkoak diren galderak eginez, mosaikoa osatzeko gai da. Izan ere, Irati artista bat da.

Hitza eta irudia biziki maitatzen duten ahots berriak ditugu Garazi Arrula Ruiz eta Helena Azkarragaurizar Jauregi, biak ere narratzaile paregabeak. Kontakizunak lehenengo orrialdetik irakurlearen arreta bahituko du, bi hizkuntzek gero eta tenkatuago dagoen lokarri bati eusten diote eta, liburuaren amaieran, narrazioaren oihartzuna behin eta berriz itzuliko da irakurketa berri bat eskatuz.

Irudiek makina bat xehetasun dituzte, anabasa kaotikoan agian, irakurlearen irudimena astintzeko. Atentzioz behatzeko gonbidapena egiten dute, koloreak eta formak, marrak eta figurak, leku desberdinak, pertsonaia atseginak, denak Iratiri lagundu nahian. Irakurleak ere bidea egingo du, asmo kolektiboan partaide sentituz, ezezaguna eta misteriotsua den hitzari bizia eman arte. Hori da, nik dakidala, literatura, edo artea. Ezagutzen duguna sortu edota birsortu.

Irakurlea, letrazale eta irudijale, hizkuntzan eta estetikan adituak diren bi egileen esfortzutik elikatzen da, kontakizun eder honek sortzen duen soinu goxoan kulunkatuz.

Album ilustratu honetan hitza eta irudia bilaketa baten giltza dira; nire ustez, hauxe da haurrak munduari begiratzeko ezinbesteko portaera: begirada zabaldu, galderak egin, ideia ulertu eta kontzeptua sortu. Mundua zabala eta handia da hor kanpoan, baldin eta literaturak edo arteak ematen dituen esperimentatzeko aukerak jorratzen baditugu.



Hitzen itsasoa zeharkatuz

JUAN KRUZ IGERABIDE

Besteak gurera etortzen dira, batik bat Hegoaldetik, zer lan, zer jan, zer jantzi. Esku-hutsik datoz. Ez, alabaina, mingain-hutsik. Bakoitzak bere istorioa dakar, bakoitzak bere oroitzapenak, bakoitzak bere lurraren ahotsa.

Afrikako lurretako ahotsak istorioetan biltzen aspaldi hasi zen Patxi Zubizarreta. Etorkinen istorioak dira, baina istorio horietako pertsonaiek milaka urtetan landutako kontakizun, sentipen, mundu-ikuskerak dakarzkigute. *Eztia eta ozpina* ahaztezinaren ondoren, ugari izan dira Afrikarekin loturiko istorioak, hala nerabeentzat, nola txikiagoentzat; besteak beste, *Atlas sentimentala* eta *Usoa*-ren bilduma zoragarria.

Istorioak zoragarri josten ditu Patxi Zubizarretak, eta beti agertzen da osagairen bat narrazioari erritmoa emanez. Horrez gainera, ttanttaka bezala, kontakizun osoan zehar informazio kultural oinarrizko bezain bitxiak tartekatu ohi ditu. Idazlearen aurpegia irudikatzen du irakurleak, bilatzen ari den dokumentazioarekin eta testu zatiekin txundituta, txundidura hori irakurleari nola transmitituko dion asmatuz.

Aurten *Korri, Kuru, korri!* istorioarekin Ala Delta saria irabazi du Patxik. Berriro ere Afrikatik Europarako bidea marraztu digu, kontatuz nola XIX. mendean jirafa bat eta haren zaintzaile mutikoa Afrikatik Europara ekarri zituzten, naturalisten erakusgarri, basamortutik zibilizaziorako bidaia arriskutsuan. Narrazioari erritmoa emanez, poema bat, esaldi bat ("Burua gora!") eta jirafaren izen desberdinak geografiaren araberakoak. Eta irudien erritmoa: basamortua, Marokokoak izan daitezkeen giroak, itsasoa, Europako bide eta hiriak, gaur egungo ospitale bat… Horietatik guztietatik marrazkilariak jirafa hartu du irudi nagusitzat, istorioa laburbilduz bezala: XIX. mendeko jirafa eta gaur egungo haur baten jirafa-mozorroa; irudien gainerako elementuak bigarren plano batean daude. Gaur egungo haur bat, bai. Izan ere, istorioa enkoadratuz, benetako gertaera batean oinarrituriko gaurko kontakizun bat dator: patera batean Europara datorren… korri, Kuru, korri!

Nork du giltza?

LORE AGIRREZABAL

Zenbaitetan, ez beti, irudiak eta hitzak paperaren gainean bat egiten dutenean magia gertatzen da, ate ikusezin bat zabaltzen da eta aurrean duen mundu harrigarriak zurrupatu egiten du irakurlea. Istorioetan murgiltzeko giltza berezi baten modura funtzionatzen du hitzen eta irudien arteko batasunak. Aurten liburu honekin zabaldu zait niri ate itsu hori: *Txori baten portreta egiteko* (Jacques Prevert, Mordicai Gerstein; Pamiela-Kalandraka, 2018).

Hegazti baten irudia marrazteko esku-liburu bat dirudi, baina, funtsean, bertan agertzen diren margolariak, txoriak eta kaiolak artistaren sortze-prozesuaren metafora eder bat osatzen dute, iragankortasunari buruzko gogoeta eragiten dute. Nola sortzen du artistak? Zertarako? Eta ondoren, zer geratzen da? Arteari eta sormenari buruzko alegia zoragarria da, sortzeko gaitasuna eta prozesua bera nabarmentzen dituena, artelana bera baino gehiago. *Pour faire le portrait d'un oiseau* poema 1943an sortu zuen Jacques Prévert (Neuilly-sur-Seine, 1900–Paris, 1977) idazleak. Elsa Henriquez margolariari eskaini zion artistaren lanaren esentzia irudikatzeko asmoarekin; benetan ezinbestekoa sortzea bera dela iradokitzen du, bidean amore ez ematea, pazientzia izatea, ideiaren zain egoten jakitea, iristean ondo heltzea, behar bezala garatzea eta amaitzean...

Amaitzean, zer? Zer egiten du sortzaileak lan bat bukatzean?, Bada, sortzen jarraitu, jakina.

Horixe da, hain zuzen, Pamielak argitaratu duen album honetan Mordicai Gerstein (Los Angeles, 1935) ilustratzaile eta artista handiak iradoki nahi izan duena. Jose Angel Irigarayk euskarara ekarritako hitzei lotuta datoz bere irudiak, baina Gersteinek, sortzaile senari jarraituz, zenbait lizentzia hartu ditu Preverten poemaren gainean; besteak beste, artearen izaera iragankorra nabarmendu nahi izan du.

Bi artista handiren lanak ezin hobeto josten dira liburu honetan, eta argi ikus daiteke istorioa benetan tentuz osatzen eta harilkatzen dakienak baino ez digula emango gure irudimenaren atea zabaltzeko giltza.

GIDOIAK MAILU IZAN BEHAR DUELAKOAN

Testua: Yurre Ugarte / Argazkiak: Sara Berasaluce

Garazi Arrularen proposamenari jarraituz, Maider Oleaga, Ximun Fuchs eta hirurok bildu ginen eguzkiak begietan jotzen zigun uztaileko egun batean, Igeldon. Eta ikus-entzunezkoen alorrean idazten aritzen garen hiruron arteko solasaldian, ezustean, Gabriel Aresti parafraseatzen bukatu genuen.

ZER IDAZTEN DUGUN

***Oleaga*:** Pelikula bat egiteko idazketa prozesutik hasten naiz beti. Azkenaldian dokumentalak egin ditut eta hor prozesua desberdina da. Dokumentala idazten baita bukaeran, muntaketan, baina nik behintzat oinarri bat behar dut dokumentala filmatu baino lehen, gero aldatzen dena, baina hasiera batean ideiak ipintzeko, ulertzeko zer nahi dudan kontatu, behar dut idazketa prozesu hori. Adibidez, Elbira Zipitriari buruzko dokumentalerako, gidoiaren bertsio asko idatzi nituen. Off-eko ahots bat dago pelikula guztia gidatzen duena eta bertsio asko izan zituen ahots horrek. Gainera, muntaketan berridatzi nuen asko, irudiak eta soinua lotu behar dituzulako. Beraz, hasierako gidoi hori funtsezkoa da nire kasuan, gero berridazketa egin arren. Bestalde, gustatzen zait asmatzea, ikustea edo sentitzea pelikula bakoitzak zer prozesu behar duen: batzuetan behar du hasieratik idaztea, eta beste batzuetan, ez. Baina idazketa prozesua beti dago hor. Literaturarekin lotzea gustatzen zaidan zerbait ere badago, zeren nire iturriak pelikula bat egiteko, askotan, literaturan aurkitzen ditut. Esango nuke, inspiratzeko, agian pelikulak ikusi baino gehiago irakurri egiten dudala. Gero, inspiratu didana idazten dut eta segun eta nolakoa den proiektua, testu hori izan daiteke teknikoagoa edo poetikoagoa edo literarioagoa. Orain arte fikzioaren esparruan film laburrak egin ditut, eta luzeak, berriz, dokumentalak izan dira. Baina une honetan ari naiz idazten fikziozko film luze baten gidoia.

***Fuchs*:** Ni berez ez naiz idazle kontsideratzen, idatzi idatzi dut baina antzerkitik nator, aktorea naiz eta hori da nire ogibidea. Lanak eraman nau zuzendaritza egitera eta baita idaztera ere. Ez dut idazteko molde bat eta gutxitan idazten dut bakarrik; askotan idatzi dut beste idazle batzuekin, bai euskaraz bai frantsesez, eta aktoreekin ere asko idatzi dut. Orain gehienbat euskaraz. Prozesua beti berdintsua da: gai baten inguruan hasten naiz, garai baten lekuko izatea baita nire pretentsioa. Nire obretan aipatu ditudan gaiak ez dira jendeak ostatuan normalean aipatzen dituenak, eta nik sentitzen dut hori jorratzea inportantea dela, zeren euskaraz idazterakoan gakoa gure historia kontatzea da, gure historia ez baita existitzen, orduan nola kontatzen dugu gure historia? Hasten naiz aktoreekin lanean oso gutti idatzita dagoenean, uzteko leku bat inkontzienteari, esaten ez denari. Eta gero ni jartzen naiz eta guztia idazten dut. Antzerkian, azkenaldian, Igor Elortza eta Unai Iturriagarekin lan egin dut, eta guztia idatzi ondoren orrazketa bat egiten dugu, zeren euskaraz hitzak badu bere garrantzia, azken finean gure kultura ahozkotasunetik transmititu da, gure ondoezak, erronkak, ametsak, beti hortik transmititu dira eta bertsolaritza horren lekuko da baina ez bakarrik. Nire lanean idazketa ahozkotasun horretatik doa. Nola hitz egiten den gaur egun maitasunaz, ondoezez, erronka sozialez eta abar, horrek interesatzen nau. Biziki enpirikoa da: saiatu, berriz egin, idatzi eta berridatzi, artisau lan bat da egiten dudan moldea, ez da batere finkoa, ez dago sorginkeria handirik.

***Ugarte*:** Istorioak, kontuak kontatu izan ditut beti, entzuten ere adi-adi egoten naizen moduan. Idaztea eta irakurtzea, entzutea, ikustea, guztia oso lotuta dago niretzat. Hasiera-hasieran literatura izan zen. Nerabe nintzenean etxean idazten nuen, Tolosan egiten zen literatura lehiaketan ipuin batekin sari bat jaso nuen, horrela hasi nintzen. Askatasunaren eremua zen literatura niretzat, eta da. Ez nago inoren mende, edo, hobeto esanda, nago soilik nire irudimen literarioaren mende eta ez ekoizle, aurrekontu edo beste lankide batzuen iritzien mende, testua bera delako helburu eta ardatz, idazketaren abentura da. Bestalde, Londresen bizi nintzenean film laburrak idatzi eta zuzendu nituen, eta lankidetzaren garrantziaz ohartu. Itzuli nintzenean argi neukan istorioak kontatzetik bizi nahi nuela. Telesailak asmatu eta idazten (eta saltzen) hasi nintzen. Gidoilari profesional bihurtuta, fikziozko telesailetarako gidoi mordoa idatzi dut bai gaztelaniaz

HEGATS

bai euskaraz, han eta hemen. Film luzeen gidoiak ere idatzi ditut; azken bi urteetan, marrazki bizidunetako bi film luze. Antzerki lanak ere idatzi ditut. Istorio edo gai batek normalean "bere forma" dakar sortze momentutik; hasieratik badakit ikus-entzunezko obra izan daitekeen ala ez, edo ipuin bat den zuzenean. Aldi berean, askotan istorio batek forma ezberdinak har ditzake, ipuin bat komiki gidoi bilakatu daiteke. Edo gidoi bat, ipuin edo nobela. Beraz, niretzat gidoi bat istorio batek edo ideia batek hartzen duen forma literarioa besterik ez da.

***Oleaga*:** Gidoia, niretzat, filmazioan eta muntaketan berridatzia izango den oinarri literarioa da, abiatzeko portua. Dokumentaletan, prozesuan zehar egin beharreko ariketa, errealitatean ikusten duzunari egitura bat emateko, filma nola izango den irudikatzen hasteko. Lankidetzako tresna bat ere bada, noski.

***Fuchs*:** Niretzat gidoia da ekintzaren orrazkera bat, mamiaren eskeleto bat, sekula ikusten ez den arima bat. Istorio baten aztarna, egile guztien mapa (argitik mozorrora, jokotik zuzendariarengana, iruditik soinura, kokapenetik muntaketara), ur handitan eramaten den iparrorratza.

***Ugarte*:** Elkarlana. Gidoigintzak egoa pikutara bidaltzeko aukera asko ematen dizkizu. Gidoiak idaztetik bizitzea, ordea, hemendik alde egin gabe, ez da batere samurra.

SORMENA ETA INDUSTRIA

***Oleaga*:** Bai, hemen, ikaragarrizko esfortzu indibiduala egin behar da gidoilari lana edukitzeko. Nahi duzu zerbait kontatu, lankide batzuekin bildu eta aurrera eramaten duzu, baina ez dago lan egiteko bermerik. Normalean, nik uste, gehienok idazten dugunean ez dugu kobratzen, gidoilari profesional oso gutxi dago. Orduan, gidoilari lanik ez badago, nola trebatzen zara idazten? Hor lortu beharko genituzke baldintza minimo batzuk gidoi asko idatzi ahal izateko, kobratuta, nahiz eta gero guztiak pelikula bihurtu ez.

***Ugarte*:** Bai. Eta beste kontu interesgarri bat dago, ze literatura idazten duenak, obra idatzi du eta gero argitaratuko du ala ez, baina obra idatzita dago jada, osorik. Aldiz, gidoia idatz dezakezu eta ikus-entzunezko obra egin gabe gera daiteke. Gidoilariok beti dauzkagu produzitu ez diren gidoiak, nik behintzat, ez dakit zenbat porrot.

***Oleaga*:** Bai, nik ere bai.

***Fuchs*:** Baita nik ere.

***Oleaga*:** Hori betiko kontua da, eta kobratu barik lan egitea ere, arrunta da. Ez dut pentsatzen Euskal Herrian industria audiobisual bat dagoenik. Egun, momentu ona bizitzen ari dira batzuk, mugarri batzuk egon direlako, *Handia* adibidez, baina

industriarik ez dago, are gutxiago euskaraz egindako filmena. Bermatu beharko litzateke gidoilari izanda bizitzeko aukera, egun existitzen ez dena.

***Fuchs*:** Hor badira bizpahiru gauza. Bat da gidoilariena. Euskaraz, espainolez edo frantsesez idaztea ez da gauza bera. Erronkak ezberdinak dira, nahiz eta gero Espainia pobrea den ez bakarrik zinean, baita antzerkian eta dantzan ere. 40 urteko frankismoa sarraski kulturala izan zen, antolatua, pentsatua. Faktura handia pasa du horrek. Gero erronkak hartu behar ditugu; ni egon naiz 25 urtez antzerki talde bat eramaten Frantzian, Alemanian, Ingalaterran, eta orain erabaki dugu soilik euskaraz egitea. Egin dugu *Non* film luzea frantsesez. Hor bada lan bat euskal zinemagintzaren kate osoa euskaraz egiten dela bermatzeko, eta ez dut uste gainetik etorriko denik, hau da, Jaurlaritza, Euskal Elkargoa, Frantzia eta Espainiako gobernuetatik. Uste dut gure artean beharko garela antolatu: teknikariak, gidoilariak, aktoreak, zuzendariak, guztiak elkartuta. Truffautek, Cocteauk, Cassavettesek eta beste askok horrela egin zuten.

***Ugarte*:** Daniarrek sortu zuten *Dogma*...

***Fuchs*:** Bai, identitate artistiko bat sortu zuten, eta, horren inguruan, ekonomia bat. Aterabidea niretzat horixe da. Ez da izango gidoilariak alde batean, aktoreak beste batean, errealizadoreak bestean. Ze arloak bereziturik industriaren esku uzten da eta horrela film batzuk egin arren, ateratzen dira noizean behin. Eta zinemagintzan ez dute, adibidez, daniarren *Dogma*ren nortasuna lortzen.

***Oleaga*:** Hemen ateratzen direnak salbuespena dira.

***Fuchs*:** Gainera, ez dira ikusten. Aldiz, *Dogma* munduan zehar ikusi da, sortu du identitate artistiko bat eta egin du lokomotor lana. Hor dago berriro zer kontatzen dugun eta nola. Gure modua izango da biziki xumea, baina hala ere posible dugu zerbait egin eta asmatu. Webguneetatik telebistara eta zinemetara. Hori guztia jorratzeko *gang* batzuk sortu behar ditugu: aktoreak, gidoilariak, teknikariak, zuzendariak. Zinema eta antzerkia nahastu. Hori eginez interesa piztuko da.

***Oleaga*:** Nire ustez, batez ere garrantzitsua da banaketaren partea. Zeren askotan egiten da sekulako esfortzu kolektibo bat baina gero ez du inork lan hori ikusten. Ikuslearengana heldu behar da, hor ere fokua ipini.

***Ugarte*:** Gainera, teknologia digitalak prozesu guztia erraztu du. Iritsi gara Cocteauk zioen egoerara: "zinema librea izango da poema bat bezain erraz egiten denean." Edonork dauka kamera bat patrikan eta horrek jada beste egoera batean gauzka, sormenaren aldetik behintzat aukerak mugagabeak dira, eta ikuspuntu ezberdinetatik egindako istorioak idazten dira, eta ez soilik klase ertain (edo altuko) gizon zuriarena islatzen dutenak.

***Oleaga*:** Bai, geroz eta film txiki eta ezberdin gehiago egiten dira, baita jatorrizko hizkuntza gutxituetan egiten direnak ere. Aurkitu behar da erakusteko modua.

TELESAILAK

***Ugarte*:** Gaur egungo gidoigintzaren urrezko aroa, mendebaldean, telesailen bidez etorri da. Gai ezberdinak jorratzen dituzten telesailak, errealitate ezberdinak islatzen; emakume zuzendariak eta gidoilariak gero eta gehiago daude. Gainera, telesailetako gidoiek maila literario altua dute. Nik literaturan gutxi jorratu diren gai batzuen inguruan egindako telesailak, edo ikuspuntu ezohikoetatik eginikoak, pozarren ikusi ditut... ordenagailuan. Serializazioak engantxatu egiten du, istorio bat irentsi egin nahi duzu atalez atal guztiak bukatu arte. Hala ere, egia da telesail asko errealizazio aldetik oso lauak direla eta jarraitu ahal dituzula irrati nobela bat balira bezala, entzunda soilik, irudia ahaztuta.

***Oleaga*:** Ez daukat telebistarik eta oso telesail gutxi ikusi ditut. *True detective* ikusi nuen. Teknikoki eta zinematografikoki oso ondo daude baina niri bestelako zinemagintza interesatzen zait; iruditzen zait kontatzen diren istorioak intrigan zentratuta daudela, klasikoak direla, eta nik zinema arte bat bezala ulertzen dut, zerbait gehiago da. Baina egia da gaur egun jendeak telesailak ikusten dituela eta horiek ikustera ohitzen ari dela.

***Fuchs*:** Telebistak askatzen ahalko luke zinema gauza batzuez. Tresna bezala interesgarria da. ETBk egiten dituen produktuak, aldiz... Beste eredu bat behar da eta oraingo funtsezko gaiak kontatu. Uste dut hartzen direla kanpoan, Espainian, Ingalaterran funtzionatu duten ereduak eta saiatzen direla horiek kopiatzen, antzerkian ere horrela egiten da. Baina posible litzateke telesailak egitea beste modu batean. Iparraldeko Europara gehiago begiratuz, adibidez.

***Oleaga*:** Agian falta da ETBk, folklorismoan erori gabe, bertako identitate artistiko bat bilatu nahi izatea. *Soap opera* estandar bat ez egitea baizik eta hemendik bertatik ateratako sormenezko telesailak.

***Ugarte*:** ETBn, hasieran, sortzaile ezberdinek egindako telesailak ekoiztu ziren ia urtero, *Goenkale*ren urrezko arrautza heldu zen arte; hor egunero atal bat produzitzeko makinaria jarri zen martxan, horrek idazketa mailan esan nahi duen guztiarekin, onerako eta txarrerako. Nire ustez, sormen aldetik hutsune handia sortu zen. Egun, egile batentzat, telesailen formatuan istorio bat kontatzea gaurko gaiak, arazoak, islatzeko, aukera ezin hobea da, eta, aldi berean, sekulako erronka bai idazketa aldetik bai errealizazio aldetik.

***Fuchs*:** Bai, eta kontsentsu epel bat lortzen duten telesailak egitea ezin da erronka izan.

***Oleaga*:** Telesail batek izan beharko luke... mailu bat.

Ugarte eta Fuchs: Horixe.

JOAN MARI TORREALDAI

“ARIKETA BAT EGIN BEHAR DUGU, EZER BAINO LEHEN, HERRI BAT GARELA GEURE BURUARI SINESTARAZTEKO”

Testua: Garazi Arrula Ruiz / Argazkiak: Sara Berasaluce

Euskaltzalea, soziologoa eta langilea. Aldapan gora ibilita ere, erabakitasun handiz ari da bidean, egiten duen horretan sinesteak ematen duen indarraz. Etxean hartu gaitu, goxo, eta mintzakide hurbila eta zintzoa dela argi geratu zaigu.



Hasteko, zer moduz zaude?
Indartzen. Ospitalean hartutako infekzio batek etxean eta geldi egonarazi nau, eta hilabete batzuetan oso pattal egon naiz. Momentu honetan oso ondo nago. Hamabost egun inguru daramatzat hobeto, eta antibiotikoak kentzen dizkidatenean ikusiko dut nola erreakzionatzen duen nire gorputzak. Lanerako gogoa badut. *Asedio al euskera* liburuko azkeneko oharrak ospitalean etzanda nengoela bidali nituen argitaletxera. Ez dakigu besterik egiten eta!

Urrezko Luma jaso zenuen aurten, eta omenaldia egin zizuten "Zentsura eta Literatura" udako ikastaroan. Nola hartzen dituzu halakoak?
Eta hirugarren bat ere bai, bitxia. Mendizale eta euskaltzale bezala, Leitzan omenaldi bat egin zidaten, aurresku eta guzti, goizeko zortziretan, mendi-karrera atera aurretik; bi zaletasunak lotzen nituelako, mendia eta euskara. Hunkigarria izan zen. Mendiak garrantzia handia izan du nire bizitzan. Urrezko Luma zergatik jaso nuen bistan da, lumak ordezkatzen baitu nire idazle ibilbidea. Duela urte batzuk, Nazioarteko Pen Klubak beste luma bat eman zidan, askatasunaren luma, *Egunkaria*renaren ondoren. Eta EHUko "Zentsura eta literatura" ikastaroko antolatzaileek ezusteko galanta eman zidaten, hunkigarria hori ere: neure testuak irakurriz egin zuten.
Omenaldiak ondo hartzen ditut, nire taldearen edo belaunaldiaren ordezkari sentitzen naizelako; pertsona transzenditu egiten du, eta saiatzen naiz mezu bat helarazten. Adinari dagozkio. Oraingo hiru sariok bateratsu suertatu dira, eta emazteak esan zidan: «seinale txarra, zahartu zaren seinale!». Ez da gezurra.

***Asedio al euskera* liburuaren aurkezpenean, esan zenuen kontzientziazio ariketa bat zela, «defentsarako ezkutu modura». Nola erabil daiteke defentsarako ezkututzat euskarari buruz esan diren astakeriak?**
Astakeriok ezagutu egin behar dira. Ez dira salbuespen. Denak bildu eta corpus batean jartzen dituzunean ohartzen zara ez direla kasu bakartuak; supremazismo linguistikoaren baitan esplikatzen dira esandakoak eta egindakoak. Hortaz jabetzean, bestelako dimentsio bat hartzen du esaldi bakoitzak. Azterketa historikoa egin, eta ikusten da Francoren heriotza eta gero hizkuntza politikaren legitimitatean jo dutela, hori ukatuz. Hizkuntzaren etorkizunaren muinean jo dute. Eta hori hala dela jakitea oso inportantea da.
Eusko Jaurlaritzak 1982an hizkuntzaren legea indarrean jarri zuenean, eta berdin elebiko komunitate autonomoek, printzipio nagusi batzuen gain legitimatu zuen normalizazio linguistikoa: euskara hizkuntza propioa da, identitate tresna eta integrazio tresna. Hiru zutabe horien kontra jo dute askok, hizkuntza politikaren legitimitatea ukatzen saiatuz.

Kontra egite horretan, emozioak interpelatzen dituzte?
Biek funtzionatzen dute, emozioak eta arrazoiak. Batetik, prentsan presente egon dira, ez dira bolizko dorretxean dauden intelektualak; politikatik oso hurbil egon dira. Gainera, horien bozgorailu hoberenak politikariak izan dira askotan. Politikariak eta hedabideak. Horien ideiak asko zabaldu dira. Bestetik, abantaila handia dute, Iraultza frantsesaz geroztik zabalduta dagoen ideologia supremazista, topikoz beterikoa, baliatu baitute; betiere hizkuntza gutxituen kontra.

Hogei urte dira *El libro negro del euskera* kaleratu zenuela. Egun, hizkuntzaren normalizaziorako politikek gaztelania baztertzen omen dute.
Badirudi hizkuntza nagusietan ez dela sekula egon hizkuntza politikarik, gaztelaniaren edo frantsesaren zabalkundea naturala eta berezkoa izan dela. Euskararen aldeko neurriak hartzen direnean, berriz, inposizioa omen da. Liburu honek justu

kontrakoa erakusten du. Supremazistek, baina, euskararen aldeko edozein neurri inposiziotzat hartzen dute, hain zuzen ere aginteari aurretiaz ukatu egin diotelako aldeko neurri hori hartzeko eskubidea eta legitimitatea. Nafarroan ahalegin berezia egin dute. Ondotxo dakite hizkuntza politika ukatzeak euskararen heriotza esan nahi duela.

Hitz konbinazio "toxikoak" bildu dituzu (zenbatetan ageri den euskara abertzaletasun/terrorismo/ETA lagun dituela); bataila politikoa semantikan datzala pentsatzera garamatzate adibideok.
Bai, edozein hizkuntza politikak berezkoa omen duen inposizioari elkarketa toxikoak eransten badizkiozu, diozun bezala, bi ondorio atera daitezke: lehenik, euskararen mundua mundu iluna, zikina, liskartsua da, erakarmen gabea; bigarren ondorioa are arriskutsuagoa da: euskara ez da euskal herritar ororen ondarea, abertzaleena baizik. Ondorioz, nor hurbilduko da euskararen unibertso beltz horretara? Eta zergatik ikasi behar da euskara abertzaleena soilik bada?

Halako egoeran, bertan goxo jarrera bat salatzen duzu.
Gaur egun, borroka, konpromisoa, militantismoa, zaharkiturik omen daude. "Gatazka" hitza hizkuntzari ezin omen zaio lotu, hizkuntza minorizatuaz ezin omen da hitz egin, ez eta lurraldetasunaz edo hizkuntza nazionalaz ere. Nonbait, diskriminazio positiboa ez da gehiago aipatzen. Norberaren eskubideei lotzen zaie hizkuntzaren erabilera; hizkuntza, aukera pertsonala, eta kitto. Aukera pertsonala besterik ez bada, ezin da neurririk hartu edo hori sustatzeko politikarik planteatu. Irudipena dut, neurri batean, ideia horiek geuk ere irentsi ditugula. Ohartu gabe, zirimiriak bezala, supremazisten argudioek geu ere busti gaituzte.

Susmo bat: subordinazioaz hitz egiteak aspertu egiten du, baina subordinazio horretan geratu nahiko lukete batzuek.
Neke bat badago gure herrian, aitortu behar da, borroka armatuak eta errepresioak ekarritako guztiarekin. Orain gizartea beste fase batean bide dago; penduluaren legea da. Hau ez da unerik onena poesiarako. Bestalde, globalizazioak harrapatu gaitu, eta horren aurrean posizio bat hartu behar dugu. Euskararen alde jarrera proaktiboa hartzen ez badugu, gureak egin du. Itsasoan ur tanta bat gehiago bihurtuko gara. Ariketa bat egin behar dugu, ezer baino lehen, herri bat garela geure buruari sinestarazteko.

Frantziako Iraultza aipatu duzu lehen. Egoitz Urrutikoetxeak *La politique Linguistique de la Révolution française et la langue basque* (Elkar, 2018) saiakeran dio garai hartan sartu zela estreinakoz euskara eremu politiko-administratiboan, itzulpenaren bitartez gehienbat. Nolabait, lekuko nortasun eta hizkuntzak ideia aurrerakoien eramaile bazirela eta proiektu berritzailea tokiko hizkuntzekin bateragarria zela.
Itzulpenen aldeko ekimenak egon ziren Euskal Herrian ere, iraultzaren hastapenetan, baina oso gutxi iraun zuen. 1794an, *La terreur* etorri zenean, hori bukatu egin zen, arrazoi ekonomiko, politiko eta ideologikoengatik. Ideologikoki, aurrerantzean hizkuntza frantsesa izango zen frantses jenioaren hizkuntza; iraultzaren, askatasunaren hizkuntza. Herri baten izaerarekin lotu zen hizkuntza. Gainontzekoak *patois* bihurtu ziren. Hori kriterio politikoa da, ez linguistikoa. Ideia horiek nagusitu ziren eta geroztik frantses izatea frantsesa erabiltzearekin berdintzen da.
Bitxia da nola gertatu zen hori. Iraultzaren garaian, Grégoirek egindako inkestaren arabera, hizkuntza frantsesa minoritarioa zen, %11 edo %15 hitz egiten zen frantsesez; eta territorialki ere

«Euskararen alde jarrera proaktiboa hartzen ez badugu, gureak egin du.»



ez zegoen zabalduta: 83 departamentuetatik 15etan egiten zen. Errealitate hori analisietatik kanpo uzten da.
Pena dut Egoitzen lana *Asedio al euskera* kaleratu eta gero ezagutu izana.

Gaur egun, Konstituzioan ez da onartzen frantsesa ez den hizkuntzarik.
Hizkuntza frantsesa da Errepublikaren hizkuntza, hizkuntza bakarra. Frantziako lurraldean mintzatzen diren gainerako hizkuntzek ez dute errekonozimendu publiko juridikorik. Historian eta oraintxe arte jarrera jakobinoa mantentzen du Estatuak. Jarrera itxi hori, gainera, eredugarria da supremazista linguistiko espainiarrentzat.

Mende erdia egin du euskara batuak, eta mendea Euskaltzaindiak. Jakinek ateratako monografikoan zenioen *peruabarkismoan* gabiltzala, analfabetismoari gorazarre egiten, etxekalte. Jarrera hori ere supremazismo linguistikoaren ondorio ote da?
Ez dut uste zuzenki hala denik; hala ere, supremazismoari primeran datorkio. Oso ondo uztartzen da hizkuntzari eman nahi zaion balio identitario hutsarekin. Batua gutxiesten denean, despiste handi batean gaudela iruditzen zait; batua hizkuntza estandarra da, egiten dugun gaztelania bezalaxe. Ez da hutsala, gainera, euskara lokalaren gorazarreak ("sukalkia", Amurizak dioenez) euskaldun berriekiko sortzen duen distantzia.

Euskaltzain osoa zara zu. Zer lehentasun ditu, zure ustez, Euskaltzaindiak, edo zer funtzio bete beharko lituzke?
Orain, 75 urte betetzearekin, euskaltzain emeritu naiz. Sortu zenetik, Euskaltzaindiak Iker eta Jagon adarrak ditu, eta iruditzen zait Jagon, gizarte arazoez arduratzen dena, pixka bat alde batera utzi zela erakunde autonomikoen etorrerarekin. Euskalgintzarekin batera joan behar du Euskaltzaindiak, euskara batuaren prozesuan gertatu zen bezala.

Beste egiteko nagusi bat prentsa izan duzu. Hala zenioen 1976an: «Euskal prentsa euskaraz dela aitortu, onartu eta laguntzen ez duen erdal prentsak diglosia finkarazten du.» Gaur egun izendatzaileak ("euskal") garrantzia du?
Kontundentzia hori gaztetako bekatua da. Dena den, gerora, EITBri buruzko lana egin nuenean, ideia horixe landu nuen. Izan ere, erdarazko ETBk, Labaien sustatzaile nagusiari sinestekotan, euskara eta bere unibertsoa ezagutzera eman eta indartu behar zuen.
"Euskal" izen laguntzailea gehiegi erabiltzen dugu: euskal liburugintza, euskal kultura, euskal idazleak, euskal prentsa, etab. Horrek ez ote du gure dependentzia salatzen? Bestela esan, ez ote dugu funtzionatzen beste unibertso handiago baten zati bagina bezala, gu geu unibertso propio eta autonomoa izan partez? Alegia, idazleak, kultura, liburugintza, erdarazkoa da, neutroa, eta gu, berriz, "euskal".

Euskal Herriko erdarazko prentsek ez ote dute funtzio bat betetzen herritarrak euskarara eta kulturara hurbiltzeko eta gure munduaren berri izateko?
Ez. Absolutuki ez. Erabat konforme nago Estitxu Garairen "Gu espainolak gara, Euskal Herrikoak" artikuluarekin (*Argia*, 2018-IV-28). Hedabideen erreferentzia mundua guztiz espainola da. Hedabide publikoetan ere bai. ETB2 edo Radio Euskadi



> «Ohartu gabe, zirimiriak bezala, supremazisten argudioek geu ere busti gaituzte.»

entzuten dudanean, hainbat programatan, "egun on" eta "agur" esan ohi dutelako dakit hemengoak direla. Espainiako hedabide jakin batzuen kopia ematen dute batzuetan. Aldi berean, "euskal kultura" deitzen den hori ez da ganoraz tratatzen. Nola ba, euskara ezagutzen ez duenik bai baitago barruan.

***Lapur banden etika ala politika*n, Joseba Sarrionandiak dio nazioa egin gabe dugula: «Nazioa ez da euskararekin nahastu behar, komunikazio espazioak indartu behar ditugu gure hiru hizkuntzetan» (81.or). Nola egiten da hori hiru hizkuntzetako bat ere ez bada komunitate osoarengana iristen?**
Ez dakit nola interpretatu hori, ez dudalako irakurri. Hala ere, irudipena dut hiru komunitateak ez garela elkarri bizkar emanda bizi. Euskaldunok subsumituak bizi gara, erdal munduaren barruan itoak eta galduak, gureari eutsi ezinik. Hizkuntza batek baliabide eta indar aski ez duenean, erdaren aparatu handiei konfrontatuta bizi ahal izatea oso zaila da, ezpada hiztun komunitatearen kontzientzia indartzen. Beraz, baliabideak behar ditugu. Kasurako, *Berria* bat ez da nahikoa komunikazio proiektu gisa euskal hiztun komunitatearen premia guztiei erantzuteko.

Urtero liburugintzari buruzko azterketa xehea egiten duzu. Besteak beste, kezka hau errepikatu ohi da: hezkuntza edo irakaskuntzako liburu produkzio handiena ez dago euskal editorialen esku, eta, beraz, hezkuntza curriculumean, erabakigunea gure geografia linguistikotik kanpo dago. Beste norbaiten kezka ere bada?
Euskal editoreek honi buruz behin baino gehiagotan gogoetatu dute. Orain dela bospasei urte, Eusko Jaurlaritzan bilera monografiko bat izan omen zen gai honi zer irtenbide eman ikusteko. Kontua da, nik dakidala, ez dela politikoki aurrerapenik egin. *De facto* berdin jarraitzen du, ez dakit legeak zer aukera ematen duen ere. Nik berariaz errepikatzen dut urtero, alarma gorria pizteko esperantzan. Ez al du honek Parlamentuan jorratzen diren hainbat gaik baino munta handiagoa?

***Artaziak* saiakeran zenioen zentsurarik eza ez dela askatasuna. Gaur egun eta liburugintzari dagokionez, bada zentsurarik? Bada askatasunik?**
Pentsaezina gertatzen zait gaur egun produktu bat nonbait ezin kaleratu ahal izatea. Ezberdindu behar da, noski, zentsura eta programa editoriala. Iruditzen zait euskarazko argitalpenak zentsura ez duela ez egiten ez pairatzen.

Berriz *Asedio al euskera*ri helduz, jaso duzu erantzunik erdal komunitatearen aldetik (edo euskal komunitatearengandik)?
Ez, ez. Haiek ere, lehen kontra atera zitzaizkidanak, zahartu egin direla uste dut. Liburuak ez du orduko oihartzuna izan. Ez dauka zerikusirik *El libro negro*k sortu zuen zaratarekin. Euskal Herriko txoko guztietan ibili nintzen hitzaldietan. Liburuan bildutako testuetan agertzen zen hainbatek egurra eman zidan majo; *Asedio al euskera*n jaso ditut erantzun haietako batzuk. Oraingoz liburu berriarekin ez dira sartu. Jon Juaristi ere ez, karkar. Euskal Herria aldatu dela adierazten dit horrek. Bestalde, gai hauek astintzen hasi ordez agian nahiago dute bertan goxo bizi.



SERMOI, TXINGAR ETA FULARRAK

68ko maiatza idatziz

Berezia beti euskotar sentitzeko eta euskotar agertzeko moduan: gutxik izan dute 68ko Paris erreboltari hartako *gauche divine* alditik zekarren foulard hura Bilboko urdin koloreko txapelarekin uztartzeko modu eta jakinduria. Txapela bere tokian beti, Bilboko gizon dotoreen antzera. Munduko Alkaterik onenak euskotartasuna ulertzen zuen modu berezi hartan: besoak mundura zabalik, unibertsaltasunera begira, baina oinak euskal lur honetan ondo finkaturik. Abertzale atipikoa benetan, bera barik Euskadik patriota handia galdu du.

Andoni Ortuzar, Iñaki Azkunari buruz "Foulard eta txapelaz jantzitako euskotarra" / BERRIA, 2014-III-21



Hain zuzen, abenduko egun hotz hauetan lagun berezi bati bisita egitera joan da. Duela urte batzuk, liburu baten pistaren atzetik, Parisen amaitu zuen Margot Canu izeneko emakume bat elkarrizketatzeko asmoarekin. Oso intentsoa izan zen. Partisanoak eta 68ko errebeldeak izan ziren solasaldiko gai nagusiak, baina bere aitona Walter *Le Rouge* Bretonen biografia zegoen denaren gainetik. Hizketaldi hartan eman zion kasik behin betikoa izango zen forma *Heroiaren kaiera* eleberriari. Oraingoan ere elkarrizketa bat egiteko asmo bera du, baina ez elkarrizketatuari buruz, baizik eta elkarrizketatzaileari buruz. Sarak antzinako oinatzen gainean jarri nahi ditu oraingo oinetakoak bere autobiografia idazteko. Eta horretarako, azken urteetan eragin dioten pertsonak elkarrizketatzea pentsatu du, berari buruz hitz egin dezaten. Deitu zionean, Margotek ideia arraroa zela esan zion, eta ez zekiela gai izango zen berak nahi zuena egiteko. Baina Sara konbentzituta zegoen bera pertsona oso aproposa zela horretarako. Azken batean, denek dute zerbait esateko, gaiaren inguruan gutxi jakinda ere, eta batzuetan gutxi horrek, detaile ia ikusezin horrek, urrea balio du ordu luzeetako elkarrizketekin konparatuta.

Ugaitz Agirre, *Tximeletak bizkarrean* / Susa, 2018

Esan liteke nire orduko bizimodua Mouna Aguiguik, imintzio eta keinu ugariren artean, kalean hainbat aldiz salatu zuen *metro-boulot-dodo* (metroa-lana-loa) hartara mugatzen zela. 68ko maiatzetik geratzen zen pertsonaia ezagunenetakoa zen Mouna eta benetako ikuskizuna zen niretzat. Bizar luze harekin, txapela bekokian sartuta, oskolezko betaurrekoak, zintzilikarioak jantzita eta, sarri, komuneko eskuila bat eskuan zuela, mota guztietako jendea biltzen zitzaion ingurura eta txaloka eta bibaka hartzen zuten. Olerkiak ere errezitatzen zituen, Cité-ko uhartearen puntan, edota hitzaldi sutsuak egiten zituen, eta azkenean, beti, *Caca-Pipi-Talismé* hura jaurtitzen zien entzuleei, aurpegira tu egingo balie bezala. Parisen bizi izan nintzen urteetan, galdu nuen maiatz haren erreferentzia izan zen Mouna niretzat, orduko sutik geratzen zen txingarra, pertsonaia oroitarazlea, probokatzailea baino areago, berak besterik nahiko bazukeen ere.

Mariasun Landa, *Festa aldameneko gelan*, itz. Jesus Mari Lasa Barandiaran / Erein, 2007





Omenak eta pintadek bildua, ikasle saldoa juntatzen da Denfert-Rochereau plazara. Zertara? *Nik ere ez zekiat, orain erranen dik norbaitek hain segur*. Horra arazoa. Behin bildurik ez dakite zer egin. Azkenean saldoa mugitzen da Santé aldera eta sakabanatzen. Erretoregoa hartzeari buruz, ez dakit ikasle belaunaldirik izan den halako zuntzenkeria ezagutu ez duenik. Hori bai, haiek, historian sartzeko, frantses telebista hartu zuten, agian oroitzen ziren behiala beren atautxiek Bastilla nola hartu zuten. Telebistari buruz, "hartu" ere ez da hitzik zehatzena, sartzerik baizik egin ez baitzuten. Hartaraturik zer egin? Sermoi izugarri iraultzailea bota, ederki, argi handien azpian, baina, beldur dira halare, urka bihurra sumatzen kokozpean edo. Orduan, ororen salbaziorako, baten bat ohartzen da batere langilerik ez dela tartean. Badakizu, langile klaseko bat behar. Renaulteko langile bat eskatzen dute. *Ez dugu horrelakorik, horiek Renaultenean dituzue hain segur* diote telebistakoek. *Orduan bagoaz. Irudimena boterera!* diote sutsuki iraultzaileek. Nork dakike non nola ginatekeen gaur, langile hura ban izan balitz? Horra historia irauli duen gertakari ikaragarria. Manifestapenei buruz, berriz, Euskalerriko edozeinetan izan da istilu eta egur gehiago.

Patziku Perurena, "O tempora! O mores!" iruzkinaren pasarte bat, Eduardo Gil Beraren izen bereko saiakeraren harira / *Hegats*, 1994-03



PARETEK DIOTENA



ITZULPENA ETA FEMINISMOA. HAMAR URTE ETA GERO, ZER?

Bakartxo Arrizabalaga

Hamar bat urte dira itzulpengintzaren eta feminismoaren arteko harremanez zenbait ideia eta zenbait datu eman nituela *Senez* aldizkarian argitaratu artikulu batean; orain, haren ondorengoaz mintza nadin galdegin didate, handik hona zer aldatu zaigun eta zer berdin mantentzen den ikus dezadan eta aipa, orain bizi dugun egoerari argi izpiren bat ekartzeko esperantzatxoarekin.



Orduko artikulu hartan, hiru zatitan banatu nuen gaia: itzultzaileak eta itzulitako idazlea, itzulpengintza politika eta, azkenik, itzulpen irizpideak.

Itzultzaileei buruzko azterketatxoan, lehen-lehenetik, nabarmen agertu zitzaidan itzultzaileei eta emakumeei antzeko izaera, antzeko ezaugarri eta baloreak egotzi ohi zaizkigula: ikusezintasuna; beste baten mesedetan lan egin eta bigarren mailan, itzalean, gordetzea; maiz etxean lan egitea; apaltasuna, eta gizarte asurantza sistemaren eta lanbide egituratuen bazter eremutan izatea.

Itzulpengintza politikari dagokionean, batez ere argitalpenetan eta sarietan emazte itzultzaileek dugun lekuaz mintzatu nintzen, edo, zehatzago erranik, emazteok hor ere ez dugun lekuaz edo leku murritzaz eta horrek eginkizun horien arduradunen artean sortzen ez zuen kezkaz, zeren sexuari ez baina soilik kalitateari so egiten ziotenaren aitzakian leku nagusia gizonezkoei eskaini eta batere konturatzen ez baitziren –edo kontuan batere hartzen ez zuten– susmagarri izateraino ere arrarotxo zela emazteak kalitatezko obrak sortzeko gai ez izatea. Halako kezkarik gizonen artean ez zela ikusirik, emazteen esku geratu zen emazteei bideak irekitzea.

Feminismoa bera ere itzulpengintzari estuki loturik da, behar-beharrezkoa baitzaio feminismoari itzulpengintza teoria eta jardun feministak hedatuko badira eta mundu mailan eztabaidagai izanen. Alor horretan ere, emazteen ekimena funtsezko eta nagusi da eta, halatan, testu feministen hedapena emazteen eskuz egin izan da nagusiki, argitaletxe txikien eta autoedizioaren bitartez. Argitaletxe feminista horien zeregin lehena, maiz, emakumezko idazleen lanak zokotik atera eta ezagutzera ematea izan da.

Nork itzultzen duen eta zer itzultzen den aztertzeaz gain, bada, halere, feminismoari funtsezko zaion beste galdera: nola itzultzen den, alegia; horri erantzuteko, emakumezkoei lekua eskaintzeaz gain, haien ekarpenaren berezia azpimarratu eta haiek sortu hizkera eta gogoetak hedatzeko bidea ireki eta ibili du feminismoak. Hortik etorri ziren hizkera estandar sexistaren kritika eta haren gainditzeko proposamen feministak, hizkuntza bakoitzaren barneko itzulpenak, sormen eta itzulpenezko esperimentazioak eta abar. Nolanahi ere den, itzulpengintza feminista, gehienetan, sexismo gabeko hizkera erabiltzera mugatu izan da –eta horretan ere, nahikoa lan, nahikoa traba–.

Feminismoak hizkuntzari eginiko kritikak ondorio zuzena du itzulpenean ere, batez ere bi arlo hauetan: nola itzultzen den emakumezkoen hitza, eta nola berregituratzen diren jatorrizko diskurtsoak, maiz diskurtso baztertzaileak direnak, xede hizkuntzan emakumezkoei leku egiteko. Feminismoak, hizkuntza aztertzerakoan, unibertsal neutroa faltsua dela eta benetan maskulinoaren adierazle dela azaltzen duen bezala, itzultzailearen ustezko neutraltasunari ere so egiten dio eta zalantzan jartzen itzulpengintza errepikatze lan bezala azaltzen duten orain arteko teoriak.

IKUSGARRITASUNEAN, PAREKATZE BIDEAN

Horraino orain dela hamar urte idatzi nuenaren laburpentxoa. Zertan gara, baina, orain? Irakurri duzunetik zenbat balio digu oraindik eta zenbat aldatu zaigu? Zenbait datu ematen saiatuko naiz, argi zerbait egiteko balioko digutenaren esperantzan, eta beste hainbat gogoeta luzatuko, buru berogarri.

Lehen atalarekin hasiz gero, hau da, itzultzen dutenen eta itzuliak direnen sexuari buruz, erran daiteke aldaketatxoak izan direla.

Orain dela hamar urte aipatu nuen Europan, oro har, itzultzaile gehienak emazteak zirela eta hala zirela ere itzultzaileen elkarteetako kideak; hala jarraitzen dute izaten, baina agintaritza organoetan orduan kasu gehienetan gutxi ageri zirelarik

> «Maiz gertatzen da edo ageri ere ez garela agertzen edo agertzen garenean nabarmen ageri garela, hau da, emakume gisa nabarmendurik.»



(salbuespentxoak ere baziren hor-han), orain pareko kopurutan ageri dira, oro har, edo gehiago dira emazteak gizonak baino. Euskararen eremuan, aldiz, eta bereziki dugun itzultzaileen elkarte bakarrari so eginez, alderantzizko egoera genuen, hau da, zuzendaritza organoetan ageri ziren emazteak (nahiz eta hasiera batean ez hala gertatu), baina kideetan gizonezkoak gehiago ziren.

Orain, berriz, erran behar da Europako gainerako elkarteekiko hemen gertatzen zen alde hori hamar urteotan desagertu zaigula eta haien kopuruetara heldu garela gu ere. 2018. urte honetan, Euskal Itzultzaile Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarteak dituen 343 kideetatik 196 emazte dira eta 147 gizon. Urtetik urtera emazteen bazkidetzea etengabe izan da gizonena baino askoz handiagoa, urte batzuetan %90ekoa izateraino; hortik hamar urteotako aldaketa. Unibertsitateko ikasketak egin itzultzaile berriak ditugu nagusiki kide berri horiek eta itzulpengintza ikasketa horietan ere emakumeak nagusi ditugu.

Karguei dagokienean, EIZIEk ukan dituen lehendakarietan gizonen presentziaren aldeko aldea bereziki nabarmentzen da lehen urteetan; orain aztertzen ari garen aldian (2008-2012), berriz, parekatzen joan dira zenbakiak, zeren 1988tik 2008 urte bitarteko aldian 9 gizon eta 2 emazte izan zirelarik lehendakari, 2008tik 2018 urte honetara bitartean, berriz, 3 aldiz hautatu baititu elkarteak gizon bat lehendakari eta beste 3 aldiz emazte bat. Elkarteak argitaratzen duen *Senez* aldizkarian ere, gizonen eta emazteen parte hartzearen banaketa parekatze bidean joan da, hala zuzendaritzan nola artikulugileetan.

Itzulpen politikari dagokionean, Eusko Jaurlaritzak bultzatu eta EIZIE elkarteak kudeatzen duen Literatura Unibertsala bilduman ere izan dira aldaketak. 2010. urte arte argitaratu ziren obretatik gizonek idatzi obrak 136 ziren eta 14 besterik ez emazteek idatziak; obra haiek euskaratu zituzten itzultzaileei

dagokienean, berriz, 114 gizon ziren eta 34 emazte. Alabaina, 2012. urtea aldaketa urte izan zen. Proiektuaren hirugarren aroari ekin aitzinetik, eginikoaren bilana eta etorkizunerako irizpideen gaineko gogoeta egin zen eta, hor, itzulgaiak hautatzeko ezarri ziren zenbait irizpide berriren artean, emazte eta gizonen arteko parekotasuna bultzatu beharra ezarri zen; hortik etorri da 2012-2018 urteen arteko aldian itzulitako 20 obretatik 10 emazteen idazlanak izatea. Itzultzaileen kasuan ez da horrenbeste aldatu proportzioa (20 itzultzaileetan 7 emazte), baina zehatz dezadan idazleen kasuan lehen oso nabarmen zen alde hura ez zela horren handia itzultzaileen kasuan (24 itzultzaileetan 6 emazte). Sarietan jarraitzen dute gizonak nabarmen nagusi izaten.

Hamar urteotako aldaketa handienak bi aldetatik etorri zaizkigu, beraz: alde batetik, asmo zehatz bati ekinez –itzulgai izanen diren idazleen hautaketaren kasuan bezala– eta beste aldetik, parekatzea helburu bezala hartu gabe ere, jendeen banakako borondateen eraginez. Karguen kasuan, alde batetik, feminismoak eraginik, gizartean emazteen presentziaren aldeko hausnarketa bat gertatzen ari da; emazteen ekarpenari irekitzen ari da gizartea eta horrekin batera itzultzaileen elkartea ere emazteei adiago da –bereziki kontuan hartzen badugu kide gehienak emazte direla–, eta beste aldetik, emazteak ere beren gaitasunaren eta gizartean har dezaketen lekuaren gaineko gogoeta egiten eta karguak hartzera deliberatzen ari dira. Itzultzaile berri gehienak emakumezkoak dira eta gazte horiek bestelako jarrera dute gizartearekiko, eta hor duketen lekuari bestela begiratzen diote.

Feminismoak azken hamar urteotan ibili duen bidea dela eta erran behar da jarraitzen duela batez ere gizartera zabaltzen lehendik, txikian eta gizartearen bazter eremuetan, mugimenduaren barnean landutako ideiak, eta horrek ekarri duela gizartean emakumeok emakume izate hutsagatik bizi ditugun arazoei buruzko kontzientzia handitzea; gehienbat emakumeen aurkako indarkeria ari da agerian azaltzen eta horretan, espainiar estatu osoan arazo horri erakunde publikoek eta, batez ere, komunikabideek ematen dioten presentzia erabakior izan da jendartean arazoaren larriaren kontzientzia hedatzeko, inguruko estatuetan baino askoz indar handiagoz. Hortik etorri zaigu aurtengo martxoaren zortzian espainiar estatuan izan diren manifestazioetara jende oldea lotzea. Emakumeok jasaten ditugun jazarpenak, mespretxuak, bereizkeriak, bizi beharreko egoera gaitz guztiak bat egin eta kaleratu dira, oihu bateratu batean, nork bere bizipena ekarriz, nork bere kexua. Gehiegi jasaten aritzearen sentsazioa nabarmen adierazi da; beste gauza izanen da horri guztiari edo, hobeki erranez, horiei guztiei, aterabidea –edo aterabideak– ematea. Azterketa horrekin segitzeaz eskatuko lidakeen denbora –edo espazio– guztia ez dudanez, nator berriz ere itzulpengintzaren alorrera.

ZENBAKIEZ HARAGO, AGERTZEKO MANERA

Feminismoaren testuak itzultzeari dagokionean, hor ere gertatu zaigu, euskal letretan, gainerako kulturetako egoerara hurbiltze xume bat azken hamar urteotan; 2008an ia ez zen feminismoko testurik euskarara ekarririk. Hortik hona, berriz, hasi dira halakoak agertzen, alde batetik ekimen pribatuak eraginik eta beste aldetik erakunde publikoen ekimenez, biek ala biek bertan sortu euskal testu feministekin batera. Batez ere emazte feministen engaiamenduz, itzultzaile feministen engaiamenduz eginak izan ohi dira itzulpen horiek, euskal feminismoa kanpoko testuen ekarriaz hornitu nahiz. Ekimen pribatuz eginikoen gaiak nagusiki azken denboretako generoari buruzko gogoeten ingurukoak edo beste iraultza edo errebindikazioei (langile borroka, kapitalismoaren aurkako edo arrazismoaren aurkako borrokak, kolonialismoaren aurkakoa, etab.) loturiko alorretakoak dira, eta ekimen publikoz eginikoak, berriz, berdintasunari loturikoak gehienbat. Batzuk nola besteak, gehien-gehienak emazteek idatzi



obrak dira. Nolanahi ere den, hala emazteek idatzi literaturazko nola feminismoaren testu oinarrizko eta sonatuenak euskarara ekarri gabe ditugu, oro har, oraindik. Horretan, aurten berrikuntza handi bat gertatu zaigu, Emily Brontë idazle handiaren obra nagusia, *Gailur Ekaiztsuak*, argitaratu berri baita, Brontëren 200. urteurren honetan, emazte batek –Irene Aldasorok– itzulirik, Literatura Unibertsalaren sailean.

Itzultzen diren testuetan baliatzen diren irizpideei dagokienean, lehengo bidetik egiten dira orain ere nagusiki itzulpenak; hau da, batez ere hizkuntza molde sexistak baztertzen saiatzera mugatzen dira itzulpen gehien-gehienak, eta ia ez da eztabaidarik itzultzean irizpide feministak erabiltzeaz.

Hizkuntza ez sexistaren bide hori politikoki zuzenaren esparruan kokaturik dugu egun, eta Estatu Batuetan horrek hartu duen bidea eta Europan haien gibeletik zozo-zozoki jarraitzeko dugun errazkeria ikusirik, moralismo zentsuratzaile hutsean geratzeko arriskuan gara, emakumeon presentzia handitu gabe halere. Argi dezadan "presentzia" diodanean ez naizela emakumeak agertzeaz soilik ari, ezpada emakumeok dugun lekuaz eta agertzeko maneraz ere bai, zeren maiz gertatzen baita, edo ageri ere ez garela agertzen edo agertzen garenean nabarmen ageri garela, hau da, emakume gisa nabarmendurik; adibide bat jarriko dut, itzulpengintzari zuzen-zuzenean loturik. *La cantatrice chauve* itzuli behar duzu: aukera bat, "Abeslari burusoila"; beste aukera bat, "Emakume abeslari burusoila". Lehenengoan, oso litekeena da abeslari hori gizonezko bilakatzea irakurlearen gogoan; bigarrenean, berriz, abeslari zena emakume bilakatu da; galdu du abeslari izaera emakume izaeraren faboretan eta emakumeoi beti ezartzen diguten lekura ekarri du itzultzaileak, hau da, lehenik eta behin eta guztiaren gainetik, emakume izatera. Gizonezkoak abeslari, ingeniari, arkitekto, mediku, kirurgialari, abokatu, politikari, ikertzaile, irakasle eta abar dira; emakumeok, aldiz, betiere nagusiki emakume, halako edo holako ezaugarri edo





«Feminismoak hizkuntzari eginiko kritikak ondorio zuzena du itzulpenean ere, batez ere bi arlo hauetan: nola itzultzen den emakumezkoen hitza, eta nola berregituratzen diren jatorrizko diskurtsoak.»

bitxikeriaz zipriztinduak gero, onenean ere. Baina itzultzailea diot? Irakurlea? Hala diodalarik, pentsatu behar ote dugu aipatu ditudan "itzultzaile" eta "irakurle" horiek gizonezko direla? Emakume itzultzailea? Emakume irakurlea? Horregatik diot berriz ere, emakumeon presentzia ez da aipatuak izate hutsa; agertzen garen ala ez begiratzeaz gain, kontuan hartu behar dugu nola agertzen garen, eta agertzeko modu hori ez da hizkuntzaren arauetan adabakiak eginez aldatzen; gizartean dugun lekuaren adierazle da, besterik gabe, eta leku hori da guri inporta zaiguna, horra behar dugu heldu, horri behar diogu eta heldu, eta hori ezin du itzultzaile bakar batek bere kabuz konpondu, eta sexismorik gabeko hizkera deituriko molde politikoki zuzenen erabiltze hutsaz estali besterik ez dezake egin. Eta emakumeoi ez zaigu komeni egiazki ez dugun lekua itxura dakigun; egiazki dugun lekua behar dugu agerian eman, egiazki hobetuko badugu.

Politikoki zuzenaren mugimenduaren barnean, emakumeok gutxiengoentzako eskubideen aldeko mugimenduetan sartu ohi gaituzte, baina ez da hori, inondik ere, gure lekua, gu ez baikara inongo gutxiengoa, gu gehiengo zapaldu bat gara eta gure zapalkuntza horren nondik norakoa ez dugu inoiz ulertuko itxurakeriatan galduz gero, gertatzen dena estaliz. Halatan, bada, itzultzaile feminista edo feminista itzultzaile garen bezainbatean, non garen argi ukan eta geure lekuan izanik, garen lekuan garenik ukatu gabe, hau da, ustezko neutraltasunaren itxurakeriatan galdu gabe, eskuartera datorkiguna nondik datorkigun ahal bezain zehazki ulertzen saiatu eta egoki deritzogun lekura, gizartean emakumeok hobeki kokatzeko baliagarri izanen den lekura eramatea dugu egiteko. Emaitza ez da erabatekoa izanen, baina ez eta eskas ere, eta horrenbestean aski.

ISABEL ETXEBERRIA

ANA I. MORALES

FEMINISMOA GENUEN GEUREGANATU

Testua: Garazi Ugalde Pikabea / Argazkiak: Sara Berasaluce

Ez da izan aurkezpenen trantzea pasatu beharrik. Isabel Etxeberria eta Ana I. Morales Bilboko alondegiaren kanpoaldean elkartu dira hitzordua baino lehen. Teilatuko terrazan uste baino ozenago dago musika, eta aho batez erabaki dugu behe solairuko kafetegian esertzea. Ura, kafesnea eta kafea; argazkilariak, aukeran, lanari ekin nahi izan dio zuzenean. 2018an argitaratu dituzten bi itzulpenen kai ezagunean ontziratu gara, itzulpengintzaren eta feminismoaren ur sakonagoetan nabigatzeko.

Alice Munroren *Etsaiak, lagunak*… eta Judith Butlerren *Genero nahasmendua* euskaratu dituzue berriki. Lehenak narratiba jorratzen du, egunerokoaren fikziozko kontaketa eginez; bigarrenak, berriz, saiakera, gogoeta teorikoa. Toki desberdinetatik ekiten al dio itzultzaileak testu mota bati edo besteari?

Morales: Jarrera edo eskakizunak desberdinak dira, normalean narrazio batean aurkituko dituzulako ahots diferenteak, eta autore bakar batek idatzitako entsegu batean estilo bakar bat. Ni neu lotuago sentitzen naiz estiloa hertsiki imitatzera literatura lan batean entsegu batean baino, eskakizuna zorrotzagoa dela sentitzen dut. Entsegu liburu batean pisu handiagoa izango du ideiak, kontzeptuak eta terminoak zorroztasunez emateak. Ahal badut biak emango ditut, baina momentu batean aukeratu behar badut, estiloarekin malguago joka dezaket. Hori da itzulpen honetatik atera dudan ondorioa.

Etxeberria: Nik saiakera edo dibulgazioa itzuli dut lehenenago, eta hor kezkak bestelakoak ziren, gehiago ideien antolamenduan, mintzagai-galdegai jokoan asmatzea irakurleak argumentazioaren lerroari ondo heltzeko, terminologiaren koherentzia, eta abar. Literaturan, beste mota bateko gauzak hartu behar dira kontuan. Munroren kasuan, koherentzia hori ipuinaren behe geruza ezkutuago batzuetan egoten da, lexiko aldetik beharbada lehen irakurraldian ikusten ez diren gauzetan. Alde horretatik, kontu handiagoz, polikiago egin beharreko itzulpena iruditzen zait.

Morales: Entsegu batean ere autore baten baino gehiagoren lanak biltzen badira, antologien kasuan, hor oso erne egongo nintzateke estiloak bereizteko.

Gatozen *Etsaiak, lagunak*… liburura. Kanadarrak bederatzi ipuin bildu ditu, eguneroko gertakari xumeak eta giza harremanak ardatz hartuta. Zer espero behar du irakurleak?

Etxeberria: Hasiera batean badirudi istorioak gatz gabeak direla, lehen irakurraldian inpresioa ematen du ez dela gauza handirik gertatzen, ez dagoela dramarik edo gertaera lazgarririk, baina gero hotzean hausnartuta konturatzen zara gaixotasun larriak daudela, suizidioak, tratu txarrak… Esperientzia gogor samarrak agertzen dira, baina Munrok inondik ere ez du ahaleginik egiten morboan erortzeko, zaurian hatza sartzeko. Gertaera horien aurrean pertsonaiak nola kokatzen diren, horri ematen dio garrantzi handiagoa. Oso eskertzekoa iruditzen zait ipuinetan gertaera egunerokoak agertzea: pertsonaiek umeen pardel zikinen poltsak eramaten dituzte kotxetik etxera, jaten ari diren bitartean umeei purea erortzen zaie, harrikoa egiten agertzen dira pertsonaiak bederatzi ipuinetik hirutan… Eguneroko xehetasun horien bitartez lortzen du oso erraz identifikatuta sentitzea pertsonaiekin. Gero garrantzia duena ez da eszena hori, baizik eta eszena horren atzean agertzen dena, pertsonaiek elkarrizketen bitartez esaten dutena, sentitzen dituzten emozioak, baina betiere oso eguneroko ekintza xumeen bitartez adierazita.

Liburuaren aurkezpenean esan zenuenez, "bere burua munduan kokatu nahian ari diren emakumeak" dira protagonista. Identifikaziorako tarte zabala uzten digu horrek.

Etxeberria: Ipuin guztietan, emakumeak dira protagonista, askotariko emakumeak: gazteak, helduaroan daudenak, zaharrak ere bai, bizitzaren esperientzia oso urria dutenak eta esperientzia handia pilatu dutenak, eta halere erraza da irakurleak horietako edozeinekin elkarguneren bat topatzea, agertzen diren emozioak oso unibertsalak direlako.

> Isabel Etxeberria
>
> «Oso sintomatikoa eta pozgarria iruditzen zait bi liburuak oso iturri desberdinetatik etortzea.»

Bi idazle, bi genero eta bi bilduma. Munrorena Literatura Unibertsala bildumako 172. titulua da; Butlerrena, aldiz, Eskafandra bilduma feministako laugarrena. Nola heldu zitzaizuen esku artera itzulpen enkargua?

Etxeberria: Literatura Unibertsala bildumako liburu guztiekin bezala, lehiaketa publiko batean. Deialdia egin zen zenbait titulu itzultzeko eta argitaratzeko, horietako bat Munrorena zen. Nik lehenagotik gazteleraz ezagutu nuen, oraindik euskarara itzulita ez zegoenean; gerora Meettokek *Zorion handiegia* argitaratu zuen euskaraz –Nagore Tolosak, Naroa Zubillagak, Itziar Otegik eta Aiora Jakak egindako itzulpen bat– eta ni ordurako liluratuta nengoen Munrorekin. Nobel saria eman ziotenean, 2013an, pozez zoratzen pentsatu nuen Jokin Zaitegi bekaren bidez aukera egongo zela itzultzeko, eta deialdira aurkeztuko nintzela. Baina urte hartan ez zuten bekarik eman arrazoi ekonomikoengatik. Handik pixka batera Literatura Unibertsalaren deialdian sartu zuten titulu hau, gazteleraz irakurria nuen Munroren lehen liburua. Pentsatu nuen proba egitea, eta lortu nuen.

Morales: Nire kasuan, Eskafandrakoek egin zidaten proposamena, eta ezin izan nien ezetzik esan. Oso suerteko sentitu nintzen asko miresten dudan liburu bat delako, nire bizitzan oso inportantea izan dena. Baina banekien, aldi berean, oso gogorra izango zela, lan zaila egingo zitzaidala, oso epe laburra zegoelako itzultzeko, eta banekielako baietz hori oso arriskatua zela. Azkenean hilabete bat gehiago lortu nuen. Aldi berean da oso pozik naukan lan bat, niretzako ohorea izan delako itzultzea, baina egin bitartean estres handiko lana izan zen.

Xehetasun handiko hizkera darabil Munrok. Nolakoa izan da ñabardura horiek euskaraz emateko langintza?

Etxeberria: Adjektiboek eman didate lan gehien. Pertsonaien deskribapen fisikoak, ahotsaren tonua, begiradak… euskarara itzultzean ondo ulertu behar duzu nolakoa den pertsonaia, momentu horretan zergatik bota duen begirada hori, ezagutu egin behar duzu. Beraz, hor kontu handiz ibiltzen saiatu naiz, sinonimoen artean zehatzenak topatzen. Munrok baditu lexiko aldetik bere maniak: landarediaren ezagutza ikaragarria du, erreka bazterreko belarrak aipatuko dizkizu, metro karratu batean lau landare mota ezberdin; arkitekturarekin ere berdin, etxeak deskribatzen ahalegin handia hartzen du; pertsonen deskribapen fisikoak, betiere asmo batekin, ez jolas gisa, baizik eta benetan deskribapen horrek irakurleari balio diolako ulertzeko nolakoa den pertsonaia, nolakoa zen lehen, nolakoa den orain. Pertsonaiak ile orrazkeran egin duen aldaketaren bitartez ulertu dezakezu hogei urte horietan nondik nora joan den pertsonaia hori. Zehaztasun handia bilatzen du baina beti da zehaztasun justifikatu bat, ez kapritxo hutsa.

***Genero nahasmendua* queer teoriaren abiapuntuko testutzat hartzen da. Zer ekarpen egin dio Butlerrek pentsamendu feministari?**

Ana I. Morales

«Generoa espektro bat da, eta etengabe egiten ditugun ekintzen bitartez eraikitzen dugu.»

Morales: Batetik, berak liburua idatzi zuenean, 1990ean, identitate politiken joera zegoen indarrean. Hau da, abiapuntua zen pentsatzea badagoela emakume deritzon kategoria bat ondo definitua, eta kategoria horretan sartzen diren pertsonak direla feminismoaren subjektu, feminismoa aldarrikatzen dutenak eta feminismoaren bitartez helburu politiko batzuk lortuko dituztenak. Butlerren teoriak dio bide hori itxia eta murritza dela, jende asko ez delako identifikaturik sentitzen emakume deritzon kategoria horrekin. Adibidez, zer da emakumea izatea? Umetokia edukitzea gorputzean, bularrak edukitzea, ama izatea, naturarekiko lotura berezia sentitzea, sentibera izatea… garai hartan maneiatzen ziren eta gaur egun ere talde batzuetan maneiatzen diren ezaugarrietako batzuk aipatzearren. Bada, badaude pertsona asko beren burua emakumetzat jotzen dutenak eta hor beren burua ikusten ez dutenak. Orduan, nahiz eta jarraitu definizioa zabaltzen eta ñabardurak gehitzen, zerrenda beti izango da murritzegia. Berak esaten duena da identitate politiken bidea utzi behar dela, pentsatu behar dela identitateak irekiak direla eta beti egon behar direla birdefinitzen. Estrategia bezala erabil daitezke politikan, baina betiere gogoan izanik kolokan jarri behar ditugula etengabe, balio dezaketela tresna gisa, baina behin-behinekotasun batean. Berak esaten du feminismoaren subjektua dela bitasuna hautsi nahi duen edonor, genero eta sexualitate binarioa egitate ukaezintzat onartzen ez duen edonor. Haren bidez hedatu da *queer* terminoa binarioa ez den edozeri deitzeko.

Bestetik, bere teorian kontzeptu bat defendatzen du: performatibitatea. Hartzen du kontzeptu hori Austin izeneko linguista baten obratik. Austinek idatzi zuen liburu bat *Nola egin gauzak hitzekin* izenekoa, eta hor definitzen zituen aditz berezi batzuk, aditz performatiboak, esatearen bidez egiteko balio dutenak. Nik esaten badut «sagar bat jaten ari naiz» ez naiz sagar bat jaten ari, baina epaile batek esaten duenean «nik zu eta zu emazte deklaratzen zaituztet», ezkontza bat egin du, hitzaren bitartez ekintza bat egin du. Judith Butlerrek dio generoa performatiboa dela, ez dela aurretik dagoen gauza abstraktu bat, gero gauzatzen duguna, edo gure barruan dagoen esentzia bat, ez. Generoa espektro bat da, eta etengabe egiten ditugun ekintzen bitartez eraikitzen dugu. Errepikapen horiek sortzen dute ilusio bat, generoa gauza finko bat edo esentzia bat delakoa, baina hori begitazio bat, irudipen bat besterik ez da. Ikuspegi horrek dakarren berri ona da denok esku har dezakegula generoaren eraikuntzan eta deseraikuntzan.

Testu probokatzailea dela entzun izan dizugu…

Morales: Probokatzailea izan zen bere garaian, abiapuntua delako ez dagoela berezko identitaterik, ez dagoela subjekturik, eta hori oso gogorra izan daiteke, galduta sentitu zaitezke. Badirudi euskarririk gabe geratu zaitezkeela, desorientazioa sor dezake, baina emaitza askatzaileagoa da. Egiten ditugun ekintzek egiten gaituzte gu.

Hainbat autoreren berrikuspena egiten du Butlerrek, bere ekarpena egin aurretik. Terminologia berezitua darabil, eta, gainera, hizkera berri bat dakar teoria feministara. Zailtasun erantsia izan al da hori itzulpen prozesuan?

Morales: Bai. Hori gertatzen da oraindik itzultzeke lan asko dituen edozein hizkuntza edo kulturatan. Literatura itzultzen ari zarenean aipatzen badute beste obra unibertsal bateko pasarte bat eta euskaratuta ez badago, zeuk itzuli behar duzu. Zein erosoa den dagoeneko itzulita dagoenean, eta zein ederra, orduan hasten baitira obrak bata besteari oihartzun egiten. Kasu honetan, non liburuaren parte handi bat, bi heren, aurreko filosofoen obren berrikuspena den, horren premia handia eduki dut. Ez gaude beti irteerako marran, zorionez, batzuk badaude

itzulita: Pentsamenduaren Klasikoak bilduman itzuli ziren Mendebaldeko filosofiako lan garrantzitsu batzuk. Behar izan ditudan erreferentzien %10 edo eduki dut. Dena den, hitzez-hitzezko pasarte askorik ez da egon, eta egon direnetako batzuk nire pozerako itzulita egon dira. Monique Wittigen zenbait gauza itzulita daude Lisipen eta *Desira desordenatuak* (Utriusque Vasconiae) liburuan, eta erabili ahal izan nituen; Pentsamenduaren Klasikoetako batzuk ere bai. Banekien bidean zegoela Simone de Beauvoireren *Le Deuxième Sexe*, eta harremanetan jarri nintzen itzultzailearekin, Irene Arraratsekin. Zoritxarrez gehiena egin gabe egon da, baina dagoena oso lagungarria izan zait. Eraikitze etengabeko bat da, eta hurrengoek errazago izango dute.

Ari gara bidea egiten. Woolf, Davis, Wittig, Despentes… feminismoaren oinarrizko testu zenbait euskaraz irakur daitezke orain, itzulpenari esker. Bilduma berezituak ere sortu dira azken urteotan. Nondik etorri da behar hori? Zergatik orain?

Morales: Nik uste dut, alde batetik, akademiara heldu dela feminismoa azkenik Euskal Herrian, oraindik gehiago heldu behar bada ere. Badago masterrik unibertsitatean feminismoaz eta genero ikasketez, eta espero dezagun etorkizunean egotea graduak, departamentuak… Hortik nahi eta nahi ez etorriko da demanda, liburuak irakurri, eztabaidatu, sortu behar direlako. Hori alde batetik, eta, bestetik, zorionez, feminismoa gizartean bertan ere hedatu delako, modu informalean, akademiatik kanpo ere, emakume taldeen, udaletako tailerren eta horrelakoen bidez. Talde horietan liburuak irakurtzen eta eztabaidatzen dira. Jendea formatzen ari da; akademiatik kanpo jende oso formatua dago. Nik uste dut eskakizun horretatik eta talde horietan dabiltzan pertsonen ekimen, entrega eta lanari esker izan dela. Eskafandraren kasuan, esplizituki kontatzen dute afari baten ondoren sortu zela ideia. Filosofiako bilduma bat badago, Pentsamenduaren Klasikoak, eta bertan ez dago emakume bakar bat ere. Guraso den edozeinek badaki beren seme-alabek Batxilergoa bukatuko dutela andrazko filosofo bakar bat irakurri, aipatu eta entzun gabe. Eskakizun horretatik eta jende horren ekimenetik etorri da uzta hau.

Etxeberria: Oso sintomatikoa eta pozgarria iruditzen zait bi liburuak oso iturri desberdinetatik etortzea: *Genero nahasmendua*ren kasuan, pentsamendu feminista zabaltzeko sortutako bilduma batean, eta Munro, berriz, Literatura Unibertsala bildumaren barruan. Euskarazko itzulpenen argitalpenen munduan, kariño osoarekin esaten dut, Literatura Unibertsala da instituzioaren edo *establishment*aren bilduma. Eta bai ekimen pribatutik sortzen den bilduma batean bai askoz instituzionalagoa den beste batean ere, bietan, kezka bera agertzen da, gizartean dagoen behar hori jasotzekoa.

Kanon maskulino zuri hegemonikotik aldentzen diren ahotsak ari ote dira pixkanaka euskarazko ekoizpenean dagokien lekua hartzen?

Etxeberria: Nik uste dut Literatura Unibertsala bildumaren barruan ikusten dela eboluzio hori, ahalegina egiten dela. Lehenengo ehun tituluen banaketa, ondorengoena eta azken hogeirena edo desberdinak dira. Beste argitaletxe guztietan ere, gehiago edo gutxiago, modu kontziente batean edo ez, batzuetan igual kuotak zaintzeagatik eta beste batzuetan benetan behar hori sentitzen delako, gero eta gehiago zaintzen dute.

Morales: Dena den, premia dagoenean egiten da garrantzitsuena ekarri lehenbailehen. Uste dut hain direla obra onak, esanguratsuak eta autore beharrezkoak, non inpaktua daukaten. Apustu seguruak dira. Pentsatzen dut zenbakiak eskuan eduki gabe, irudipen bat da. Nahiz eta batzuei irudituko zaien emakumeak eta feminismoa nonahi daudela orain, gogoan dut negu honetan Itziar Diez de Ultzurrunek *Berria*n artikulu bat argitaratu zuela zenbakiak emanez zioena gutxiengoa direla, argitalpen guztiak kontuan hartuta, emakume idazleak, originalak nahiz itzuliak, eta feminismoaren entseguak versus beste edozertaz dihardutenak. Jarraitzen dute gutxiengo izaten.

Itzulpen eta Interpretazio ikasketetan graduatzen direnen %90 inguru emakumeak dira, baina ez dirudi proportzio hori lan munduan islatzen denik. Zein egoeratan ikusten duzue itzulpengintzaren egoera feminismotik?

Etxeberria: Badirudi diferentzia handia dagoela ikasketetan eta lan munduan dagoen proportzioaren artean. Bada Itzulpengintza eta Interpretazioko ikasle bat, Itziar Murgiondo, gradu amaierako lanean hori aztertzen ari dena. Espero dezagun horren emaitza inoiz artikulu gisa argitaratuta ikusi ahal izatea. Bego Montoriok esan izan du literatura itzulian askoz ere gizonezko itzultzaile gehiago dagoela, kopuruak berdintzen badoaz ere. Literatura Unibertsala lehiaketa anonimo bat da, eta, halere, gehienak gizonak dira. Zergatik, emakumeek lagin kaxkarragoak bidali dituztelako? Ez, argi eta garbi, gutxiago aurkeztu izan direlako. Iruditzen zait hor badagoela heziketan emakumeok hain ondo ikasi dugun apaltasun hori.

TRAUMARI HITZAK

Ibon Egaña Etxeberria

2018ko maiatzaren 3an eszenifikatutako ETAren behin betiko desagertzeak lehia politikoan zein literaturaren inguruko eztabaidetan erdigunea hartu duen auzi bat hauspotu du atzera ere: errelatoarena. ETAren amaierak beste galdera batzuk ere ekarri ditu politikaren eta kulturaren esparrura, ordea, feminismotik eginak batzuk: zer leku izan dute emakumeek indarkeria politikoaren testuinguruan? Zer esan nahi du bakeak emakumeentzat? Indarkeria politikoak eragindako traumari hitzak jarri dizkioten hiru emakumeren testuak dakartzagu orriotara, kontakizun adostu bat baino gehiago, zauri jakinetan hazka egitea bilatzen dutenak. Traumak "zauria" esan nahi omen du etimologikoki.



Gertaera lazgarri baten lekuko izan denak zergatik gogoratzen du, bere borondatearen kontra, une hori behin eta berriro? Zergatik asaldatzen dute gerran laguna galdu duen soldaduaren gogoa une hartako irudiek? Galdera horietatik abiatuta hasi zen Freud traumaren kontzeptua lantzen XX. mende hasieran. Babesgabetasun egoera, ahanztura eta errepikapena dira trauma definitzen duten ezaugarrietakoak: erabateko hauskortasuna sentitu duen pertsonak ondoren maiz ahaztu egiten baitu bizitakoa, eta, aldiz, bere borondatearen kontra, errepikapen gisa itzultzen zaio bortxazko gertaera.

Literatur errepresentazioari dagokionez, Cathy Caruthek nabarmendu du traumak arrazionalizazioari eta ulermen osoari itzuri egiten diola, ez dagoela trauma bere horretan irudikatzerik, zeharka, inguratuz baizik. Eta, aitzitik, traumari hitzak jartzea da hari aurre egiteko eta subjektu zauritua berriro bere historiaren jabe egiteko bide bakarrenetakoa.

Torturak, errepresioak edo ETAren indarkeriak eragindako traumak literaturara eraman dituzten hiru euskal egile eta literatur testu irakurriz bilatuko ditugu lerrootan trauma, literatura eta generoa gurutzatzen diren korapiloak.

ESAN GABE NEUKANA: LEKUKOTASUNETIK AHALDUNTZERA

Trauma bizi izanak berekin dakar hura kontatzeko beharra eta kontatzeko zailtasuna, biak batera. Prozesu kontraesankor horren lekuko da 2003an Agurtzane Juanena Alustizak argitaratutako *Esan gabe neukana* (Elkar). Frankismoko azken hilabeteetan, ETAko militante gaztea zela, atxilotu eta hamabi orduz torturatu zuten Juanena polizia etxean. Xabier Mendiguren Elizegik liburuaren sarreran azaltzen duenez, jasandako torturen lekukotza helarazi zion Juanenak 1999an editore eta idazleari, hark berridatz zezan. Mendigurenek uko egin zion hura berridazteari, bere horretan testuak nahikoa balio bazuelakoan, eta Koldo Izagirrek idatzia editatu ostean, Juanenak berak sinatuta atera zen plazara liburua.

Ahalduntze eta *egiletze* baten kronika da Juanenaren liburua eta argitalpen prozesua: bere historia kontatzea idazle legitimatu baten esku uzteko asmoa zuen emakumea bere historiaren jabe eta *egile* bihurtzen da prozesuan. Trauma bizi izan duenak behar du bere egia kontatu, eta behar du bere kontakizuna entzungo duen lekuko bat, bere esperientzia egiatzat hartuko duen marko bat. Hein horretan, entzule baten, lekuko baten bilaketaren prozesu nekeza ere bada *Esan gabe neukana*. Juanenak bere testigantza gaztelaniaz eta alfabeto grekoz idatzi zuen lehenbizi, amak aurkituz gero ulertzerik izan ez zezan. Irakurlerik eta lekukorik gabeko testigantza da, beraz, 25 urte beranduago argitaratu zen arte. Alabaina, lekukotasunari urte batzuetara Juanenak erantsitako gogoetek badute hartzaile bat buruan, zeinari idazlea bigarren pertsonan zuzentzen baitzaio: 1978an Erratzun izandako lankidea, maistra eta guardia zibil baten emaztea. Hari aurrez aurre kontatzera ausartu ez zena paperean jasotzea izan zen Juanena idaztera eraman zuen bulkada nagusietako bat. Kontakizuna "besteari", guardia zibilaren emazteari, espainolari, helarazteko asmoak bulkatzen du testuaren idazketa ere, beste horrek torturaren egia entzungo duelakoan. Hein batean, baina, nahi horren ezinaren lekukotza jasotzen du liburuak, finean euskal komunitatea baita egia hori entzungo duena, besteak "beste" izaten jarraitzen duen bitartean, eta torturak aitortu gabe.

Juanenaren liburuan kontatu beharra eta kontatu ezina bereziki torturen testigantza jasotzen duten pasarteetan egiten da nabarmenen. Trauma papereratzearen kontraesanak gordin agertzen dira orduan: gogoratu ezin dituen pasarteekin batera, gogotik erauzi ezin dituen irudiak errepikatzen zaizkio narratzaileari; norberak bizitakoaren gaineko zalantzek erasaten diote Juanenari, historia traumatikoa erabat berea ez balitz bezala. Generoak markatu eta zeharkatutako esperientzia traumatikoa da orobat; polizia etxean gizonezko poliziek eragindako torturek, irainen eta bortxa fisikoaren bidez, emakumetasuna eta sexualitatea azpimarratuz umiliazioa areagotzea dute xede. Eta kontakizunaren transmisioan ere badu ikustekorik generoak: kontakizuna publiko egin artean, idazleak saihestu egin zuen ahizpek eta amak bere testigantza irakurtzea; hala iradokitzen zaigu hurbiltasuna handiegia litzatekeela eta traumaren kontakizunak inguruko emakumeak ere kaltetuko lituzkeela. Era berean, emakumeen arteko komunikazio eta transmisioa zubi-eraikitzaile izan litekeelako ideia darabil Juanenak, guardia zibilaren emaztea bere kontakizunaren hartzaile irudikatzen duenean, desira hori, esan bezala, erabat gauzatzen ez bada ere.



POLITIKA ALBISTEAK: TRAUMAREN TRANSMISIOAK GENEROA DU

Eider Rodriguezen lehen ipuin liburuko "Politika albisteak" narrazioan orobat (*Eta handik gutxira gaur*, Susa, 2004), gakoa dira traumaren memoria eta transmisioarekin lotutako auziak. 35 urteko Idoiak aspaldian klandestinitatean zebilen bere mutil-lagun etakidearen argazkia egunkarian ikusten duenean hasten da ipuina. Orduan ohartzen da zilborrean lizuna ari zaiola ateratzen, erauzi ezin duen hauts moduko zera zuria, eta apurka, Idoia errealitatearen pertzepzioa nahastua duen pertsonaia dela ohartuko da irakurlea. Batasunaren ilegalizazio garai betean, poliziarengandik ihesi balihoa bezala, klandestinitateko segurtasun-neurriak hartuz irteten da kalera, herriko tabernara joaten da bere mutil-lagunarentzako abisuak ematera, bertakoen harridurarako, eta supermerkatuko apal hutsek gerra-hotsak iragartzen dituzten susmoa agertzen du. Idoiaren eta bere amaren arteko harremanean gertatu den etena eta inkomunikazioa ere jasotzen ditu ipuinak; alabak ez ditu berekin bizi den amaren hitzak dagoeneko aditzen, oihu antzeko batzuk besterik ez.

Pertsonaiaren barne-nahasmendua eta egonezina irudikatzen ditu egileak zilborreko lizunaren irudiaz baliatuz. Baina lizuna erauzi nahian Idoiak zilborrean egiten duen zauria irakur liteke traumaren gorpuzte gisa ere. Errealitatea eta historia izendatu ezinean, gorputzak hartzen du hitza ipuinean, eta gorputzak dakar, zauriaren bidez, historiaren, komunitatearen trauma konpartitua lehen lerrora. Denbora presentean protagonistak bizi duen "gerrarekin" badu zerikusirik traumak, baina zauria beste gerra batzuei buruz ere mintzo da. Idoiaren amari, izan ere, dolutzen zaio alabari gerra zibileko gertaerak kontatu izana, transmititutako memoria hori egiten baitu alabaren egoeraren erantzule. Gerren arteko *continuum* bat iradokitzen du, hala, ama-alaben arteko transmisio gatazkatsuak; erlojua geldirik dago ama-alaben etxean, eta historia ziklikoki errepikatzen dela dirudi. Minean eta zaurian soilik egiten dute topo amak eta Idoiak, ipuinaren akaberan; komunikazioa zauri konpartituak soilik berrezartzen du.

Ama-alaben egonezin eta inkomunikazioak badute zerikusirik, bestalde, betetzen dituzten edo bete beharko lituzketen genero-rolekin. Amak gerra egoeretan emakumeei atxiki izan zaien rola betetzen du, memoriaren gordailu eta transmisore izatearena, rol hori bete izanak errudun sentiarazten badu ere. Alabak, ostera, gudariaren zain etxean dagoen Peneloperen rola asumitzen du, eta borrokarako seme-alabarik ez izanak, nazioaren erreprodukzio biologikoan parte hartu ez izanak sorrarazten dio larrimina.



MEA CULPA: ERRUDUNTASUNETIK BERRASMATZERA

Indarkeria politikoaren testuinguruan sortzen eta berresten diren genero-rolak berrirakurtzeko eta haiek iraultzeko saio nobelatua da, beste hainbat gauzaren artean, Uxue Apaolazaren *Mea Culpa* (Elkar, 2011). Lur, 30 urteko neska gaztearen istorioa zekarren Igartza saria irabazitako nobelak: Euskal Herriko herri izengabe batean jaioa, Madrilen daramatza hainbat urte bizitzen, gaztaroko militantzia-urteak eta lagunartea ahanzturan utzita. Egunkari-azal bateko argazkiak inarrosten du pertsonaiaren gogoa, ordea: Mikel, neskaren gaztetako laguna esposatuta erakusten du kazetak, ETAko kide izatea egotzita atxilotu duten unean. Iheserako gogoak hartaratuta, Landetara abiatzen da protagonista, autoz, eta orduan jartzen da abian *road movie*-tik, *thriller* parodikotik eta tesi nobelatik baduen kontakizuna. Landetan oporretan dauden bere gaztaroko lagunak banan-banan hiltzea erabakiko du Lurrek, itxura batean motibazio eta kausalitate argirik gabe. Etengabeko digresioen bidez, Lurrek gogora dakar 1990etako herri izengabe batean pasatutako gaztaroa, ezker abertzalearen inguruan eratutako komunitatearen baitan igaroa, eta azaleratuz doa Lurren mendeku-gosea pizten duen erru sentimendua. ETAk egindako hilketengatik sentitzen duen erruduntasuna eta, hilketak ospatu edo defendatu arren, klase ertaineko bizimodu arruntarekin jarraitzen zuten herrikide haiekiko herra dira mendekuaren garra pizten dutenak.

Gorroto eutsiezinaren kausak eta erruduntasunaren zergatiak ulertu ezin dituen pertsonaia bat eraikitzen du Apaolazaren nobelak. Izan ere, gertaera traumatikoek ohi duten eran, iraganeko irudi eta mamuak agertzen zaizkio Lurri borondatearen kontra, non eta iraganik gabeko leku despertsonalizatuetan (*aquapark* batean, bainu-etxean, Landetan), eta ondo ulertu ezin duen durduzadura batek hartzen du pertsonaia, harik eta oraina iraganean urtzen den arte. Pertsonaiak ez du asmatzen bere traumaren jatorria identifikatu eta arrazoitzen: ez ETAk ez inork ez diola berari *ezer* egin gogoratzen du behin eta berriz. Ordea, testuan zehar arakatuz, irakurlea ohartzen da badirela hainbat gertaera traumatiko pertsonaiaren ni-a definitu eta errotik baldintzatu zutenak, eta zerikusia dutenak banakoaren eta komunitatearen arteko hausturarekin: Gurutze Iantziren eta Miguel Angel Blancoren hilketak, besteak beste. Iantziren heriotzak pertsonaiaren eta komunitatearen arteko loturen etetea dakar: polizia eta estatua –herritarren bizitza babesteko leudekeen horiek– herritarren aurka oldartzea/oldartzen ikustea traumatikoa da Lurrentzat. Babesgabezia horren aurrean, gaztaroan partaide izandako erresistentzia-komunitatearekiko hausturaren lehen zantzuak dakartza Blancoren hilketak Lurrentzat: haren hilketaren aurrean hartutako jarrera onarpenezko edo ezaxolatiak erruduntasunera darama, etika iraultzaile batetik etika indibidual baterako jauzia egitera.

Iraganarekiko loturak haustea eta ihes egitea komunitate politiko horretako genero-sistemari ihes egitea ere bada Lurrentzat. Kuadrillak, ezker abertzaleko inguruneak eta familiak eusten duten genero-banaketa ezbaian jartzen du pertsonaiak, zaintzaile, ikusle pasibo edo iritzi politiko propiorik gabeko emakume izateari uko eginez. Landetako bizilagunarengan bere burua berreraikitzeko ispilua topatzen du Lurrek: zahartzaroan emakume zaintzaile izateari utzi, lesbiana gisa bere burua aldarrikatu eta bizitzaz gozatzen badakien pertsonaia da Elisa, heteroarautik kanpo bizitzen ikasten ari dena eta hein batean protagonistaren desiren proiekzioa ere badena.

Izan ere, Apaolazaren nobelan ez dago inoiz erabat argi proiekzioaren eta gertaeraren, errealitatearen eta fikzioaren arteko banalerroa, ugari baitira eleberriko fikzio-geruzak: aurkitutako nobelaren teknika, metafikzioa eta narrazio-plano desberdinak narrazioan kontraesanak sartzeko, ñabardurak gehitzeko bitartekoak dira nobelan, baita pertsonaia traumatizatuaren egonezina eta nahastea adierazteko bidea ere. Hizkuntza behartuak, sintaxi bihurrituak ere arrazionalizatzen zaila den gogo-egoera horri jarri nahi dizkio hitzak. Horrela eraikitzen du egileak indarkeriaren eta bereziki ETAren jardunaren inguruko kritika politiko zorrotza egiten duen ahotsa. Fikzioaren plano askotarikoek kritikaren gordina nabartzeko eta ahots bakar batean ahots-aniztasuna txertatzeko ere balio dute, izan ere.

Gatazkaren inguruko literatura androzentrikoan, sinbolo edo biktima soilaren lekua egokitu zaie maiz emakumezkoei. Esperientzia traumatikoen inguruko lekukotasun- eta fikzio-testu hauek, aldiz, biktimaren roletik harago joan eta diskurtso politikodun subjektuak eraikitzen dituzte, bide horretan ezbaian jarriz eta berrirakurriz indarkeria politikoaren testuinguruan garatzen diren genero-rolak.

18, ADIN NÁGUSIKERIATASUNA

Identitarteak
Lutxo Egia
Booktegi.eus

Finn: Ez, ni zu naiz eta zu ni zara. Aspaldi-aspaldian, unetxo batez, zu izatea desiratu nuen. Behin. Baina aspaldi hartan ezinezkoa zen halako pentsamenduak izatea. Ezinezkoa. Baina orain hautsi da Anphora. Ni zu naiz eta zu ni zara. Edo, "zu" eta "ni" eraikitako kategoriak direnez, zu ni naiz eta ni zu zara.

Zuloa
Xabier Gantzarain
Elkar

Zailtasun handia dago gaur, eta uste dut horretan ere erdiz erdi asmatzen duela artistak, langile klasearen ideia bat egiteko, sortzeko, irudikatzeko, asmatzeko, erakusteko, definitzeko. Telebistak ez du langilerik erakusten jada.



Erreka haizea
Sonia Gonzalez
Susa

Bizi orekatuak dauzkatela uste duten horiek zoro deitu izan digute noizbait. Ez da erraza muturretik muturrera oreka joko arriskutsuetan ibiltzea. Ahigarria? Oro har, baina grinatsua ere bai. Onuragarria? Segun eta zertarako, pasioa bezala. Lasaigarria? Sekula ere ez.

Tretatxu, lapurren gobernadorea
Hektor Ortega
Txertoa

Migel Alexandro Ugarte alkatea ez ei zen gizon epela. Danbada entzundakoan, 'Perros, maten a estos perros', agindu zuen. Esan eta egin, tiroa jo zien haritz handitik, eta beste horrenbeste egin errondako Juan Zubiaurrek. Bideko gizonetako batek su eginez erantzun zien, 'Hor doa mila demoniogaz!' oihu eginda.

6012
Karlos Linazasoro
Erein

Badakizu nola lasaituko litzatekeen herria? Deitu kazetari, irrati, telebistari, jar zaitez zisternaren ondoan, eta esaiozu herriari lasai egoteko, dena kontrolpean dagoela, ez dagoela arriskurik. Balia zaitez zure erretorika zoragarriaz, ipini aurpegi sinisgarri bat, behar bada zisterna ere ukitu… Horrela bai lasaituko litzateke jendea, zalantzarik ez.

Mari-mutil handi baten bluesa
Leslie Feinberg, itz. Fermin Zabaltza
Katakrak

Hurrengo ostiralean Maliboun agertu ez nintzenean, Ed, Georgetta eta Peaches etxera nire bila etorri eta hara eraman ninduten. Cookiek trapu bat jaurti zidan, eta mahaiak garbitzen hasteko agindu. Tontoturik ibili nintzen zenbait astez, ezgauza tenperatura sentitzeko, hotz nahiz bero. Munduak aparte zirudien.

Mecanografiak
Harkaitz Cano
Txalaparta

"Horregatik maite dut horrenbeste ipuin hau. Harkaitz Canoren literaturak behin eta berriz konbokatuko duen exorzismo magikoa ezin hobeto laburtzen duelako. Zale amorratu baten ausardiarekin, fanboy baten pasioarekin, idazle unibertsal bat etxekotu egiten duelako, berea balitz bezala; bere maitasunak berea egingo balu bezala." Irati Jimenez

Alardea, ukatutako plaza
Arantxa Iraola eta Maite Asensio
Berria, Elkar eta Jakin

Borroka hura abiatu zutenen ahotan, maiz errepikatzen da ideia bat: "Inozentzia handiz hasi ginen. Ez genuen espero halako gatazka sortuko zenik". Urteetan jasandako jazarpen bortitzaren zauriak sendatuta dituzten honetan heldu zaie memoria egiteko aukera.

Ezin erranezko hitzak
Ttotte Etxebeste
Maiatz

Inoiz maitatu ez duenak
Inoiz ukitu ez dituenak
Ezpai baltsamatuak
Senditu ez dituenak
Begirada pisu horiek
Eritasun begi horiek
Sukar etsipenak

Gasteizko Gaztetxea. 30 urte
Hainbaten artean
Autoekoizpena

Gaztetxeroek, larritasun handirik transmititu gabe, gogorarazi zuten hiriak berriki adierazia zuela bere erabakia, Alde Zaharrean oso gustura geundela eta, besterik gabe, bake santuan uzteko behingoz. *Joderyamekaguendiox* (azken hori ez zuten esan publikoki, uste dut).

Errepidean
Jack Kerouac,
itz. Iñigo Roque
Pasazaite

Beltz zahar bat eseri zitzaidan aldamenean, itxura baten partidak gauero ikustera joaten zena. Aldamenean, adineko eskale zuri bat zeukan; hurrena, mexikar familia bat; harago, neska batzuk, mutil batzuk… gizateria osoa, denak. Oi, zeinen tristeak argiak gau hartan!

Duchampen inguma
Eric Dicharry
Pamiela

Hitzak menpekotasun zorrotzak lehertzeko
baliagarriak baitira
iraultza fronte poetikotik hasiko da
bestela ez da sortuko.
Iraultza hazi poetikotik landuz gero
hilezkorren arbola bilakatuko da.

Mari Xor
Yolanda Arrieta Malaxetxebarria
il. Aitziber Alonso Pikabea
Denonartean

Geure herentziatik sorturiko maitagarri-ipuina duzue Mari Xor. Euskal Herrian kokatuta dago, baina mundu osoan uler daiteke: unibertsala da.
Jaso dugun bezala doakizue, jantziz berrituta. Maitagarri-ipuin bat, XXI. mendean.
Zergatik, ez?

Koxka bat estuago
Henry James,
itz. Joseba Urteaga
Igela

Eszenatokia alderantzira jiratako paradisu bat da, non, gure irudimenaz baliatuz, irakurleok nahi gabe ere sumatuko dugun zer den Gaizkia, nobelan behin ere zuzenean aipatzen ez den arren hori baita sakoneko gaia, sekula idatzi den anbiguotasun-erakustaldi bikainenaz emana.

Azalberritze bat
Esti Martinez Diaz de Cerio
Balea Zuria

PROPOSAMEN BAT:
Zergatik ez ditugu hileta intimoak ospatzen
gure parte bat akatzen dugunean?
Izan ginen horri omenaldi xumea,
dolu sendoa egiteko aukera.
Galera asko konpongarri dira.

Herri kontakizunak Lapurdin, Baxe Nafarroan eta Zuberoan,
Maialen Moreno Zubeldia
EHUko argitalpenak

Traiteun zalzaile bat, laborarisai erraiten deio. Nun duzu gizona. Eta hunek: ürdetegin duzu, bena aiza ezagutuko duzu bakotxa duzu bunetaekin.



Zubigileak
Alfonso Zapico,
itz. Bego Montorio
Astiberri

Hiritik ibili naiz Fermin eta Yacinerekin, garagardoa edateko tokien bila (ez da oso erraza). Bulevar eta kale kantoi guztietan ikusten dut Camus, horretarako nahikoa baita irudimena apur bat astintzea.



Asteburu zuri bat / Usainak
Garbiñe Ubeda /
David Zapirain
Farmazia Beltza

Emakumea, kafesneak zekarren makilatxoari eragiten aritu da hantxe zutik, belarria luzatzeko kamuflajea besterik ez zela ahantzi ere egin zaio. Errukia sumatu du, ospitale osoari darion kloro usainaren eta txantxa merkeen gainetik. Kafesnea epeldu zaionean, disimulurik gabe begiratu die denei, eta berriketarietako bati gaixo dagoen gizonaren antza hartu dio, batez ere bekozkoan.

“IPUINAK GAUZA SERIOA DIRA”

Senperetik heldu da Amaia, eta Gasteiztik Ane. Ipuinez mintzatzeko heldu dira, kontalaritzaz, ahozkoaz. Nekez adieraziko dut hemen horietaz aritzean transmititzen duten pasioa, hizkuntza berean mintzo direnen konplizitatea eta begiradaz eta keinuez kontaturikoa.

Testua: Garazi Arrula Ruiz / Argazkiak: Sara Berasaluce

AMAIA HENNEBUTTE

ANE GEBARA

Zein da zuen euskarria ipuin bat kontatzeko?
Hennebutte: Nik beti liburua dut euskarri. Horregatik diot ni ez naizela ipuin kontalaria; aurreikuspuntu bat da: niretzat, ipuin-kontalaria da ipuinak buruan izan eta ahoz kontatzen dituena. Gainera, nik anitz ukitzen ditut poesia, antzerkia, ipuinak… Beraz, erraten dut artista naizela. Zeren badira soilik ipuinak kontatzen dituztenak; Iparraldean, adibidez, Xan Errotabehere eta Koldo Ameztoi ditugu.
Gebara: Nik ez dut inoiz irakurtzen; hala ere, batez ere ume txikiak badira, liburua erabiltzen dut, lagundu egiten dit. Aurreiritzia da batzuetan, zeren umeak kontzentratzen dira bestela ere, ahots eta gorputzarekin bakarrik; segurtasun puntu bat ematen dit niri liburuak.

Zer motatako albumak dituzue abiapuntu?
Hennebutte: Niretzat gakoa da inplikazioa, erran nahi baitut kontatzen duzun hori bizitu eta sinetsi behar duzula. Maite ditudan albumak dira abiapuntu, denetarik da, euskarazkoak, erdarazkoak… Beti idatzizkotik abiatzen naiz. Ez ditut beti irakurtzen, ongi ikasiak dira.
Gebara: Album bat aukeratzeko, gustatu behar zait eta nolabait ukitu behar nau. Zerbait desberdina kontatzeko aukera eman behar dit. Baliteke irudiak ez gustatzea, baina mamia badu, aukera bat ematen badit, nahikoa da. Alderantziz, beti molda daiteke istorioa, marrazkiak ederrak badira. Bizi ahal duzun istorio bat.

Nolakoa da idatzizkotik mintzorako bidea?
Gebara: Istorioaren puntu garrantzitsuenak gordetzen ditut, buruan zehazten, eta gero saiatzen naiz motz esaten. Ahozkotasuna garatzen, hitzak aukeratzen ditut. Ahalik eta motzenetik abiatzen naiz beti, eta gero jantzi egiten dut, gustatzen zaizkidan esaldiak sartu.
Hennebutte: Nik erabiltzen ditudan albumak biziki ongi ezagutzen ditut, behin baino gehiagotan irakurriak ditut; Anek bezala, biziki labur maite dut. Behin Marijane Minaberriren mintzaldi batera joan nintzen, eta markatu ninduen berak errandako zerbaitek: «zailena da labur idaztea»; hala zioen, eta nik uste dut egia duela. Ni ere saiatzen naiz; ongi ezagutzen dut ipuina eta gero nire maneran ematen dut.

Zuen euskalkira ere moldatzen duzue?
Hennebutte: Bai, nik bai, eta egokitzen naiz anitz publikoari, beraz, inprobisaketa parte bat bada. Sentitzen dudalarik hor dela publikoa eta arreta handikoa, beharbada luzatzen ahal naiz pixka bat. Sentitzen badut barreiatzen dela, op!, haustura bat egiten dut erritmoan.
Gebara: Ahalik eta naturalen kontatu behar da, orduan, bai, egokitzen zara zure euskarari, zure gorputzari… Oso interesaturik ikusten badituzu, irudi horretan geratzen zara, ipuina buruan baituzu pelikula bat bezala, eta une horri zukua atera. Magikoa da hori lortzen duzunean, ikusten duzunean zurekin daudela.
Hennebutte: Hori biziki azkarra da artista bezala. Burua liburutik altxatzen dudalarik eta hor ditudalarik begirada guztiak, sentitzen duzularik zurekin ari direla bidaiatzen, indar izugarri bat bada. Hau dugu xerkatzen gure lanean. Denak bat gara. Biziki ederra da.
Gebara: Ipuinak duen gauzarik politena da begiradarekin kontatzen dela, "zurekin nago, zuri eskaintzen ari naiz hau", eta, konektatzen duzunean, konplizitate hori sortzen denean, uau!
Hennebutte: Hori da, zuk erabili duzu hitza, ipuin-kontalariak *eskaini* egiten du, opari bat dugu egiten, eta bueltan beti bada zerbait.

Jardun artistikoa da ipuin kontalaritza, eta gurean antzerkiaz aparteko adierazpide autonomotzat hartzen da. Zuen kasuan, zer harreman du hitzak gorputzarekin?
Hennebutte: Nik ez dut maite hala bereiztea: gorputza, kantua, antzerkia… Bizi izan gara gizarte batean non erran behar den hau da gorputz antzerkia, hau da dantza, hau da… Nik maite dut dena lotzea, eta boza gorputza da, gainera. Nik albuma dut beti eskuetan, beraz, mugatua naiz; horrek du toki handia hartzen. Baina mugimenduan naiz. Prestaketa bat behar dut, gorputza eta boza berotzen ditut sistematikoki. Nik beharrezkoa dut hori.
Gebara: Nahiz eta ipuina ez erabili, saiatzen naiz mimika handirik ez egiten. Uste dut hitzak baduela nahikoa potentzia, eta ez dela askoz gehiago behar. Esaten badut "handia" [begiak zabaldu eta eskuarekin keinu labur bat egiten du, ahotsa goratu gabe], irudikatzen dute zerbait berezia dela, ez dut zertan "handia" esan [ozen eta besoak zabalduz]. Nahiz eta mugitu, keinuak egin, niri gustatzen zait txiki egitea; oso zaila egiten zait, ariketa egin behar dut, eta hori bada prestaketaren parte. Ipuin-kontalari askok diote zure gorputzaren markotik ezin zarela mugitu, eta ni saiatzen naiz horretan. Mugimendu gutxi, hitzari lekua egiteko. Gainera, nork bere handitasuna dauka, eta niretzat handi dena ez da beste batentzat hala izango.
Hennebutte: Arrunt ados naiz. Nire kasuan irudiak ere badaude. Utzi behar zaio publikoari bere irudimenean eta munduan sartzen, eta hori hausten da gehiegi betez gero.
Gebara: Kontatzean hain naiz ni zuri kontatzen; ahalik eta naturalena izatea nahikoa da, baita umeekin ere. Keinu asko badaude, galdu egin daitezke. Horrela, keinu bat eginez gero, benetan garrantzitsua izango da.
Hennebutte: Isiltasunak ere hartu behar dira, alferrikako betetzerik gabe.

Haurrentzako ez ezik, helduentzako ikuskizunak ere egin dituzue.
Hennebutte: Nik helduentzako bakarrik ez dut egin; familiak, bai. Eta ikusten dituzu amatxi-aitatxiak istorioan sartuak. Ipuin onek, niretzat, irakurketa maila anitz dituzte, eta bada denendako.

Ane Gebara

«Proiektu kulturaltzat har zitekeen kontalaritza, baina programazioan salbuespen dira.»



«Burua liburutik altxatzen dudalarik eta hor ditudalarik begirada guztiak, indar izugarri bat bada.»

Amaia Hennebutte

Behar da, on egiten du elkarrekin joatea eta poesia momentu bat ukatea.
Gebara: Nik aurten egin dut helduentzako saio bat. Ipuin tradizionalen ikuskizun bat izan zen. Beka bat [Gazte Sortzaileak] eman zidaten iazko irailean, eta Itziar Rekalderekin lanean izan naiz sei hilabetez. Arabako historia tradizionalak bildu nituen, horiei mila buelta eman, zergati piloa bilatu, eta, txalaparta baten laguntzaz, *Harriek kontatu didatena* izeneko emanaldia egin genuen.
Hennebutte: Dena gogoz ikasia zenuen?
Gebara: Bai, dena buruan nuen ondo antolatua, baina ahozkotasuna eta momentuko kontatze ariketa horretan hitzak berez doaz eta ipuinak aldaketak ditu saio bakoitzean. Ipuin bat bi bider berdin-berdin kontatzea ia ezinezkoa da naturaltasuna errespetatu nahi bada. Bi musikarik lagundu zidaten txalapartarekin. Oso goxoa izan zen. Diferentea, erronka handia. Umeekin kontaktua beti egin zait errazagoa; gogo handiz egin nuen.
Hennebutte: Eta luzea izan zen?
Gebara: Ordu bat eta laurden.
Hennebutte: Or-du-ba-te-ta-laur-den!
Gebara: Bai, hainbeste zegoen, pentsatzen nuen nola ez dut hau esango, nola ez dut bestea egingo… Hitzari presentzia handia eman nion.

Eta prestaketa bera diferentea izan zen helduentzat zelako?
Gebara: Bai, nire kasuan bai, lehen aldia zelako eta laguntza profesionala izan nuelako. Itziarrek etengabe galdetzen zidan zergatik hau eta beste, prozesua asko gidatu zuen. Batez ere historia lantzeko moduan; batzuk oso laburrak ziren, eta pentsatzen nuen: zergatik heldu da *hau* gaur egunera? Orduan Itziarrek galdetzen zidan: «zuk zer kontatu nahi duzu, nola, zergatik?». Gauza bat da historia bera, eta beste gauza bat da zer nahi duzun esan. Nik ordura arte ez nekien hainbeste lan egin zitekeenik historia bakoitzarekin, eta orain galdera gehiago ditut ipuinari egiteko; umeekin ere aldatu da nire prestaketa.

Arabako ipuingintza ezagutu duzu horri esker; zer aurkitu duzu?
Gebara: Historia pila bat aurkitu dut. Ahoz biltzen saiatu naiz, baina oso zaila da. Aitona-amonek tontakeriatzat dituzte gauza horiek, «nik zer kontatuko dizut?, galdetu beste bati» esaten zidaten. Solasaldi bat sortu behar nuen lehenik, poliki-poliki sartu haien sukalde eta bizitzetan. Gehiena, baina, idatziz jasota dago. Irakurritako historia horien inguruan galdetzen nienean, orduan bai, «hori kontatzen zen, bai» zioten, eta hortik tira egiten saiatzen nintzen.

Amaia, zu Libanon izan zara aurten, errefuxiatu eremuetan dauden siriar haur eta helduekin ipuinak lantzen. Nola prestatu zinen horretarako?
Hennebutte: Gobernuz kanpoko erakunde batekin izan nuen harremana. Lanera bidaltzen dituzten umeen familiekin kontzientziazio lana egiten dute, umeak lanetik ateratzeko, eta beste zerbait eskaintzen. Biziki sinesten dute arteak laguntzen ahal duela norbait berreraikitzen, eta kantua, antzerkia eta plastika lantzen dituzte. Nik ipuinen bidez zerbait egiteko proposamena egin nien, eta haiek onartu. Urte osoan egon gara Kiribil taldean proiektua lantzen; 150 album bildu ditugu, gehienak testu gabe. Batzuk euskaraz ere baziren, eta laburpen bat kolatzen genien bukaeran. Horrekin joan gara, ongi jakin gabe funtzionatuko ote zuen. Harrigarria izan da. Paxkal [Indo, musikaria] eta biok kontatzen hasi, eta isiltasun erabatekoa egin da. Boz eta musika inprobisaketa izan zen, hain indartsua, non bat ginen.

Beraz, publikoa ez da jasotzaile huts.
Gebara: Ez, noski. Nik zerbait kontatzen dut, baina begiradekin asko transmititzen dute, eta ukitzen dute zerbait zugan. Ez da beti gertatzen, noski, berehala igartzen diot iristen denean.
Hennebutte: Ikusi ezin den zerbait gertatzen dela sentitzen da gorputzean. Herri Urratsean ere sentitu nuen, inguruan jendetza zelarik; ondoan bazen saltoka aritzeko leku bat, eta beldurtuta geunden Paxkal eta biok. Ipuina kontatzen hastean, hor ziren hirurogei ume eta heldu guri aditzen. Sekulako indarra sortzen da. Elefante bat pasatzen ahal da ondotik eta ez dute ikusten.

Leire Diaz de Gereñu ikertzaileak dioenez, kontalarien publiko nagusia euskaldun berriak eta umeak dira. Hori ikusi duzue zuek?
Hennebutte: Umeek dituzte helduak ikuskizunetara eramaten; bestela, helduak ez datoz.

Horrek esan nahiko luke hizkuntzaren irakaskuntzarekin eta hezkuntzarekin lotzen dela ipuin kontalaritza.
Gebara: Gizarte honetan, egiten dugun guztiak helburu bat izan behar du. Euskaraz bada eta ipuina, ikasteko izan dadila. Facebookeko taldeetan, etengabe galdetzen dute txupetea kentzeko ipuin bat, natura zaintzeko ipuin bat… Edozein ipuin, ona bada, denak betetzen ditu. Ipuinak sotila izan behar du, ezin da kontatu ipuin bat zerbait irakasteko edo gero fitxa bat betetzeko. Ipuinari helburu bat bilatzen badiogu, ikastea helburu duten horiek gerturatuko dira gehiago, hori ez delarik helburua. Gurean, ipuinak infantilizatu dira, eta gehiago kontatzen zaizkie umeei.
Hennebutte: Egia da gehiago kontatzen zaiela umeei, ipuinak umeentzat bakarrik balira bezala. Horretan tronpatzen gara. Helduentzat ere badira! Bestalde, ipuinek, berez, beti zerbait kontatzen dute. Irakasle batek ipuinak erabiltzen ahal ditu helburu berezi batekin, noski, baina uste dut ipuinen funtsezko funtzioa kontatua izatea dela, besterik ez, denon artean irudimen une bat bizitzeko, zuzenean, elkarrekin.

Ez al digute guri ere albistegietan ipuin piloa kontatzen?
Gebara: Bai, baina horiek dira guretzako ipuinak. Kolonbiatik etorri berri naiz, eta han ohitura handia dago kontatzeko. Plazak bete egiten dira, eta denak helduak dira. Ostiraletik igandera, arratsalde osoa pasatzen dute kontalariek mikrofono aurrean; adin eta klase ekonomiko guztietako jendea biltzen da. Garrantzia handia ematen diote kalean kontatzeari. Han beldurra dute komediarekin, indarra hartzen ari baita txiste txarreko monologoa. Haiek, baina, ipuin-kontalariak dira, eta umore handikoak, gainera; kontatzeko kultura handia dute, eta publikoak predisposizio handia du ongi pasatzeko. Hemen barrea eragiten duzunerako… Eta helduei, oro har, ez dizkiegu kontatzen.
Hennebutte: Iparraldean, lehen, txerri hiltzeak egiten zituztenean, edo arto xuriketan, ipuin-kontalariei deitzen zitzaien, eta hor ibiltzen ziren ipuin-kontalariak, etxez etxe, besteak lanean ari zirelarik. Hori galdu egin da.
Gebara: Ipuinak gauza serioa dira, eta ez soilik Kolonbian. Hemen ere, Arabako ipuin tradizionalak jasotzen ibili naizenean, amama batzuek hala esaten zidaten: «nola kontatuko genizkien umeei gauza hauek, umeak sukaldetik kanporatzen genituen!». Orain buelta eman zaio horri, eta ipuina umeen gauzekin lotzen da.

Zeintzuk dira ipuin kontalaritza garaikidearen arazo nagusiak?
Gebara: Ohitura falta izan daiteke: inoiz ez badizute oinetan masaje bat eman, ez dakizu zer goxoa den. Prestigio falta ere bada; batzuetan betetzeko bezala jartzen da, berdin dio zer lekutan egin, zer ordutan… Antzezlan bat ez litzateke horrela programatuko, beraz, gurea zergatik bai? Goazen gauzak ondo egitera.

Ipuin kontalari ugari badira Euskal Herrian. Zer-nolakoa da zirkuitu hori? Baduzue sare bat edo nor berean ari da?
Hennebutte: Hegoaldean eta Iparraldean ez da berdin. Iparraldean, artista zarelarik, bada "irtermitentzia", dispositibo bat laguntzen dizuna artista izaten, eta hori bikaina da guretzat. Urtean 47 ikuskizun egiten badituzu, Estatuak hilabete guztiz ordaintzen dizu; zeren baliteke hilabete batean bost ikuskizun izatea eta hurrengoan deus, eta hori ez da grabea, artista autonomo baitzara. Gutxieneko bat baduzu. Antzerkilari, musikari bazara, horrek anitz laguntzen dizu. Hegoaldean ez da deus.
Gebara: Ni ez naiz bakarrik honetaz bizi, baina orain autonomo egin naiz, geroz eta gehiago nahi dudalako hemendik jo; oso zaila da, burokraziatik hasita. Niretzat oso lan bakartia da; hasieran, galduta sentitu nintzen, ez nekien nondik eta nora jo. Elkarteak badaude, eta harremanen bidez, ahoz ahokoaren bidez, lortzen ahal dira gauza batzuk; baina laguntasun kontu bat da. Proiektu kulturaltzat har zitekeen kontalaritza, baina programazioan salbuespen dira.

Amaia, zu elkarte horietako batean zabiltza, ekainetik Galtzagorriko lehendakaria baitzara. Zer ikusi duzu?
Hennebutte: Ez dizut erantzuten ahal, sartu berria bainaiz. Baina ikusi dut haur literaturari dagokionez ere, alde handia badela Iparraldean eta Hegoaldean; albumak 60ko hamarkadan hasi ziren Iparraldean, eta bada etxean haurrei irakurtzeko tradizio handi bat. Hegoaldean asko kostatzen da, polikiago doa. Harrigarria da zer gutxi saltzen den. Bada anitz egiteko. Baina gauzak aldatzeko gogo handia ere sentitu dut; beraz, albumak Hegoaldean garapen ederra ezagutuko duela sinesten dut.

AHOZKOAREN KAOS KASU EDER BIZIAK

Carme Junyent

Testua: Miel A. Elustondo / Argazkiak: Zaldi Ero

Ahozkoa idatzira ekartzeko dekalogorik ez eskulibururik ezean, neke da ahozkoa idatzira nola ekarri azaltzea. Errazago da egiten, azaltzen baino. Orduan, ahal den moduan eta sen onez jardun ohi du hitzaren langileak, garaiz argitaratu beharrak dakarren presioak, estuasun larriak, estuturik. Izatekotan, eskarmentua du alde, ahozko kaosa paperaren gainean idatziz ordenatzen laguntzen dion erreminta.

Miresgarri zaizkit beren lanaren gainean behar diren zehaztapen guztiak, eta gehiago, emateko gai diren jendeak. Buruan ohi dituzte datuak, edo eskuan, eta erraz baliatzen dituzte, entzuleak sarean harrapaturik. Bistan da, ez dira gutxi. Han eta hemen ageri dira era horretako buru ongi jantziak, gozamena da haien jarduna bertatik bertara eta zuzenean jasotzea. Sentipen horixe jaso bide zuen kazetariak –Sustrai Colina bertsolaria, 2011ko *Argia* astekarian ari–, Daniel Landartekin mintzatu zenean. Elkarrizketaren galdera-erantzunak idatzirik, bere baitako *post scriptum*-a erantsi zion Colinak solasaldi eder hari, "Iturriko ura nola" izenburuaren azpiko oharrean. Hamaika elkarrizketa egina izanagatik ere, saria jaso izanaren poza zuen Colinak: jator, dotore, behar den bezala hitz egiten zuen, hitz egiten du, Daniel Landartek: "*…eta bereziki, hizlari ona [da]. Iturriko ura nola isurtzen ditu hitzak, eskuek lagundutako intonazio egokiz. Hizkuntzaren pobretzeaz eta hizkuntzaren senaren galtzeaz hainbeste hitz egiten den garaiotan plazer hutsa da hitzei pindarrak ateratzen ikustea…*".

Hizlari ona Daniel Landart, iturriko ura bezala isurtzen ditu hitzak. Kasu horretan, ahozkotik idatzira ari denak aski du elkarrizketatuaren hitzak xuxen transkribatu, hark bere jardunaren zehar egindako isiluneak puntuz, edota komaz, bete.

Horrelaxe.

Zaila ere ez da.

EZ DA GAUZA ERRAZA, KIRI-KIRI-KEN

Miresmen eta erraztasun horiexek izan zituen Reyes Ilintxetak 2013an Goio Monrealekin solastatu zenean *Argia* aldizkarian. Sustrai Colinak elkarrizketaren akabantzan nola, Ilintxetak sarreran berean transmititzen zigun elkarrizketatuaren jardunarekiko miresmena. "…hitzarmen ekonomikoez, haien garrantziaz eta pairatzen dituzten erasoez mintzo zaigu, besteak beste, elkarrizketa baino gehiago klase partikularrean". Klase partikular dotorea, Euskal Herriko Unibertsitateko lehen errektore izanak emana.

Urteak joanagatik ere gogoan josita daramatzadan bi ale ditut Sustrai Colinaren Daniel Landart eta Reyes Ilintxetaren Goio Monreal. Ahozkoa idatzira zuzen eramaten asmatu zuten kazetari biek, bi solaskide bikain lagun zituztela. Landartek zein Monrealek iturriko ur beti garbiaren jarioa zuten, intonazio egokia. Ongi preziatu zuten hitzaren langile biek.

Noan denboran atzerago, ahozkoa idatzian jartzen ari nintzen garaian atzerago beti.

Juan Celaya zena zaigu mintzo, *Argia*-n betiere. 2004a da. Elkarrizketari sarrera egiten dion aurkezpenean, esaldi hauexek: "*Cegasa, Tuboplast, Hidronor... Eusenor, Harluxet, Euskal Fundazioa... Juan Celaya, enpresaburu. Juan Celaya, euskal kulturaren laguntzaile eskuzabal. Arrazoi ezkuturik ez da. 'Jaio egin nintzen ni horrela! Batzuek fraide joateko bokazioa*

dute. Nik gure herriari laguntzeko borondatea. Euskaldun naiz, euskaldun sentitzen naiz, euskaldun ikusten dut neure burua, eta pozik nago, oso pozik. Ez daukat aldatzeko asmorik'. Aho bizarrik gabe mintzo den oñatiarra, enpresaburu handia Gasteizen". Baina hor ez da ageri, ahotik idatzira, bulegoa banaz besteko etxebizitza baino handiagoa zuela. Edo mahai handi egur noblez eginaren alde batean zela enpresaburua, bestean kazetaria. Ezta pilak ez ezik ardoa ere egiten zuenak bere upategiko zuria zuela ondoan, kopa handia, eskaini ere ziola *Argia*-ko bidaliari, bateko galderatik besteko erantzunera ondradu edan zuela Lan zuri hartatik. Antropologia irakasleak, aldiz, xehetasunak oro –eztul, korrok nahiz imintzio–, bilduko zituzkeen bere kaierrean, eta, lana transkribatzean, elkarrizketatuaren hitzak bezainbat izango ziratekeen hari legozkiokeen akotazioak, parentesi barnean bildutako ohar etzanaraziak. Juan Celaya zenaren tragoaren glu-glu-glu!-ak ahazteke. Horiek gabe, harridura ikur bat jartzen besterik ez nuen asmatu gorago hona aldatu dudan sarrera horretan, nahiz, berez, Juan Celayaren esaldi bakoitzak beharko zukeen harridura ikurra. Halaxe hitz egiten baitzuen! Haren ahozkoan ez zen hinki-hanka, zalantza-balantza, duda-mudakorik. Adibidea dakarkizuet: "*Europa denean sarturik dago aberastasun larregia. Nik ez dut uste munduan gurean bezain ondo inon bizi denik. Eta, baldin badago, esan dezala. 'Suedian!', esango du baten batek. Joan dadila! Suediarrak ondo bizi dira, bai, baina hemengo mozkorkeriarik, jan eta edanik ez dute han, e! Eta euskaldunak Suediara joan eta aspertu! Hemengo kantua eta tragoa eta saltsarik ez dago han!* (Isilik geratu da. Gero, atzera ekin dio) *Ez dut batere beldurrik esan dudana esateko: aberats izatea ez da ona, inorentzat ere ez. Badakit-eta zer den! Hemen jendea gaixotuta dabil! Bi egun jai eta derrepente joaten da jendea, Lisboara, Brasilera, edo ez dakit nora! Gaixotuta, ordea! Ezberdintasun handiak daudela diote batzuek. Zoramenean bai! Joan Oñatira abuztuan eta inor ez kalean. Tabernak ere itxita! Oñati esan dut, baina beste edozein herri esan liteke. Eta ondo iruditzen zait, neuk ere egin dut. Baina oraingo hau zoramena da, gaixotasuna! Gaixo! Eritasun gogorra, oso gogorra! Ez daukat beldurrik aberatsa naizela esateko, inoren aurrean ere"*. Horrelakoxea zen Juan Celaya, hizketan ari zenean, behintzat, baina idatzizkoak ezin jaso haren berbetaren sua. Hitz bakoitzak beharko zukeen harridura ikurra, eta argi ibili beharra dago, kasu eman, abangoardiaren ikur eredugarri bihur ez zezaten elkarrizketa. Eta beti-betikoa, euskaraz alfabetatu gabearen mintzoa halako maila batera jasotzen, noiztenka zuzentzen, ibili behar etengabea, Celayarekin eta Zelaia ez direnekin. Eta biraoak gordetzen ibili beharra. Gaitz erdi, Carmelo Ortiz de Elgea margolariari ez dizkiot inoiz denak gorde izan. Zomorroz jantzi bai, hala ere. Nork bere makuluak ditu, eta behar ere ditu:

Aretxabaletako (Araba) margolaria ari da, 2015ean *Argia*-n argitaratuan: "*Zera esaten dizutenean bezala: 'Ez dut margolaritzaz entenditzen'. 'Ongi da. Aukera ezazu margolan hauetako bat'. Eta aukeratzen du. Eta, arao eta birao!, ederrena aukeratu du! Kar, kar. (…) Galdetu izan didate: 'Nora hoa?'. 'Margotzera!'. 'Zer margotzera?'. 'Ez zakiat', edo 'Ez zakinat'. Alegia, egiten dudana egitera noa ni, margotzera, zerbait aurkitzera! Arao eta birao!"*

Kasu honetan, mekauen, ostia, potro eta erretolika guztia sartzen da "arao eta birao" horietan.

Ortiz de Elgearekin aurrera, oraintxe ikusi dut ikustekoa.
Horra: *"Hirurogeita hamar urte ditut, eta gaur goizean ohean nengoela ere pilotatokiko margoetan ari nintzen pentsatzen! 'Jaiki eta banoak!'. Betiko gogo berarekin! Hogeita bost urte nituenean bezala, orduan pop-a margotzen banuen ere! Ez dut adinik! Bitalitate bera dut margotzeari dagokionean! Lasai gosaldu eta esan niezaiokeen neure buruari: 'Margoak ikustera noak'. Baina ez, 'Bi margolan hauei heldu behar zieat!' esaten dut. Garai bateko indar eta kemen berarekin! Hogei urteko adin bera dut, oldar bera! Zoragarria, margotzeko gogo horri eustea! Zerbait deskubritzeko gogoa izatea! Ohean nengoen gaur goizean, oraintxe bi ordu, eta buruz, margotzen ari nintzen! Estudiora heldu, eta buruan margotzen ari nintzenak ez du balio! Bestelako bide bat ari zait agintzen margoa!"*
Juan Celayari opa izan ez niona opa izan nion Carmelo Ortiz de Elgeari. Emozioa zuen esaldi bakoitza, emozioa margo bakoitza! Hunkigarri zaio margoa, eta transmititu zidan, transmititu zidanez. Paperean, berarekin batera ari nintzen ni orroka!
Zaila ere ez da, esan dugu gorago. Ezina iruditzen zait lerro batzuk beherago. Tartean, badira ezina ezinez ezinak ere, ekinez eginak beti.
Lourdes Fernandezi egindako elkarrizketa da adibide, bizian egundo gogotik kenduko ez dudana.

«Juan Celayari opa izan ez niona opa izan nion Carmelo Ortiz de Elgeari. Emozioa zuen esaldi bakoitza!»

EZ DA GAUZA ERRAZA, KIRI-KIRI-KEN

2006ko uztailean egin nion elkarrizketa Lourdes Fernandezi, artean ARCO erakusketaren zuzendari zela. Madrilen zitatu ninduen halako egun jakin bateko, baina, eguna iritsi aurretik, Fernandezen idazkariaren deia jaso nuen halako eguerdi batean, ea elkarrizketak arratsalde hartan bertan izan ahal zuen, gainerakoan, agindua genuen egunean ez zuela-eta egiterik izango. Eta halaxe joan nintzen Madrilera autoa hartuta, egun hartan bertan. Arratsaldeko 6etan zen hitzordua, halako toki seinalatu baten atarian. Lourdes Fernandez andrea hogei minutu, ordu erdi berandutu zen. Taxian etorri zen, eta, are, taxian sarrarazi ninduen. Desenkusatu zen nola edo hala, baina elkarrizketa egin beharra zen, horretara bainintzen Madrilera.
Ahozkotik idatzira nahi, horrelaxe hasi nuen elkarrizketa, irakurlea jabe zedin:
—Elkarrizketa taxian hasi beharra ere! Noiz eta non bukatuko dugun ez dakigula, gainera.
—Zu trankil. Bilera daukat Telefonica Fundazioko zuzendariarekin, baina esango diot itxaroteko.
—Telefonica Fundazioko burua zain eduki behar al duzu?
—Baliteke bera ni baino beranduago ailegatzea eta guk denbora gehiago izatea elkarrizketa egiteko. Ez dago jakiterik. Hasi egingo gara, behintzat.
—Horixe egingo dizut: hasi. Tira, bada… Eta hasi nintzaion elkarrizketari zegozkion galderak egiten. Bitartean, joana zitzaigun hainbat denbora, joanak hainbat minutu. Elkarrizketa agertu zelarik, ondoko akotazioa jarriko nuen: *Taxitik irten eta Espainiar Antzoki atariko plazan jarri gara. Berehalaxe azaldu da, nondik ez dakigula, Telefonica Fundazioko zuzendaria. Santiago Muñoz. Lekuko izan dugu eta, tartean, solaskide.*
Mintzo bizi ero hartatik idatzirakoan, hala ere, irakurleak ez zuen taxi barrukorik ikusi, ez burrunbarik aditu, ez elkarrizketatzailearen harrimena ez elkarrizketatuaren estresa, batetik besterako dzu! dzu! dzu! hartan. Baldin baitere, irakurleak pentsa zezakeen hotel bateko areto txiki isilean patxada goxoan neutro ari ginela. Eta nori interesatzen zaizkio gisakoak. Nahitaezkoak literaturan, sobera dira, hitzak eta letrak lekuz aldatzea gabe, informazioa helburu duen hedabidean.
Elkarrizketak aurrera egin zuen:
—Zenbatgarren galderan ari zara? (Lourdes Fernandez bera galdezka, niri)
—Hirugarrenean.
—Ui!
—Zera adierazi duzu, zure agintaldian ez dela etenik ez jarraipenik izango (…) *Norantz joko duzun jakin nahiko nuke.*
Erantzun zuen, aski labur –bistan zen ez nuela elkarrizketa osatzeko behar bezainbat material izango–, eta berriz egin nion galdera, hitz gehiago behar eta.
—Galdera, hala ere, Lourdes: norantz? (Santiago Muñozi itzuli dio galdera)
Eta ahozkotik idatzira, Santiago Muñozen hitzak tartekatu nituen, elkarrizketaren eroa adierazi nahirik, ordu arte bizian ez nuen halako erokeriarik egina. Elkarrizketa ez beste zernahi zen hura, edo halaxe bizi nuen nik, behintzat, momentu hartan. Ez alferrik. *Argia* aldizkarian sailaren arduradunari ez zitzaion iruditu, eta Espainiako Telefonica Fundazioko buruaren hitzak ezabatu zituen. Era batera bizi nuen nik ahozkotik idatzikora, bestela, berriz, nire testua inprentara bidean jarri behar zuenak.
Nork bere gisara zeharkatu ohi du ahozkotik idatzikora zubia.
Galderak egiten, materiala biltzen aurrera egin nahi nik, batetik, Lourdes Fernandezek denborarik ez egun hartan. Eta, denbora guztian, hantxe gurekin erran delako Santi Muñoz.
—Tira, bost minutu baino gehiago ez dauzkagu... (Lourdes Fernandezek esan zidana)
—Hau da hau! Beti horrela al da Madril honetan?
—Bada, bai, Madril horrelakoxea da. Hauxe da hemengo erritmoa. Batetik, zuk hots egin didazunean, Ifeman nengoen. Azken orduko eskutitz bat jaso dut, korapiloa bihurritu egin da, eta akabo. Bilera bat ordu erdi atzeratzeak dena atzeratzea dakar (…) *Zu hona etorri zara, baina halako artista ere hemen da eta bihar goizean berarekin gosaldu behar dut, kontua premia handikoa delako. Egia esan, dena da premia handikoa hemen... Azkenean, ahal duzuna egiten duzu.*
Horrekin etsiko dut, etsi nuen egun hartan, elkarrizketa hartan. Zenbait egoeratan, ahal dena egiten da. Edo esaera denez, ahal denean, dena; ezin denean, ahal dena.
Gogoan iltzatuta daramat –gurutziltzatuta, kasu honetan–, Lourdes Fernandezen elkarrizketa hura. Ahozkoak ez du beti berdin balio idatzizkoan.

EZ DA GAUZA ERRAZA, KIRI-KIRI-KEN

Zaila ere ez da. Deitzen duzu halako, hitzartzen duzue hitzordua, joaten zatzaizkio, jartzen diozu grabagailua parean, egiten dizkiozu galderak, biltzen dituzu erantzunak, itzultzen zara etxera, transkribatzen duzu, editatzen duzu, igortzen duzu dena delako hedabidera, publikatzen dute, eta kito, ordurako egina duzu hurrengo ariketa, ahozkoa idatzira beti edo gehienetan. Irakurleak ez daki zertzuk ibiliak dituzun hemendik hara eta handik honako 1.200 kilometroak egiteko, autoko kaiolan hamabi ordu baino gehiago egina, egona zarela hiru urte Vigora joan zain, Xose Luis

MIEL A. ELUSTONDO

Mendez Ferrin

HEGATS

«Elkarrizketatuak bere euskarara ekarri du idazle galegoaren mintzoa, baina eraman zezakeen etxeko euskara ez duenera ere.»

Mendez Ferrin handiarekin mintzatu zain, elkarrizketa halako uda batean egin eta ondokoan argitaratu duzula, elkarrizketa guztiz desmuntatuta duzula berriro muntatu aurretik, artean idazlearen atarian Donostiara deika ari zinela Mendez Ferrini egin beharreko elkarrizketa ontzen lagundu dizun euskal idazle bipilarekin azken orduko galderak zehazten… Beste eromen bat, ahotik idatzirakoan aztarnarik utziko ez duena –ezta sakela prekarioan ere, zulo galanta besterik–, arrastorik ez, argitzen ez diren askotariko hilketen modura. Aztarrenik ez, itzulpenean ere. Besterik gabe irakurri du balizko irakurleak. Jabetu ere ez da egin solasa itzulia dela. Badaki Xose Luis Mendez Ferrin ez zaiola elkarrizketatzaileari euskaraz mintzatu izan, baina ez du horretaz gogoetarik ere egin. Elkarrizketatuak bere euskarara ekarri du idazle galegoaren mintzoa, baina eraman zezakeen etxeko euskara ez duenera ere, nola egin baitzuen beste egun batean, Baztan aldeko haizeak jota, Carme Junyent hizkuntzalari eta Bartzelonako unibertsitateko irakaslearen ahozkoa idatzira ekarri zuenean.
Elkar ikuska finitzen ari, Carme Junyenten hondar solasak:
—Dena ongi doala sinetsi beharko bagenu bezala. Trantsizioaren hasmentan, %50ek zuten katalana lehen hizkuntza. Gaur egun, %36koa da zifra hori. Hamalau puntu egin dugu gibelerat 40 urtean, eta anitz da. Generalitatearen errolda datuek erraten dute, eta Bartzelonako Udalaren datuek ere ber gauza erraten dute, eta metropoliarenak... Etengabea da gibeleratzea. Zulu hizkuntzaren gainean solasean ariko bagina, pasatzen ari dena desagertze prozesua dela erranen genuke. Katalanaren gainean nola ari garen, ez. Datuak hor dira, gordin. Ez dira nik asmatuak.
—Gizartea aktibatu behar dela erraten ari dira gurean.
—Indiferenteak aktibatzea da beharrezko. Erratekoz, beti izanen da %15 bat hizkuntzaren militantez osatua, bertze %15 bat kontrarioz, eta %70, zatirik handiena, indiferentez osatua. Bada, %70 hori landu behar da. Militanteak hor dira beti, kontrarioekin ez da egitekorik, indiferenteak dira giltza. Hain xuxen, indiferentziak hiltzen ditu hizkuntzak, ez hizkuntzaren kontrako etsaigoak.

EZ DA GAUZA ERRAZA, KIRI-KIRI-KEN

Baina zaila ere ez.
Miresgarri zaizkit beren lanaren gainean behar diren zehaztapen guztiak, eta gehiago, emateko gai diren jendeak. Buruan ohi dituzte datuak, edo eskuan, eta erraz baliatzen dituzte, entzuleak sarean harrapaturik. Bistan da, ez dira gutxi. Han eta hemen ageri dira era horretako buru ongi jantziak, gozamena da haien jarduna bertatik bertara eta zuzenean jasotzea.
Nahiago nuke haiek bezain argi jardun ahalko banu, baina bateko lanak eta besteko lanak, beti lanak, ez dit uzten, ez dit bakerik ematen.
Eta, denbora izango banu ere, ez nuke xuxen jakingo esaten ahozkotik idatzira ibili behar izaten ditudan komeria kolore, tamaina eta gustu guztietakoak. Ez baita esaten gauza erraza. Errazago zait egiten, ahozkoa idatzirakoa zertan den azaltzen baino.

HITZAK, GORPUTZAK ETA TARTEAN GERATZEN DIRENAK

OIER GUILLAN

MIREN GAZTAÑAGA

Elkarrizketatuek aukeratu dituzte hitzorduaren xehetasunak: Miren Gaztañagak eguna (agenda betea), eta Oier Guillanek, berriz, lekua (Emausen egoitza berria ezagutu nahia). Hitzordua egiteko amua, ordea, elkarrizketatzaileak bota die: *Stereo* eta *Zauri Bolodia* abiapuntu hartuta, hitz beste egitea.

Testua: Danele Sarriugarte Mochales / Argazkiak: Sara Berasaluce

Oholtzan ezagutu zaituztegu biok baina, besteak beste, aurten liburu bana publikatu duzuelako ekarri zaituztegu orriotara. Hortixe hasiko gara. Miren, zer da hitza zuretzat, zure sorkuntzan?

Gaztañaga: Hamar mila milioi aldiz esan dudan moduan, niri gorputzarekin segituan ateratzen zait, nire bat-bateko tresna hurbilena gorputza da. Hitzarekin, ordea, askotan sentitzen dut beharrizan bat, obligazio bat izango banu bezala hitza sartzeko bai edo bai, eta *Stereo*n harreman hori izan nuen hitzarekin. Asko elikatu nintzen hitzetatik, irakurriz, baina gero neukan horrelako obligazio bat bezala: sartu behar nuela hitza zeren bestela ez zen ganorazko antzezlan bat, eta horrekin enfrentatu nintzen bere momentuan. Lan honetan galderak egin dizkiot nire buruari, eta Oierri ere esan diot: zergatik daukat bat-batekotasun hau gorputzarekin? Batetik delako nire erreminta, nire izaeraren parte edo nire ez dakit zer, baina egia da hitzari errespetu handia diodala, askotan igual handiegia… Zergatik diot halako beldurra esaten dudanari? Gorputzarekin askatasun gehiago ematen diot nire buruari bilatzeko eta esploratzeko, eta hitzarekin, berriz, beste pisu bat jartzen diot, presio gehiago izango banu bezala esaten dudan horretan asmatzeko.

Oier, zuri entzun dizkizut hainbat gogoeta antzerkia idazteari buruz, gatazkan bizi izan duzula, batetik, poesia idaztea bakarka eta, bestetik, testuak taldean idaztea ondoren oholtzan jokatzeko. Baina orain topatu duzula antzerkia idazteko modu bat.

Guillan: Sortze-prozesu bakoitza oso ezberdina da… Hala ere, ezer baino gehiago, ni idazle kontsideratzen naiz antzerki testuinguruan ere, hortik nator, hori da nire habitat naturala. Baina esperimentazio urte asko egin genituen Mikelazulon besteak beste, jolastu ginen asko formatuekin, errezitaldiekin eta abar, eta hitza momenturen batean guretzat hasi zen izaten zeozer fisikoagoa, ez bakarrik arrazoia eta kontzeptua, baizik eta ahotsa, jarrera, erritmoa, musika… Eta horrekin asko jolastu gara. Eta talde lana jorratu dugun heinean, eta talde kreazioa, nik beti tentsio bat sumatu dut testuarekin, nahiz eta testua maitatu eta hitza maitatu, joaten nintzenean talde batean lan egitera botere gehiegi zeukan hitzak, hau da diskurtso batekin eta argumentu batekin joaten bazinen, zerbait itxiarekin, hain justu zen berehalako kontraesan bat talde-lanarekin eta talde kreazioarekin eta norberak izan dezakeen sortzailearekin. Orduan kontzientzia hori hartu ahala sortu dira hitza desboteretzeko estrategiak baina maitasunetik, kendu gabe hitzari balioa zeren nik jarraitzen dut hitza maitatzen.

Adibidez, *Miss Karaoke*n baneukan 40-60 orrialdeko gidoi bat idatzia, eta aktoreei eman nien, irakurtzeko eta jakiteko *pedrada* hura nondik zetorren, baina gero egin genuen lehen gauza izan zen testua ahaztu eta bota, eta hortik abiatu. Beraiek egin zuten beren sormen-lan propioa nik botatako probokazio, poema eta testu txiki batzuen inguruan, baina inoiz jakin gabe zer gertatuko zen testuarekin. Deskubritu dut hori ere badela idaztea. Miren, zuk lehen esaten zenuenarekin lotuta, badago gehiegizko botere bat hitzarena, ematen du azkenean akonplejatu ere egiten zaituela momentu batzuetan…

Arrazoia da nagusi gure gizartean?

Gaztañaga: Hori da, gizartean arrazoiak daukan lekua… Pasa zenean nire mobida guztia, begira ze zalaparta montatzen den bat-batean esan duzun zerbaitegatik, zer pisu hartzen duen bat-batean horrek… [*Euskalduna naiz, eta zu?* programan egindako adierazpen batzuen harira jasan zuen jazarpenaz ari da.]

Oso interesantea da planteatzen duzun hori, nola kendu boterea hitzari eta nola ulertu hitza gauza gehiago ere badela, zeren orduan zure diskurtsoa ere aberatsagoa bihurtzen da, eta hurbiltzen da gehiago gorputzarekin lor ditzakegun gauza horietara. Askoz ere aberatsagoa da, bestela sententziak bezala bihurtzen dira hitzak eta, ez, modu honetan nolabait ere arrakalak zabaltzen dituzu eta zerbait zabalagoa da.

Miren Gaztañaga

«Gorputzarekin askatasun gehiago ematen diot nire buruari bilatzeko eta esploratzeko, eta hitzarekin, berriz, asmatzeko presioa jartzen diot.»

Guillan: Nire esperientziatxotik, kasu batzuetan izan da nola dagoen egituratuta dena, ez? Ematen du intuizioari buruz hitz egiten baduzu, edo sentimenduei buruz, emozioei buruz, zarela hippy bat, eta prestigioa kentzen zaio. Halakoak entzuten dira: «Ni gaztea nintzenean egiten nuen horrelako antzerkia, orain egiten dut antzerki profesionala eta egiten dut testuarekin». Baina iruditzen zait horren atzean badagoela gizartearen egitura bat, eta beldurra ematen dit hitza ateratzeak, baina da oso modu maskulinoa… zentzu txarrean.

Gaztañaga: Patriarkala.

Guillan: Bai, hori da. Baloratzen da mezua, arrazoia.

Gaztañaga: Segurtasuna, diskurtso itxia.

Guillan: Autorea bilakatzen da patriarka, azken batean, jefea, agintea daukana eta besteok errespetatu behar dugu idatzi duen guztia hitzez hitz, eta nik ideia horrekin arazo bat daukat.

Gaztañaga: Nik ere arazo handia daukat horrekin.

***Stereo* publikazioaren prozesura itzulita, Oier, EHAZEren argitalpen-bilduman zabiltza, eta Mirenekin ere aritu zara lanean. Esan daiteke antzerki-argitalpen tradizionaletatik urrundu zaretela. Nola abiatu zen asmo hori?**

Guillan: Alde batetik, badago nolabaiteko gatazka bat, gatazka zentzu kreatiboan: antzerkiaren testuinguruan gatazka historiko bat egon da autore-teatroaren eta beste teatro mota batzuen artean. Hain zuzen ere, beste teatro mota batzuek daukaten arazo edo erronketako bat da transmititzen zailak direla. Hau da, autore-teatro testua hor geratzen da, paperan edo digitalean edo… Beste lan mota batzuen kasuan, ordea… EHAZEren kezka hortik zetorren, nola egin beste era bateko lan horiek liburutan jasotzeko nahiz eta libururako pentsatuak ez izan, nola

Oier Guillan

«Gure talde-prozesuetan, hitza desboteretzeko estrategiak erabili ditugu, baina maitasunetik, kendu gabe hitzari balioa, zeren nik jarraitzen dut hitza maitatzen.»

HEGATS

eraman beste dramaturgia batzuk paperera, ez liburu-formatua eta papera sakralizatzeagatik, baizik eta transmititzeagatik. Niri hori askotan gertatu zait, pena handia eman izan didala niretzat behintzat inpaktanteak izan diren antzezlanak edo ikusle bezala asko eragin didaten lanak beste belaunaldi batzuek ezin ikustea. Transmisioa ez da bakarrik jakiteko zer egin den, balio du baita ere egin denaren kontra eginez ikasteko.

Beste adierazpide batzuetan errazagoa da transmisio hori?

Guillan: Literaturan idazle berri bati esan diezaiokezu: irakurri situazionistak, irakurri ez dakit zer; eta ikusten duzu, ikasten duzu, eta bizirik dago, zeren liburua da bere jatorrizko formatua, baina antzerkiarekin ezin da hori egin. Miren, zu adibidez Antzerkiola Imajinarioan egon zara, niretzat erreferentea izan zen, inpaktu estetiko bat, kreatiboa, humanoa, funtzionamenduaren aldetik… Eta, ai!

Gaztañaga: Zer efimeroak garen.

Guillan: Pena ematen dit. Igual horrela izan behar du, e? Eta *Stereo*rekin niri antzeko zerbait gertatu zitzaidan. Izan zen pieza bat jada duela hamar urte ikusi nuena eta niretzat inpaktantea izan zen eta eragin zidan zerbait. Eta jakinda oraindik martxan zegoela, tarteka izanik ere, ba oso interesgarria zen, eta oso pieza aproposa esperimentu bat egiteko liburu formatuan, zeren benetan hor oso testu gutxi dago.

Gaztañaga: Niretzat oso esanguratsua izan da, Oier, zu liburuaren prozesu horretan egotea, proposamen horretan, kontzientzia handiarekin egin duzulako. Liburua egiteko proposamena onartu genuenean, kontua izan zen bilatzea modu bat ahalik eta zintzoena horri forma emateko eta hori izan zen niretzat esparru arrotz bat, liburu bat sortzearena, baina era berean izan zen oso gustagarria ikustea hor bazegoela sorkuntza-prozesu bat. *Stereo* liburuak gauza asko ekarri dizkio bai lan-taldeari bai piezari berari. Hirugarren bizitza bat.

Miren, Kamikaz kolektiboa osatzen duzu Amancay Gaztañaga eta Erika Olaizolarekin batera. Hain justu ere Uxue Alberdiren ipuin-liburu bati tiraka osatu zenuten lehen lana: *Euli giro*. Zer izan zen zuentzat Alberdiren obra?

Gaztañaga: Guk irakurri genuen liburua eta euli-giro horrekin gelditu ginen. Eman zigun atmosfera bat, eta liburuaren interpretazio bat egin baino, gure euliak atera genituen…

Guillan: Hala ere asko aldatu da *Euli giro* ere, ezta?

Gaztañaga: Oso funtzio gutxi egin ditugu, igual hiru. Eszenan lan egiten dugu eta gure apustua da honetaz bizitzea, baina egia da *Stereo*rekin eta *Euli giro*rekin, biekin, eman diodala nire buruari sorkuntza askeago baten plazera, eta Erikak eta Amancayk ere berdin. Urrundu gara produktibitatetik, urrundu gara distribuzio-behar batetik edo funtzionamendu behar batetik. Igual ez diogu etekin ekonomiko sekulako bat atera lanari, baina izan da plazer bat sortzaile bezala hortik aldentzeko aukera izatea, ulertzen? Zer gertatzen da momentu batean produktibitate dinamika horretatik ateratzen banaiz zerbaitekin? Lehen aipatu dugu zer garrantzitsua den guretzat sorkuntza-prozesua bisibilizatzea, baina nik pentsatu izan dut niri gehiago tiratzen didala sorkuntza-prozesuak berak gero lana taulan erakusteak baino.

Oier, hitza beste modu batean agertzen zaigu *Zauri Bolodia*n, beste helburu batekin erabilia, akaso bere erabilerarik arruntenean: ideiak, oroitzapenak eta abarrak biltzeko. Egunerokoak idatzi al dituzu beti? Nolatan erabaki zenuen azkenean hau publikatzea?

Guillan: Nik egunerokoa asko maite dut eta sortze-prozesuetan oharrak hartzen ditudan bezala idazten dut egunerokoa, modu erlaxatuan eta publikatzeko inolako asmorik gabe, askoz libreago. Kuriosoa da, liburu hau definitzeko komeriak izan ditugu-eta, zer den eta zer ez den. Hortik zehar nobela jartzen du, beste leku batean ez dakit zer. Igual zait, egia esan. Baina niri iruditzen zait antzerki-liburu bat dela batez ere, nahiz eta eguneroko forman idatzita egon. Nola hain den garrantzitsua guretzat sortze-prozesua, orduan antzerki-liburu bat da niretzat, zentzu horretan.

Amaitu beharrean gaude… zer opa diozue zuen liburuei edo/eta nola sentitzen zarete orain zuen kreaturekiko?

Gaztañaga: Niretzat oso bitxia da liburuaren sentsazio hau, zeren egia da bat-batean liburu hau norbaiten etxean egon ahal dela, ohean dagoela, bere momentu intimo batean…

Eta zu ez zaude hor!

Gaztañaga: Eta ni ez nago hor. Izugarria da hori. Oier, zuk alderantzizkoa planteatzen zenuen *Zauri*n: imajinatuko zenukete liburu bat irakurtzen amaitzean, bat-batean, irakurlea txaloka hastea eta agertzea idazlea? Harreman ezberdinak dira. Pila bat aldatzen da harremana zeren ni ez nago ohituta harremantzen sorkuntza-objektu edo emaitza batekin, eta era berean asko gustatu zait zeren bizpahiru pertsonak idatzi didate eta esan didate: jo, Miren, lagundu dit zeren sentitu dut tresna izan dudala liburua, sorkuntza-prozesu batean inspirazio-iturri, edo isla bat non zu ere errekonozitzen zaren… Hori izan da niretzat sorpresa bat eta azkenean zentzua eman diona liburua egiteari.

Guillan: Nola sentitzen naizen liburuarekiko orain? Pozik nago, zeren jaso dut feedback asko eta ez da erraza izaten liburuekin, eta antzerkian gabiltzanok normalean faltan dugun zerbait da, publikoaren berehalako erantzuna, laguntzen dizu hazten eta ikasten. Ni oso zorteko sentitzen naiz zentzu horretan, esker oneko irakurri duen jendearekiko eta gauzak esan dizkidan jendearekiko. Objektuarekin gustura, Idoiaren [Beratarbide] lana aipatzearren, zeren askotan ez da aipatzen. Ni nire buruarekin nekatu egiten naiz, eta idatzitakoarekin are gehiago, baina objektuarekin oraindik ez naiz nekatu, oraindik noizean behin ireki dezaket eta ikusi eta disfrutatzen dut. Eta gero dibertitu naiz, baina bueno, bukatu da jolasa. Nik nahiko gatazka izan dut beti agerpen publikoekin eta iritzia ematearekin, defendatzearekin liburua… Kasu honetan hartu dut antzezlanaren parte bezala, eta bihurrikeriatan ibili naiz, neure burua lasaitzeko-edo, ibili naiz pixka bat pertsonaia jokatzen elkarrizketetan, izan da esperimentu bat eta ondo pasatu dut, igual lehendabiziko aldiz nire bizitzan liburu batekin, baina bukatu da. Egin dugu txoroarena pixka bat, eta kito.

LAURA RUIZ SAENZ
NORA AURREKOETXEA
2018





Te veo amarillo
Pero eres azul



alors pourquoi est-il si vital que l'amour soit prononcé?

Tu me manques

Hori kolorekoa
zaitut
baina urdina
zara

Comme vous ne pou
vous demander ce q
de moi

ferais mieux de

GAS

GASOLINA

Lit elastique

le jaune
Mais tu es
bleu

IR
RI

Essence

IRUDI - GLOSARIOA:

1. Serigrafia. Bilbo, 2018ko apirilak 20.
2. Irudi Artxiboa. Bilbo, Iruña, Lesaka eta Gernika. 2018ko uztaila eta abuztua.
3. "*Baina urdina zara*" Paris, 2018 uztailak 22.
4. "*Jo ta zu*" collage digitala. Bilbo, 2018ko abuztua.
5. Liliak eta zinta itsaskorra. Bilbo, 2018ko otsaila.
6. "*Hori kolorekoa ikusten zaitut. Irri*" notak. Paris, 2018.
7. "*The fall…*" marrazkia. Londres, 2018.
8. "*Dominator*" Bilbo, 2018ko abuztuak 4.
9. Serigrafia. Bilbo, 2018ko apirilak 20.
10. *"Gas Gasolina*" notak. Paris, 2018ko abuztua.

Materialak edo objektuak gainjarrita, eskultura.
Argazki, hitz eta screenshot-ak, distantzia.
Km-ak.
Tentsioa. Jolasa.
Ekintza. Eta orain zer?
Ostean gaude. Erdi-erdian. Ziurgabetasuna, inmaterialtasunak uzten duen tokian.
Oroimena oinarri, oroimena kanpo.

‘SINADURAK’ ATALA, AHOTS ETA GAI BERRIEN TARTEA

Hitzen Uberan aberastu nahian, ahots ezberdinei eta gai berriei eman diogu sarrera. 2018ko urtarriletik hona, Euskal Idazleen Elkarteko bazkide diren kolaboratzaile talde bat hasi da *uberan.eus* web orrian idazten.

Urte hasieran, Hitzen Uberanetik proposamen bat helarazi genien Euskal Idazleen Elkarteko (EIE) bazkideei. Lau kolaborazio mota eskaini zitzaien: autore elkarrizketak, autore erreportajeak, iritzi artikuluak eta sormen lanak. Oso harrera ona izan zuen gure eskaintzak eta, ordutik hona, EIEko bazkide diren kolaboratzaile talde bat ari da uberan.eus web orrian parte hartzen.

GARAI BERRI BAT

Hitzen Uberanek martxan daramatza zazpi urte. Sinadurak atalaren bitartez, etapa berri bati ekin diogu. Azken urteetan hiru kazetariren artean banatu ditugu uberan.eus atariak eskatzen dituen lanak, orain abiatu dugun etapa honetan bi kazetari ari gara kolaboratzaile sare batekin elkarlanean.

LAU KOLABORAZIO MOTA

Interesa agertu duten bazkideak jarri ditugu lanean, txandakako sisteman. Izena eman duten guztiek, beraz, kolaboratzaile izateko aukera izango dute. Modu errotatiboan ari dira parte hartzen.
Lau dira eskaini zaizkien kolaborazio-motak:
Autore elkarrizketak: idazleek idazleei eginiko elkarrizketak, sinatuak. Elkarrizketa sakonak, ostiralero plazaratzen ditugun modukoak.
Autore erreportajeak: gai bat sakontasunez aztertzeko txokoa. Aktualitatezko gaiak, ikerketak edota idazleen grinei loturiko gaiak. Danele Sarriugarte, Goiatz Labandibar, Jon Martin, Mikel Ayllon, Uxue Alberdi eta Ibai Atutxak eginiko elkarrizketak zein erreportajeak batu ditugu orain arte.
Iritzi artikuluak: literaturari buruzko zutabe laburrak. Patxi Zubizarreta, Pako Aristi, Aurelia Arkotxa, Fito Rodriguez, Maite Toledo eta Jon Eugiren sinadurak jaso ditugu atal honetan.
Sormen lanak: poema sortak, ipuinak, saiakera literario laburrak... Juan Ramon Makusok eta Iratxe Ormazak euren gogoetak partekatu dituzte.

EKIMENAREN HELBURUA

Proposamen berri honekin helburu hauek ditugu jomugan: batetik, Euskal Idazleen Elkartean dagoen bazkideen sarea indartzea, eta sare horren ahotsaren aniztasunak bere isla izatea Uberanen. Bestetik, Hitzen Uberanen ekarpena aberastu ahots ezberdinen eta gai berrien mosaiko batekin.
Sinadurak ataleko idazlan guztiak uberan.eus/sinadurak helbidean topatuko dituzue. Mikel Ayllonek irakurzaletasunari buruz idatzi zuen erreportaje hau izan bedi ‘Sinadurak’ atalaren erakusgarri.

IRAKURRI, IRAKURRI MADARIKATUÁK!

Karmen, Amaia, Begoña, Andrea, Itsaso, Irati, Aintzane. Izan litezke kosmonauta, meatzari, tabernari edo taxista. Eta, akaso, hala izango dira, ez dakigu. Denak ala denak irakurle direlako eseri gara gu haien aurrean, eta rec botoia sakatu dugu, hain gutxitan entzuten diren irakurleen ahotsak grabatzeko.

Mikel Ayllon

Irakurlea oso presente dago literaturaren ekosisteman. Idazten duen bitartean, idazleak buruan erabiliko du beti, eta haren ahots-tonua imitatuz irakurriko ditu boz gora idatzi berri dituen paragrafoak, balekoak diren ala ez asmatu nahian. Editoreak ere maiz hartuko du ahotan, idazle aldrebesari gogorarazteko, irakurleak beste zerbait nahi duela, eta idazle finari esateko, irakurleak beste zerbait nahi duela. Liburu-saltzaileak ahaleginak eta bi egingo ditu irakurleak arrantzatzeko, nobela bat saltzeko, kasik beste nobela bat ematen duen marketin-ariketa ezinezkoen bidez.

Halakoxe izaki misteriotsu bat dira irakurleak, itzalpe moduko batean bizitzera kondenatuak. Inork ez daki ondo nor diren, idazleek, editoreek edo liburu-saltzaileek asmatu dizkieten ahots, gustu eta istorioetatik harago zein jaka jantzi, zein fruta jan edo zein liburu maite duten.

Eta, hala ere, beti daude denon ahotan.

MUNDU GUZTIA DA ARTISTA

Inongo plaza edo kalek ez darama irakurle baten izenik. Ez dute estatuarik. Eskuak burura eramaten ditugu, noizean behin, azterlanen batek zein gutxi diren esaten digunean. Erakundeek irakurzaletasuna bultzatzeko plantak egiten dituzte sarri, baina gogo eta baliabide urriz. Gure gizartearen norabidea, baina, beste bat dela iradokitzen digute ***Boris Groys*** filosofo eta arte kritikariaren hitzok: "Gaur egun, mundu guztia da artista, mundu guztiak nahi du zerbait esan, zerbait idatzi, Interneten zerbait eskegi. Mundu guztiak nahi ditu gauzak egin, baina inork ez dauka ez interesik ez denborarik gauza horiei begiratzeko".

Begoña Ramirez Borisen iritzi berekoa da, "gizartean, oro har, hala gertatzen dela ematen du, mundu guztiak izan nahi duela ipuinaren izarra eta gutxi interesatzen zaigula ondokoen errealitateak ezagutzea. Baina ni baikorra naiz eta, zorionez, denetik dago. Gazte asko eta asko oso konprometituta ikusten ditut, entzuteko gogoz". Begoñak pilatuta ditu motxilan urte batzu-bazuk eta irakurritako liburu mordoxka bat. Eta, halakoetan, ohikoa izaten da begirada gazteengana itzultzea. Itsaso Vazquez gaztearengana, esate baterako, unibertsitateko testu-liburuen eta liburutegian hartutako liburuen artean bizi dena. "Jendea ez da hain espezial sentitzen, haien burua bakarrik goraipatzeko eta besteena ez ikusteko. Esango nuke badugula interesa besteek zer egiten duten ikusteko".

Ukaezina da, hala ere, gure gizartean dagoen nabarmenkeriarako joera. Nor izateko, ezinbestekoa da telebistan agertzea, edo youtuben, edo twitterreko izarren artean. Esatea, ez entzutea. Beldur eta zalantza batzuekin bada ere, liburu bat idaztea ere gehi geniezaioke zerrenda horri. Eta, beldur eta zalantza barik, liburu bat irakurtzea ez genuke sekula zerrenda horretan sartuko, inor ez baita horregatik famatzen. Nolanahi ere, kultur munduaren zutabea da ikuslea, irakurlea. "Irakurlerik gabe ez dago literaturarik, hori argi dago. Jakina, idazlerik gabe ere ez. Zalantzarik ez dago euskaraz irakurleak behar ditugula. Idazleak ez dakit, baina irakurleak, bai". Irati Marañonek argi dauka bera bezalako ehunka, milaka irakurle behar ditugula.

Gaur egungo irakurle gutxi horien artean orduak eta orduak ematen dituena, aldiz, Andrea Aiape da, liburuzaina, eta, beharbada horregatik, irakurlea aho-bilorik gabe babesten sendoena: "Irakurlearengan maiz konplexu moduko bat dago, eta uste du berak ez daukala mailarik segun eta zer gauzez hitz egiteko. Kultur munduan erabiltzen diren diskurtso hanpatu horietaraino salto handi bat dago, eta jendea ez da ausartzen bere iritzia ematera. Zenbat pertsona daude Euskal Herrian literaturari buruz hitz egiten dutenak publikoki? Hamar, hamabost…? Pena bat da niretzat."

ZENBAT GERA?

Entzun dezagun, bada, irakurleek zer duten esateko. Baina, ezer baino lehen, saia gaitezen gure solaskidearen soslaia egiten. Udaberriarekin batera etorri zen Siadecok Elkarrentzat egindako azterketa, kultur kontsumoa aztergai zuena. Eta, negu luzetik esnatzen diren loreek ohi duten moduan, akaso emozio larregiz, euskaraz irakurtzeko ohitura dutenak 172.000 direla esan zigun. Puztuxea ematen du datuak. Eskolan behartutako irakurleak kenduta, herenarekin geratuko ginateke. Eta hala ere. Duela sei urte, 12.000 irakurle kalkulatu zituen ***Jon Alonsok***, 10.000 inguru, berriz, ***Iban Zalduak***.

"Euskarazko irakurleak, oro har, emakumeak izaten dira, 50 urtetik gorakoak gehienak, eta, normalean, eleberria aukeratzen dutenak. Eta umeak, noski. Euskaraz gehien irakurtzen dutenak, nabarmen, umeak dira. Gazte batzuk Institutuan agindu dizkieten liburuak hartzera etortzen dira liburutegira, liburuak erostea ez baita merkea. Ume asko ere badatoz, baina, gero, gaztaroan galdu egiten ditugu. Beharbada, ez diegu behar duten hori eskaintzen: ez daukagu haientzako espazio bat, haien materialak ganoraz antolatzeko. Beraz, ez da leku erakargarria haientzat". Datu hotzak liburutegiaren berora ekarri dizkigu Andreak.

Liburutegian arratsalde bat igarotzea aski da bere hitzak baieztatzeko. Adineko emakumeak nagusi. Irakurketa, funtsean, barrura begira egiten den lana da, bakarka, eta, esan berri dugun moduan, distira publiko gutxikoa. Emakumezkoaren kategoriari atxiki dizkiogun ezaugarriak, bete-betean. Luzeak

> «Euskarazko irakurleak, oro har, emakumeak izaten dira, 50 urtetik gorakoak gehienak, eta, normalean, eleberria aukeratzen dutenak.»

dira patriarkatuaren atzaparrak. Eta ez da kasualitatea, halaber, adinekoak izatea, behin zaintza-lan gogorrenetatik libratuta (funtsean, seme-alabak haztea), orduantxe eskaintzen baitiote berriro irakurketari haien denboraren zati handi bat. Aintzane Egilior zaku horretan sar genezake, eta haren begiek irakurri dituzten ehunka liburuei esker, gainera, begirada zorrotzari eutsi dio: "adineko gizonen fokua arrakasta profesionalera bideratuta dago, edo ariketa intelektualera, batez ere haien buruak nabarmentzeko, eta hor jartzen dute libido guztia. Irakurtzen badute, helburu horrekin irakurtzen dute."

Guk ere, ***Benito Lertxundik*** kantatu bezala, ez daukagu oso argi zenbat geran. Baina ez diogu beldur handiegirik gutxi izateari, horrek esan nahi baitu, bidean aurrera eginez gero, asko izan gaitezkeela.

IRAKURRITAKOAZ HARRO

Baina jo dezagun hasierara. Zeintzuk dira irakurleak egingo duen bidaia luzea abiarazten duten lehenengo urrats txikiak? Karmen Zabaletak, twiterren txio-txioka ere badabilen irakurleak, eman dizkigu hastapeneko argibideak: "Eskolako azken urteetan hasi nintzen irakurtzen, batez ere herriko liburutegian hartutako liburuak. Gurasoek oinarrizko ikasketak egin zituzten, baserrigiroan bizi ginen, eta etxean ez zegoen libururik ni haurra nintzenean. Hala ere, amak ipuinak eta kondairak kontatzen zizkigun beti. Hori ere literatura da, noski, eta ziur nago eragina izan duela nigan. Lehen, etxe gehienetan ez zegoen libururik, ez bada burgesen etxeetan. Nire kasuan, beraz, nire kontura egindako prozesu bat izan da".

Karmenen bizipenek beste hainbat irakurleren bizipenekin bat egiten dute. Bide antzekoa ibili du Amaia Aldamizetxebarriak ere bai. Bere kasuan, gainera, jaio zen unetik beretik literaturarekin lotuta egon da. "Nik beti irakurri dut, eskura nuen edozein gauza. Irakurle orojalea izan naiz, eta beti gustura. Etxean ez zegoen liburu askorik. Gainera, egun batean, halako zoro-haize batek jo zuen aitona, eta etxeko liburu guztiak erre zituen korralera aterata. Neba nagusiak bat libratzea lortu zuen, ertz guztiak erreta, eta liburu hori etxean gordeta daukat oraindik" esan digu harro, irakurle guztiek barruan daramaten fetitxista ezkutatu gabe. "Jaio nintzenean, aitak irakurrita zeukan *Amaia o los vascos en el siglo VIII*, eta horregatik naiz ni Amaia".

Aintzanek barnetegian ikasi zuen, baina jakin zuen zorroztasun eta iluntasun haren erdian bere bidea aurkitzen "***Enid Blyton***-en *Santa Clara* edo *Torres de Malory* bildumako liburuak hartzen nituen liburutegian. Barnetegian, bederatzietan argiak itzaltzen zituzten, eta logelan sartuta egon behar genuen, ilunpean. Baina ni izaren azpian sartzen nintzen, argitxo batekin liburu horiek irakurtzera. Geroago etorriko ziren ***Jean Eyre***, ***Emily Brontë*** eta halako literatura erromantiko ona, eta gaztetan, hippyagoa nintzenez, ***Jack Kerouac*** eta halakoak irakurtzen hasi nintzen".

Irakurtzeko grinak ez du mugarik, begien bistakoa da. Gure irakurleen artean, bada krimena aitortu diguna ere: "***Roal Dahl*** eta ***Michael Ende*** asko gustatzen zitzaizkidan gaztetan. *Charlie y la fabrica de chocolate* eskolako liburutegitik eraman nuen, eta ez nuen sekula itzuli". Badaezpada, ez dugu haren izenik esango. Baina bidea ez da beti hain arantzarik gabea izaten. Begoñak gogoan dituen irakurritako lehenengo liburuak eskolan agindutakoak izan ziren, "hala ere, zorionez, laster zaletu nintzen".

Itsasoren bidea arantzatsuagoa izan zen: "Hasiera batean, nahiko behartuta irakurtzen nuen, agintzen zizkidaten liburuak-eta. Izugarri kostatzen zitzaidan irakurtzea. Oso pixkanaka zaletu nintzen, eta, orain, unibertsitatean, literaturako ikasgai denak hartu ditut, nik hala nahi izanda. Nola edo hala, inposizio horrek balio izan du zaletzeko". Inposizioaren ondorioz, irakurtzeko gaitasuna handitzen dela uste du Itsasok, eta gero eta gusturago irakurtzen duzula. "Umetan liburu bat irakurtzea asko kostatzen zitzaidan, eta orain gusturago hartzen ditut."

Bidea bata ala bestea izan, ematen du helmuga beti dela antzekoa. ***Jorge Luis Borgesen*** hitzak erabiliz, "idatzi duten horretaz harro egongo dira batzuk, baina ni irakurritakoaz nago harro".

> «Gurasoek badute erantzukizuna, baina irakasle batzuek ere ardura handia daukate irakurzaletasuna bultzatzeko lanean.»

IRUDIMENAREN ETA MEMORIAREN LUZAPENA

Behin honaino iritsita, ez diezaiogun iskin egin korapilo handienetako bati. Nola piztu liburu-zaletasuna. Erakundeek, noizean behin, espedientea betetzeko kanpaina gutxi-asko distiratsuren bat edo beste egiten dute. Baina liburutegiak izaten dira gerra honen fronte nagusietako bat, Andrearen esanen arabera, gogo handiz, baina baliabide urriz. "Ipuin-kontalariak, literatura tailerrak gazteentzat, egun seinalatuen inguruan material bereziak, eskolei liburutegia ezagutarazteko ekintzak... horiek guztiek eragina daukate, noski. Batez ere iraupen luzea duten eta familia-giroan egiten diren ekintzek. Dena dela, gure aurrekontuekin oso zaila da jarduera gehiago eta ganorazkoagoak egitea."

Iratik eskola eta institutuetan jarri nahi izan du fokua, kezkatuta baitago bertan gertatzen denarekin. "Gurasoek badute erantzukizuna, baina irakasle batzuek ere ardura handia daukate gai honetan. Irakurzaletasuna bultzatzeko mugimendu bat antolatu beharko lukete, eta pedagogia handia egin. Baina sentsazioa daukat beti gomendatzen dituztela autore berberak; betiko hiruzpalau egileekin bueltaka dabiltza, eta horrela ezinezkoa da". Iratiren iritzia indartzera dator Karmenen esperientzia, eskolan izandako irakasle bat izan baitzen haren irakurzaletasunaren abiapuntua, "***Federico García Lorca***, ***Antonio Machado*** eta beste hainbat klasikoren testuak irakurtzen genituen, eta hura niri izugarri gustatzen zitzaidan. *(…) la luna vino a la fragua con su polison de nardos*, mesedez!, edertasun bat zegoen erromantze hartan. Gero, institutuan ere oso irakasle on eta irakurzaleak izan nituen".

Institutuan dituen semeekin kezkatuta dago Aintzane, haren aburuz, liburuak irudimena garatzeko ezinbestekoa den fantasiaren iturburu baitira, "eta nik ez dakit nondik demontre jasoko duten haiek fantasia hori. Gainera, gu narrazio linealak irakurtzera ohituta gaude. Orain, gazteek esteken bidez irakurtzen dute, jauzika, eta liburuak, eskolan agindutakoak besterik ez. Hutsaren hurrengoa da hori. Auskalo nora eramango gaituen bide honek". Antzeko bidetik jo du Karmenek ere, konbentzituta baitago jendeak asko irakurtzen duela, "baina ez literatura. Sare sozial batean ibiltzen den jende gehienak gauza ugari irakurtzen ditu egunero, baina askotan testu laburrak eta azalekoak izaten dira. Horregatik hain zaila egiten zaie askori nobela bat leitzea". Begoña ahalegindu da ikuspegi positiboa eransten: "Hala da. Guk, irudimena eta fantasia garatzeko, liburuak besterik ez genituen garai batean. Oraingo gazteek beste hamaika kanal dituzte, eta, beharbada, hortik lortzen dute egarri hori asetzeko behar duten ura".

Ohi den moduan, bideak hamaika eta helmuga bakarra. Bidegurutzean, sobera ez galtzeko, Jorge Luis irakurle harroaren hitzetara jo dugu berriro, eta han aurkitu liburuaren benetako neurria. "Gizakiak asmatu dituen tresna guztien artean liburua da harrigarriena; beste guztiak bere gorputzaren luzapenak besterik ez dira... liburua da irudimenaren eta memoriaren luzapena den bakarra".

LIBURU ON BATEKIN OHERATZEA

Bide berari segika bada ere, Amaiak beste itxura bat hartu dio liburuari. "Liburuak txerriak bezalakoak dira, den-dena aprobetxatzen da. Denetik aurkituko duzu liburu batean: esaldi eder bat, bizitzan sekula ezagutuko ez dituzun pertsonaiak, istorio zoragarriak… beti dago zerbait". Behin hona iritsita, inozoa ematen du galderak, baina pertinentea balitz bezala bota dugu, badaezpada. "Zergatik irakurtzen dudan?", zer galdetzen ari den ez dakienari oparitzen den begirasun zorrotzaz begiratu gaitu Amaiak. "Eta zuk zergatik arnasten duzu? Pareko galdera da. Nik beti irakurri dut eta nire bizitzaren parte da". Kosta egin zaigu arnasa berriro hartzea.

Hil ala biziko kontua da arnasarena. Hain urrutira joan gabe, baina, irakurketaren balio kasik terapeutikoa azpimarratu nahi izan du Begoñak, harentzat liburu batek bizitzen laguntzen baitu. "Bizitzan, batzuetan, hutsik sentitzen zara, eta liburu batek bete dezake hutsune hori. Bidaia bat proposatuko dizu, atakatik ateratzeko norabide bat eskaini... Bizitza zabalagoa da literaturari esker." Eta animaliak ekarri ditu berriro grabagailura. "Liburuaren egunean, hainbat idazleren esaldiak jarri zituzten liburutegian, eta ***Miren Agur Meaberenak*** deitu zidan arreta: liburu bat altzoan hartzen duzun katu bat da". Miau.

Hagitzez funtzionalagoa dela aitortu digu Itsasok, haren irakurketa gehienak unibertsitateko ikasketekin lotuta egoten baitira. "Nik ez dut askorik irakurtzen plazeragatik. Benetako gertaeretan

> «Liburuak txerriak bezalakoak dira, den-dena aprobetxatzen da, eta denetik aurkituko duzu bertan.»

EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

«Bizitza tristeagoa izango litzateke libururik gabe, hotzagoa, eta zuri-beltzean ikusiko genuke mundua, aterperik batere gabe.»

oinarritutako liburuen bila ari naiz beti, benetako zerbait eman eta zer edo zer ikasaraziko didatenak". Haren gaztetasuna delaeta, ITSASO ez da izan ate bat itxi berri duen euskal gatazkak azken urte luzeegietan eman dituen gertaera askoren lekuko zuzen, "baina literaturari esker, euskal gatazkan jaso diren gauza askotaz jabetu ahal izan naiz, dagoeneko iraganekoak direnez, teleberrian ematen ez dituztenak".

Faltan botatzen ariko zarete zenbait erantzun tipiko. "Bi topiko botako ditut", abisatu digu IRATIK, "batetik, irakurtzen asko ikasten dut; eta, bestetik, literaturak beste errealitate, egoera, espazio, denbora batzuetara hurbiltzeko aukera ematen dit". Baina ezin izan dio barruko bulkadari eutsi, "...eta zoriontsu egiten nau. Zoriontsu egiten nauten gauzen zerrendan oso goian dago irakurtzea. Hori bai, tamalez, nahi baino gutxiago irakurtzen dut. Egunero pixka bat irakurtzen ahalegintzen naiz, hala ere, ohean, lokartu aurretik".

Joseba Sarrionandiak gaztigatu digu berriki: "Ohera zaitez liburu on batekin edo, behintzat, liburu on bat irakurri duen batekin". Zalantzarik ez dago ohea dela irakurlearen territorio libre nagusia, baina ez bakarra. Gure irakurle guztiek aldean daramate beti liburu bat, eta nonahi ateratzeko kapaz dira, mugikorren pantailak itsututa dagoen jende oldearen artean, berdin trenean, autobusean, kafetegian edo, AMAIAK bezala, baita ortuan ere: "nekatzen banaiz edo eguzki lar badago, hantxe atseden hartu eta liburua ateratzen dut".

Zein ez da, noizbait, kale erdian liburu bat eskutan duela, frankotiratzaile sentitu? Gauza jakina da fusildun tiratzaileak otso bakartiak izan ohi direla, liburudun tiratzaileak legez, nahiz azkenaldi luzean elkartzen ere hasi diren, irakurle-taldetan. Liburudun tiratzaileak, jakina. "Irakurle bakoitzak irakurtzeko bere modua dauka, bere ideiak, bere ikuspuntuak", eta horiek denak partekatzea oso gustagarria zaiola kontatu digu BEGOÑAK. "Horrez gain, argitaratzen diren liburuen berri izateko ere balio du". Egile berriak ezagutzeko aukera izan du IRATIK irakurle-taldeari esker, "beste hizkuntza batzuetan idazten dutenak euskaraz irakurri ditut, eta euskaraz idatzi eta nik ezagutzen ez nituen autoreak deskubritu ditut. Denek bezala, nik ere baditut nire idazle kutunak, ***Eider Rodriguez*** edo ***Xabier Montoia*** kasu, baina beti da ederra beste ahots batzuk aurkitzea".

IRAGANA ETA ETORKIZUNA

Bidearen amaierara iritsi gara. Erreta ditugu begiak hainbeste irakurtzeaz, eta kasik azken hatsa ematear da grabagailuaren memoria. Bide amaiera guztietan bezala, eseri eta (liburua atera aurretik) atzera begiratzeko unea da. AMAIAREN aitonarenganaino itzuli ditugu begiak, eta korralean sutara bota zituen liburuen erre-usaina heldu zaigu sudurrera. Krudelak izatea erabaki dugu. "Liburu guztiak erreko balituzte, ba... pena handia hartuko nuke, baina nola edo hala moldatuko nintzateke". ITSASOREN iritzi berekoa da IRATI ere: "Orain esan dezakegu ez dugula gure burua imajinatzen libururik gabe, baina topatuko genuke liburuak ordezkatzeko beste zerbait. Esango nuke ahozkotasunera joko genukeela. Hori bai, ez litzateke gauza bera izango, inondik inora". Gazteak dira oraindik Itsaso eta Irati, eta igual horregatik uste dute liburuek ireki dizkieten zauriak itxi egin daitezkeela.

Sekula ixten ez diren zauriak oraindik irekita hitz egin digu AINTZANEK. "Bizitza tristeagoa izango litzateke libururik gabe, hotzagoa. Zuri-beltzean ikusiko genuke mundua, aterperik batere gabe. Liburuek hausnartzera bultzatzen gaituzte, eta horrela garatzen dugu ikuspegi kritikoa. Hortik atera kontuak zernolakoa litzatekeen mundua libururik gabe". Ez dugu irudimen ariketa izugarririk egin behar. ***Ray Bradburyk*** egin zuen guregatik. Haren *Fahrenheit 451* ireki besterik ez dugu erre-usaina sudurreratzeko. Hark esana da: "libururik gabe zer daukagu? Ez iraganik, ez eta etorkizunik ere".

Ke artean azkar mugitu beharra dago, irtenbide bila. Argi dauka AMAIAK: "Nik liburuak behar ditut. Libururik gabe nire bizitza ez litzateke bizitza izango", eta, ahozkotasunaren hariari tiraka, kantuan hasi zaigu: "(…) liburu guztiak erre ziren. / Gizon batzuk leku batean ezkutatu ziren / eta saiatu ziren liburu guztiak buruz ikasten / eta liburu bihurtu ziren / itxuraz gizon izan arren". Isilune labur bat egin du, barrurantz. "Ni liburu bihurtuko nintzateke".

A D I O R I K E Z

JUNES CASENAVE



Argazkia: Zaldiero

LUIS MARI INTZA



Argazkia: Maddi Soroa / Tolosaldeko ataria

MANEX PAGOLA



Argazkia: EKE



Argazkia: Juan Luis Zabala

JOXAN ARTZE

Testua: EIE

Joxan Artzek utzi gaitu aurten. Artze kultur eragilea, musikaria, idazlea. Artze esperimentatzailea, hitzak espazioan kokatzeko gai zena. Artze lerro arteko sinpletasunean euskal kulturaren konplexutasuna adierazteko kapaz zena. Artze pertsona, inoiz guztiz ezagutzera iristen ez garen gizatasunaren baitako infinituari begira. Bere poeta ahotsa eraldatzen joan zen urteetan zehar, edukien ikuspegi sozial batetik naturaren baitara eta izpiritualtasunera; garaian garaiko koloreak kolore, bere lan guztiak jarraian irakurtzen dituenak beti topatuko du gizatasuna erdigunean, gizatasunarekiko elkartasuna eta maitasuna.

Hartzen duenak, eman egiten du; eta Artzek eman egin zigun, asko. Bere testuak ez dira soilik poemak, askok bizi eta kantatu izan ditugun uneak eta oroitzapenak baizik. Txalaparta jotzen duenak bezala, beste norbaitekin batera -gurekin, irakurleokin- jo zuen literaturaren doinua, ttakun eta herrenka, hitzen musika gehituz bizitzaren erritmoari.

Eskerrik asko, Joxan, bihotzez, eman diguzun guztiagatik.

Argazkia: Iñigo Ibañez

PATXI EZKIAGA

Testua: Felipe Juaristi

Gizon-emakume batzuek arrasto sakona uzten dute, urak uhara urdina bezala, eta horri esker gogoratuak izaten dira. Poetak bere hitzak uzten ditu mundu guztiarentzat eta, hitzok jendearen oroimenean dirauten bitartean, bera ere ez da ahantziaren erresumara abiatuko. Guk Patxi Ezkiaga dugu gogoan, balea zuriaren atzetik orain dela gutxi abiatuta, eta, bera ezagututa, badakigu gure begira dagoela.

Poesian, hala zioen Patxi Ezkiagak, gauza bat da zerbait esan nahia eta bestea, ezberdina, esan nahi dena esatea, behar den bezala, irakurle edo entzulea bera ere poemaren parte eta partaide bihurtuz. Poetak bere hitzak aurkitu behar ditu, poesia hitzekin egiten baita, irudiekin bezainbeste. Eta hitzak, bere bidea eginez, berarekin darama poesia. Berez doan poesiaz ari gara, erreka erdiko harri eta harkaitzak joz eta, era berean, haiek bigunduz eta moldatuz goitik behera doan hitz-isuriaz. Poesia mundua moldatzen duen ura da, edo munduan bizi direnen azal eta hazpegiak ederki itxuratzen dituen eskua, alde horretatik begiratuta.

HEGATS

Harpidedun egin nahi duzu? **Urtean 5 euro** besterik ez dira.
Bidal ezazu mezu bat helbide honetara: **eie@idazleak.eus**.

Letraz letra, liburuz liburu 2018

SEKULA KONTATU BEHAR EZ NIZKIZUN GAUZAK
Iban Zaldua

AMEK EZ DUTE
Katixa Agirre

BERRIRO ITZULIKO BALITZ
Xabier Etxeberria



AZALA ERRE
Danele Sarriugarte



ZALDI MAMARROA
Ekaitz Goienetxea

NESKA BAT LEKU INPOSIBLEAN
Xabier Amuriza

ZU ENTZUTEKO GAUDE
Xabier Mendiguren



EGUNAREN HONDARRAK
Kazuo Ishiguro



BALOU MENDIKATEKO KANTA
Yan Lianke

elkar www.elkarargitaletxea.eus









www.erein.eus